

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2021

Informazio hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@euskadi.eus

[945-11.90.77](tel:945-11.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

Aurkibidea

0. Ekonomiaren egoera laburbilduta	1
1. Ekonomia susperraldiaren urtean	12
1.1 Pandemia atzean uzten	12
1.2 Munduko ekonomia jardueraren eta EAEko ekonomiaren ingurunearen portaera	14
1.3 Kriaren eragina Euskadin.....	24
2. Hazkundera berreskuratzeko hartutako neurriak.....	70
2.1 Moneta politika eta pandemiaren eragina finantza sektorean	70
2.2 Zerga politika bultzatzea.....	82
2.3 Euskal sektore publikoaren erantzuna	87
3. Etorkizuneko erronkak.....	106
3.1 Eraldaketa energetiko-ekologikoa	106
3.2 Eraldaketa teknologiko-digitala	116
3.3 Eraldaketa demografiko-soziala	122

Taulen aurkibidea

1. Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak.....	2
2. BPG errealaren bilakaera.....	3
3. EAEko taula makroekonomikoa.....	7
4. EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait	9
5. Munduko ondasunen merkataritza eremuka.....	15
6. Ekonomiaren aldagai nagusiak	21
7. Lehen arloko adierazle nagusiak.....	29
8. EAEko industriaren BEGaren bilakaera.....	30
9. Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak.....	33
10. Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak.....	34
11. Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka	35
12. Errenten adierazleen bilakaera.....	38
13. Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera.....	38
14. Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera	39
15. Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn	40
16. EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga	44
17. Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena	46
18. EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria	47
19. Enplegua sektoreka	53
20. Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak.....	56
21. Erregistratutako lan kontratuen bilakaera	62
22. Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	64
23. EAEko kontsumo prezioen indizea	65
24. EAEko industriako prezioen indizea.....	68
25. Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak	69
26. Banku zentralen interes tasak	71
27. 10 urterako zor publikoaren errendimendua	74
28. Gordailuen bilakaera	77
29. Zerga itunduen bilakaera.....	89
30. Eusko Jaurlaritzaren gastua koronabirusaren krisiari erantzuteko.	93
31. 15 ekimen enblematiko.....	108
32. Bonu Jasangarriaren jaulkipenen kopurua Euskadin.....	115
33. Eskualdeko Aurrerapen Sozialaren Indizea. 2020. urtea	125

Irudien aurkibidea

1.	EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	1
2.	BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn	5
3.	EAEko BPGari eginiko ekarpenak.....	6
4.	Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak	17
5.	Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak	18
6.	Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak.....	19
7.	Gerraren eragina adierazle nagusietan. Urte arteko aldakuntza tasak	23
8.	BPG biztanleko. 2019-2021. Urte arteko aldakuntza tasak	25
9.	BPG biztanleko. EAP	25
10.	BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (I)	26
11.	BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (II)	27
12.	BPG biztanlekoaren hazkunderaren banaketa (III)	28
13.	EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.	31
14.	Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	36
15.	EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko .	41
16.	Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (I) .	42
17.	Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)	43
18.	EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak.....	49
19.	Partaidetza tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn.....	51
20.	Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak	52
21.	Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn	54
22.	Aldi baterako enplegu erregulazioko egoeran dauden pertsonen bilakaera	55

23. Goi mailako hezkuntza (30-34 urte bitarteko taldea)	57
24. Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2021. urtea	58
25. Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko.....	59
26. Lanaldi partziala duten landunek okupatu guztiekiko.....	60
27. Langabezia tasaren bilakaera EAEn	61
28. Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn	62
29. KPIaren bilakaera.....	66
30. EAEn eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2021eko batez besteko balioak	67
31. EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko	76
32. Kredituen eta gordailuen alderaketa. BPGaren %.....	78
33. Kredituen bilakaera	79
34. Interes tasen bilakaera	81
35. Etxebizitzen hipoteken bilakaera. Mila	82
36. Defizitaren eta zor publikoaren bilakaera	83
37. Zerga nagusien diru bilketa 2005-2021. BPGaren %	90
38. Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2021. BPGaren %.....	95
39. Eusko Jaurlaritzaren aurrezkoa, kapital gastua eta defizita 2005-2021. BPGaren %.....	96
40. Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharraren analisisa 2005-2021. BPGaren %.....	97
41. Zorraren kostua eta bizitza	98
42. Foru aldundien aurrezkoa, kapital gastuak eta defizita 2005-2021. BPGaren %.....	99
43. Foru aldundien zorpetze beharraren analisisa 2005-2021. BPGaren %.....	100
44. Autonomia Administrazioaren zor publikoaren bilakaera (GDParen arabera). BPGaren %.....	101
45. Eusko Jaurlaritzak gauzatutako gastuaren bilakaera (2005-2021). BPGaren %	103
46. Elektrizitatea sortzeko ahalmen berriztagarriaren helburuak.....	111
47. Berotegi efektuko gasen isurien bilakaera	112
48. Isurien bilakaera eta berotze globalari eusteko helburuak	113
49. Ingurumenaren adierazlea. Puntuak	114
50. Ingurumena babesteari emandako garrantzia. Ehunekoak	114
51. DESI 2020 adierazlea. Dimentsioen eta herrialdeen arabera.....	117
52. DESI 2020 adierazlea. Dimentsioen arabera. EAE eta EB-28	118
53. I+Gko gastua. BPGaren ehunekoa	120
54. Berrikuntzaren adierazleak (I)	121
55. Berrikuntzaren adierazleak (II)	121
56. 65urtetik gorako biztanleak. 2020. %.....	123
57. Euskadiko biztanleria, adin talde beteen arabera	124
58. Bizi kalitatearen dimentsio anitzeko adierazlea (IMCV). 2020. 2008. urtea = 100.....	126
59. Pobreziaren edo gizarte bazterketaren arrisku tasa (ARPE adierazlea). 2021.....	127
60. Soldataren bilakaera EAEn. Soldata arrakala. 2008. urtea = 100	128


61. Batez besteko eta erdiko soldaten bilakaera EAEn. 2008. urtea = 100	129
62. Batez besteko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea = 100	130
63. Erdiko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea=100	131
64. Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100	132
65. Soldaten bilakaera EAEn. 10 pertzentila. 2008. urtea=100	132
66. Soldaten bilakaera EAEn. 90 pertzentila. 2008. urtea=100	133

0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA


Pandemiaren urtea 2020a izan bazen, 2021a susperraldiaren urtetzat har daiteke. Covid-19ak planetan zehar hedatzen jarraitu zuen eta andui ezberdinetara aldatzen joan zen, heriotzen saldoa oso negatiboa utziz eta munduko ekonomia guztien bilakaera baldintzatuz. Hala eta guztiz ere, biztanleriaren txertaketa prozesu azkarrari esker, batez ere herrialde garatuetan, birusaren hedapenari eusteko eta gero eta jarduera gehiagotan normaltasunera itzultzeko hartutako murrizketak pixkanaka lasaitzen joan ziren. Horri esker, munduko ekonomia %6,1 hazi zen urte horretan, eta tasa horrek nabarmen gainditzen ditu azken hamarkadetan erregistratutako batez besteko balioak.

EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak 1. irudia

EAEko ekonomia



Munduko ekonomia



Iturria: Eustat eta NDF.

Pandemiak eragindako atzeraldia orokorra izan zen bezala, ekonomiaren susperraldia ere herrialde guztietara hedatu da intentsitate handiz. Izan ere, urtearen beste ezaugarri nagusietako bat eskariaren gorakada handia izan zen, eta eskaintza ez zen gai izan azkar erantzuteko, ekoizpen kateetan botila lepoak sortuz eta inflazioak nabarmen gora eginez. Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, ekonomia garatuak %5,2 handitu ziren 2021ean, eta garapen bidean dauden herrialdeak, berriz, %6,8. Azken herrialde talde horren barruan, Txinak eta Indiak lortutako bultzada handia nabarmentzen da, %8tik gorako aldakuntza tasak lortu baitzituzten eta munduko hazkundearen herena baino gehixeago ekarri baitzuten bien artean. Emaizta bikaina izan arren, Txinaren kasuan hiruhilekoko bilakaerak zalantza batzuk sortzen ditu herrialde horren etorkizunari dagokionez.

Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoan bertako aldakuntza tasa %18,3ra iritsi zen, pandemiaren hasierako beherakada handiarekin alderatzen delako. Geroztik, urte arteko tasak moteltzen joan ziren eta laugarren hiruhilekoan %4,0ko tasa lortu zen, pandemiaren aurreko urteetako %6tik gorako zifretatik urrun. 2022ko lehen hiruhilekoan erritmoa %4,8raino bizkortu bada ere, ikusteko dago zero covid-aren politikak zer eragin izango duen herrialdean, omikron aldaera azkar hedatzen ari den eta konfinamenduak herrialdeko hiri garrantzitsuenetako batzuetan gertatzen diren une honetan.

Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak
1. taula

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia aurreratuak	42,1	5,2	2,2	Garatu gabeak	57,9	6,8	3,9
AEB	15,7	5,7	0,9	Txina	18,6	8,1	1,5
Eurogunea	12,0	5,3	0,6	India	7,0	8,9	0,6
Japonia	3,8	1,6	0,1	Errusia	3,1	4,7	0,1
Erresuma Batua	2,3	7,4	0,2	Brasil	2,4	4,6	0,1
Kanada	1,4	4,6	0,1	Mexiko	1,8	4,8	0,1
Besteak	6,9	5,5	0,4	Besteak	25,0	5,8	1,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Herrialde garatuetako bilakaera oso dinamikoa izan zen urtean zehar, nahiz eta pandemiak, hornidurarik ezak eta lehengaien eta produktu energetikoen garestitzeak zailtasunak ekarri zituzten. Bizitasun horren ondorioz, urtearen bigarren erdialderako AEBek eta euroaren eremuak pandemiaren aurreko balioak berreskuratuta zituzten. Nahiz eta 2020an azken urteetako historiako BPGaren beherakadarik handiena pairatu, susperraldia bi urtetan soilik gauzatu zen.

Oro har, herrialde garatuek %5,2ko hazkunde-tasa eskuratu zuten, eta urtearen bigarren erdian bizkortze leuneko profila marraztu zuten, 2022ko lehen hiruhilekora ere hedatu dena. Aldi horretan, aipatutako arazoei Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka armatua gehitu zitzaizkien, baita herrialde erasotzaileari zigor zorrotzak ezarri izana ere. Europak Errusiako petrolio eta gasarekiko duen mendekotasun energetikoak pentsarazten du kontinente zaharra izango dela gatazka armatuak gehien kaltetuko duena. Txosten hau idazterakoan, ondorioak oraindik mugatuak dira Europako ekonomian, baina inflazioaren eragina oso handia da.

BPG errealearen bilakaera
2. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Munduko ekonomia	3,3	3,7	3,6	2,9	-3,1	6,1
Herrialde garatuak	1,8	2,5	2,3	1,7	-4,5	5,2
AEB	1,7	2,3	2,9	2,3	-3,4	5,7
Japonia	0,8	1,7	0,6	-0,2	-4,5	1,6
Erresuma Batua	2,3	2,1	1,7	1,7	-9,3	7,4
Eurogunea	1,9	2,6	1,8	1,6	-6,4	5,3
- Alemania	2,2	2,7	1,1	1,1	-4,6	2,8
- Frantzia	1,0	2,4	1,8	1,8	-8,0	7,0
- Italia	1,3	1,7	0,9	0,5	-9,0	6,6
- Espainia	3,0	3,0	2,3	2,1	-10,8	5,1
- Euskadi	3,3	2,8	3,1	2,2	-9,9	5,6
Garapen bidean daudenak	4,4	4,7	4,6	3,7	-2,0	6,8
Txina	6,9	6,9	6,8	6,0	2,2	8,1
India	8,3	6,8	6,5	3,7	-6,6	8,9
Errusia	0,2	1,8	2,8	2,2	-2,7	4,7
Brasil	-3,3	1,3	1,8	1,2	-3,9	4,6

Iturria: NDF eta Eustat.

AEBek hazkunde tasa garrantzitsua eskuratu zuten 2021ean (%5,7), kontsumo eta inbertsio pribatuen bultzadari esker, oso erritmo altuetan hazi baitziren biak (%7,9 eta %9,8, hurrenez hurren). Aitzitik, sektore publikoak nabarmen moteldu zuen bere hazkundera (%0,5), 2020an pandemiari eusteko eta ekonomia suspertzeko egindako ahaleginaren ondoren. Ekonomiaren dinamismoak herrialdean enplegu asko sortzea eta langabezia tasa murriztea ekarri zituen, nahiz eta jarduera tasa pandemia aurretik zegoena baino txikiagoa izan, eta horri Dimisio Handia deitzen hasi zaio. AEBetako eredia gelditu egin da 2022ko hasieran, inflazioaren igoera handiak moneta politikaren normalizazioa bizkortu duelako, interes tasak hainbat aldiz igo eta gero. Horrela, aurtengo lehen hiruhilekoan, BPGaren urte arteko aldakuntza tasa %3,6 izan da, aurreko datua baino ia bi puntu txikiagoa.

Euroguneak BPGaren %5,3ko igoera izan zuen 2021ean. Tasa hari esker, pandemiaren ondorioz galdutako BPG osoa berreskuratu zuen urte horretako laugarren hiruhilekoan. Birusaren hedapena geldiarazteko ezarri ziren murrizketak kendu ahala, ondasunen eta zerbitzuen eskariak gora egin zuen, eta horrek atzerapenak eragin zituen bidalketetan eta botila lepoak ekoizpen kateetan, prezioen igoera nabarmenaren hasierarekin batera. Zailtasunak zailtasun, Europako ekonomia erritmo onean hazteko gai izan zen. Bilakaera on horretan, oso lagungarriak izan ziren Europako Banku Zentralaren (EBZ) diru politika moldagarria eta Next Generation EB programaren lehen funtsen etorrera.


Euroguneko ekonomia nagusiek hainbat hazkunde tasa erakutsi zituzten, Alemaniako %2,8tik Frantziako %7,0ra joan zirenak. Eremu ekonomikoko bi motorren arteko aldea herrialde bakoitzeko ekoizpen egituran datza. Hala, Alemaniak, manufakturen industriara oso fokatuta baitago, hornidura falta handiagoa nozitu zuen, eta hainbat jarduera adarri kalte egin zien, batez ere automobilgintzari. Frantziako ekonomia, berriz, urtearen azken zatian zerbitzu jarduerak irekitzeaz baliatu ahal izan zen. Italiak (%6,6) eta Espainiak (%5,1) bilakaera positiboak izan zituzten eta gorago aipatu diren bi potentzien artean kokatu ziren. 2022ko hasierak jarraipena eman dio 2021eko bigarren sei hilekoari, eta aipatutako herrialde guztietan aldakuntza tasa oso esanguratsuak erregistratu dira. Hala ere, Ukrainako gerrak, inflazio handiak, Txinaren balaztak eta moneta politikaren aldaketak moteldu egin ditzakete hurrengo aldiak hazkunde tasak.

Inguruko ekonomien susperraldi indartsuaren testuinguru horretan, EAeko BPGak %5,6ko hazkundera eskuratu zuen urteko batez bestekoan, eta tasa hori ez da ohikoa izaten, azken hamarkadetan 1998ko %6,0 horrek bakarrik gainditu duelako. 2020ko pandemiaren inguruko zirkunstantziek azaltzen dute iazko errebote efektua, hurrengo hiruhilekoetan apaltzen joango dena. Igoera handiak EAeko ekonomia 2008-2009ko Atzeraldi Handiaren aurreko egoeraren

gainetik jartzeko balio izan du, baina ez da nahikoa izan pandemiaren ondorioz galdutako guztia berreskuratzeko. Izan ere, mailari dagokionez, ekonomiari 5,5 puntu falta zaizkio 2019aren parean jartzeko. Hiruhilekoko terminoetan, 2019ko laugarren hiruhilekora itzultzea ez da lortuko 2022ko laugarren hiruhilekora arte. Beraz, hiru urte beharko dira atzeraldi hori gainditzeko, Europako batez bestekoak behar izan duena baino urtebete gehiago.

Enpleguari dagokionez, 2021eko emaitzak zapore gazi-gozoa uzten du. Alde batetik, pandemiaren eraginez 2020an galdu ziren lanaldi osoko 75.000 lanpostu baliokideetatik 49.000 berreskuratzea lortu zen. Beste aldetik, lortutako enplegu maila 2008ko Atzeraldi Handia hasi zenean EAEko ekonomiak zuen mailatik bost puntu baino gehiagora dago oraindik. Beste modu batean adierazita, gutxi gorabehera 50.000 lanpostu gehiago behar dira orain dela hamalau urte zegoen lanpostu kopurura itzultzeko. Horrek langabezia tasa baldintzatzen du; izan ere, 2020arekin alderatuta, langabezia tasa jaitsi egin zen eta %10,0an kokatu zen urteko batez bestekoan, baina 2008an lortutako %3,8tik urrun dago oraindik.

BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn
2. irudia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.


EAEko ekonomiak 2021ean lortu zuen bultzada handiak barne eskarian izan zuen jatorria, batez ere, eta horrek 5,3 puntuko ekarpena egin zion BPGaren hazkundeari. Bestalde, kanpo eskariak ekarpen apala egin zuen, hiru hamarrenekoa, baina azken zortzi urteetako handiena da. Munduko ekonomiaren susperraldiaren ondorioz, nazioarteko merkataritzak %10,1 egin zuen gora bolumenean eta %20 baino gehiago dolarretan neurtuta, 2020ko beherakada handiaren ondoren. Merkataritzaren bultzada horretatik EAEko ekonomiak ere parte hartu zuen, eta esportazioak %11,8 areagotu ziren termino errealetan eta %17,4, berriz, eurotan. Bi tasa horien arteko aldeak adierazten du esportazioen prezioetan tentsioak gertatzen ari zirela, %5 inguru igo baitziren, 2020ko jaitsieraren aldean.

EAEko BPGari eginiko ekarpenak
3. irudia

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren azterketan, nabarmentzekoa da eskaria osatzen duten bi elementuek erakutsitako indarra. Hala, azken kontsumoko gastua %4,8 igo zen, eta pandemia hasi aurreko maila berreskuratzeko bost puntura geratu da. 2020an zuhurtziaz jokatzegatik eta nahi den guztia kontsumitzeko ezintasunagatik aurrezkiak gora egin ondoren, murrizketen ondorioz, 2021ean kontsumo pribatua %5,3 hazi zen, ekonomia osoa baino hiru hamarren gutxiago. Beraz, pandemia aurreko kontsumo ereductara itzuli dela ikusten da. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoak hazteko joerari eutsi zion (%3,0), baina ez zen aurreko urteko intentsitatera iritsi (%3,8).

EAEko taula makroekonomikoa
3. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Barneko azken kontsumoa	3,0	2,9	2,6	2,0	-8,9	4,8
Familien kontsumoko gastua	3,3	3,1	3,0	1,7	-12,4	5,3
Herri administrazioen kontsumoa	1,8	2,1	1,2	3,1	3,8	3,0
Kapital eraketa gordina	5,5	3,1	4,9	3,3	-11,7	6,3
Ekipamenduko ondasunak	8,6	3,5	4,5	3,0	-12,9	12,8
Gainontzeko inbertsioa	3,8	2,9	5,1	3,4	-11,0	2,6
Barne eskaria	3,6	2,9	3,2	2,3	-9,6	5,1
Esportazioak	1,8	4,8	2,7	-0,2	-16,1	11,8
Inportazioak	2,2	5,0	2,8	0,0	-15,4	10,8
BPG	3,3	2,8	3,1	2,2	-9,9	5,6
Lehen arloa	1,0	10,1	1,7	5,9	-15,0	1,8
Industria	4,2	2,5	2,0	1,4	-11,2	8,5
Eraikuntza	0,2	1,6	4,0	2,4	-8,2	2,4
Zerbitzuak	2,8	2,9	3,1	2,5	-9,0	5,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,6	4,1	4,3	2,2	-18,1	8,9
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,4	2,2	1,8	3,2	1,6	2,5
Gainontzeko zerbitzuak	2,5	2,6	3,0	2,4	-8,6	4,1
Balio erantsi gordina oinarrizko preziotan	3,0	2,8	2,9	2,3	-9,5	5,6
Ekoiak gainera	6,8	2,3	4,9	2,0	-13,6	5,3

Iturria: Eustat.

Kapitalaren eraketa gordinak %6,3ko hazkunde tasa izan zuen urteko batez bestekoan, hots, azken hamabost urteetako tasarik altuena, aurreko urteko jaitsiera bortitzarekin alderatuta errebote efektu bati erantzuten diona. Mailan neurtuta, inbertsioa pandemiaren aurreko posiziotik zazpi puntura dago kokatuta. Bereziki aipagarria da ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioaren igoera (%12,8), 2019an lortutako baliotik hurbil baitago. Aitzitik, gainerako inbertsioak, eraikuntzan egindakoa barne, gehikuntza apalagoa izan zuen (%2,6). Hiruhilekoko bilakaerak adierazten du urtearen amaieran ere dinamismo handia nabari zela inbertsio globalean, nahiz eta Ukrainan gerrak, Txinan omikron aldaera hedatu izanak, horniduren entregean

atzerapenak eta inflazio handiak sortu duten ziurgabetasunak kapitalaren eraketa gordinaren hazkundera mugatu dezaketen urte osoan.

2020an, pandemiak gehien kaltetutako produkzio sektorea industria izan zen, baina susperraldiaren urtean, hain zuzen ere, sektore horrek lortu zuen susperraldirik deigarriena. Hain zuzen ere, industriaren balio erantsia %8,5 handitu zen iaz, eta pandemiaren ondorioz galdutako hamabi puntuetatik zortzi berreskuratu ditu jadanik. Horri esker, sektoreak pisu pixka bat berreskuratu du balio erantsi globalaren barruan, 2020ko %23,1etik %24,2ra igaro baita; ehuneko hori 2012-2018 aldian izandakoaren antzekoa da, baina urrun dago Atzeraldi Handiaren aurreko urteetan izandako %30 hartatik. Produktu multzoen arabera, ekoizpenak nabarmen egin zuen gora guztietan, energian izan ezik, 2020ko maila apalean ia aldaketarik gabe mantendu baitzen. Gainerako taldeek bi digituko aldakuntza tasak eskuratu zituzten, eta 2022aren hasieran pandemia hasi aurreko ekoizpen mailak ia berdindu zituzten.

Eraikuntzak balio erantsiaren hazkunde apala jaso zuen 2021ean (%2,4), beste produkzio sektoreek lortutako tasetatik oso urrun dagoena. Beraz, pandemiaren aurretik izan zuen maila berreskuratzeko 6,5 puntura geratzen da. Urteko azken hilabeteetan lehengaiek ezagutu zuten garestitzeak kalte egin zion sektore horri, obra zibilari bereziki. Beste aldetik, eraikinen atalak tonu hobea erakutsi zuen, higiezinaren sektoreak bizi zuen suspertzeari esker. Horiek horrela izanda, etxebizitzaren salmenta %17,2 areagotu zen eta aurreko urteetakoa baino zertxobait handiagoa izan zen unitateen salmenta.

Zerbitzuek, oro har, %5,0ko hazkundera lortu zuten, eta horrek bost puntura utzi ditu 2019an lortutako mailara itzultzeko. Sektorearen barruan, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen blokearen portaera nabarmentzekoa da, bere balio erantsia %8,9 handitu baitzuen. Hain zuzen ere, adar horiek sufritu zuten gehien konfinamenduari eta pandemia kontrolatzeko mugikortasunaren murrizketekin, eta, beraz, normaltasunera itzultzeak aldakuntza tasa handiak ekarri ditu. Hala eta guztiz ere, 12,5 puntu geratzen zaizkio 2020ko jaitsieratik erabat berreskuratzeko. Aitzitik, administrazio publikoarekin lotura handiena duten zerbitzuek, 2020an balio erantsia galdu ez zutenek, %2,5eko igoera izan zuten. Azkenik, gainerako zerbitzuek %4,1eko gehikuntza tasa izan zuten.

EAEko ekonomiaren susperraldiak prezioen gorakada ekarri du, aurreko urteko balio negatiboak atzean utzita. Izan ere, BPGaren deflatoarea, urteko batez bestekoan, 2020ko -%0,1etik 2021eko %2,3ra igaro zen. Azken balio hori Europako Banku Zentralak ezarritako helburutik oso hurbil dago

(%2,0ko muga ez gainditzea), baina hiruhilekoko bilakaera kezkarriagoa da, azken hiruhilekoko deflatoarea %4,2ra iritsi baitzen. Antzeko bilakaera izan zuten kontsumoko prezioek ere: urteko batez besteko igoera %3,1ekoa izan zen, baina kopuru hori bikoiztu egin zen abenduan (%6,4) eta hirukoiztu egin zen 2022ko martxoan (%9,5). Prezioen goranzko bilakaera azkar horren arrazoi nagusiak honako hauek dira: pandemiaren kontrolaren ondoren sortutako eskari handia, horren ondoriozko hornidurarik eza eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko tentsio geopolitikoak, azken herrialde horren inbasioa eta lehenengoaren aurkako zigorrak eragin zituztenak, energia merkatuan ziurgabetasun handia sortuz.

EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait
4. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Biztanleko BPG eurotan. EB-27=100	109,9	109,7	109,3	108,4	101,6	101,9
Biztanleko BPG eurotan. EB-15=100	118,8	119,4	117,3	116,5	108,3	109,0
BPG erreala merkatu prezioetan	3,3	2,8	3,1	2,2	-9,9	5,6
Enplegua	2,2	2,1	2,3	1,5	-7,7	5,5
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	1,1	0,7	0,8	0,7	-2,4	0,1
BPG nominala merkatu prezioetan	4,0	3,5	4,3	3,4	-10,1	8,1
BPGaren deflatoarea	0,6	0,7	1,2	1,2	-0,1	2,3
KPI (urteko batez bestekoak)	0,0	2,0	1,6	1,0	-0,1	3,1
Kostu guztiak langile bakoitzeko	-0,9	0,5	2,5	1,8	-1,1	4,9
Langabezia tasa	13,8	11,6	10,5	9,8	10,6	10,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

BPG erreala %5,6 hazi zen eta enplegua (lanaldi osoko lanpostu baliokidetan), berriz, %5,5; bi aldagai horiek konbinatuz, horrek esan nahi du 2021eko produktibitate irabazia hamarren bat baino ez dela izan, aldagai horren batez besteko historikoaren (0,9 puntu) oso azpitik dagoena. Industriak espero zen portaera erakutsi zuen, eta produktibitatea %4,6 handitu zuen, aurreko urteko jaitsieraren ondoren. Hala ere, eraikuntzaren eta zerbitzuen produktibitateak behera egin zuen berriro (-%2,7 eta -%1,1), balio erantsia baino enplegu gehiago sortu baitzuten. Egoera hori atipikoa eta iragankorra da, jardueraren garapenean eraginkortasuna galdu dela adierazten baitu. Zorionez, azken hiruhilekoko jaitsierak txikiagoak izan ziren.

2020an, aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak (ABEEE) abian jarri izanak lagundu zuen pandemiaren eraginpeko enpresetan lan egiten zuten pertsonen haiekin harremana izaten, kontratuak amaitu beharrean. 2021ean zehar, ekonomiaren susperraldia sendotu ahala, ABEEEetatik ateratzen ziren pertsonen kopurua areagotu egin zen; hala, 2020ko maiatzean 139.000 pertsonatik gorako maximoa lortu ondoren, 2021aren amaieran 3.700 pertsonara murriztu zen kopurua. Ondorengo hilabeteetan, kopuru hori are beherago joan da.

BPG errealaren eta deflatoarearen hazkundeak BPG nominala 77.300 milioi eurora igorazi zuten, aurreko urtekoa baino %8,1 gehiago delarik, baina oraindik 2019ko 79.537 milioietatik urrun, orain arteko errekorra hura baita. Ekonomiaren bultzadari esker, itundutako zergen diru bilketa 15.963 milioi eurora iritsi zen, aurreko urteko kopurua baino %14,4 handiagoa, eta baita 2019koa baino handiagoa ere. Zerga nagusi guztiek igoera oso esanguratsuak izan zituzten. Nabarmentzekoak dira BEZarena (%21,2) eta PFEZrena (%8,2), horiek baitira biltzeko ahalmenik handiena duten bi zergak, bien artean 12.371 milioi euro jaso zuten guztira.

BPG nominalaren hazkunde sendo horrek zor publikoaren zifretan izan zuen eragina, termino erlatiboetan BPGaren %15,6raino jaitsi baitziren, hau da, 2020ko emaitza baino sei hamarren gutxiago, urte horretan inoizko mailarik handiena lortu baitzen, jarduera ekonomikoaren jaitsieraren eta urte horretan egin zen zor publikoaren jaulkipen garrantzitsuaren ondorioz. Bestalde, zor publikoaren 2021eko saldo bizia, 11.172 milioi euro, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan lortutako helburuaren azpitik kokatu zen, %16,9 baitzen.

Pandemiari emandako erantzun ekonomikoaren protagonistak hainbat neurri dira, horien artean Europako funtsak martxan jartzea, bereziki Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa (MRR), eta pandemiaren ondorioei aurre egiteko ezohiko funtsak aipatu behar dira. Espainiako gobernuak Berreskurapen eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoak (PERTE) diseinatu ditu, izaera estrategikoa eta ekonomiarako, enplegurako zein lehiakortasunerako arraste gaitasuna dutenak. Egitasmo horiek duela gutxi jarri dira abian, baina espero da Euskadik baliabide garrantzitsuak lortzea mekanismo horren bidez, kontuan hartuta EAEko industriak beraietan jasotako eremu batzuetan duen posizio ona.

Epe ertainean, Euskadik etorkizuneko erronka batzuei aurre egin beharko die; besteak beste, erronka energetiko ekologikoa, digitalizazioa, biztanleriaren zahartzea eta inklusibotasuna. Datu berriek adierazten dute aurrerapen batzuk egin direla emisioen murrizketaren alorrean, nahiz eta oraindik ahalegin handia egin behar den, bai Euskadin bai munduan, berotze globala

geldiarazteko. Digitalizazioa abian da eta etorkizunean produktibitate irabaziak lortzeko garatu beharreko tresnetako bat izango da. 2021ean, abiapuntua ona da, eta funtsen etorrerak eraldaketa digitalarekin jarraitzen lagunduko du. Azkenik, populazio egituran izandako aldaketak erronka handia dira, mendeko biztanleria handitu egin baita guztizkoaren aldean. Hala ere, zilar koloreko ekonomiari lotutako jarduera berriak garatzeko aukera ere badago, erosteko ahalmen handia duten 55 urtetik gorako pertsonena, hain zuzen ere.

Gizarte gisa landu beharreko etorkizuneko beste alderdi bat berdintasuna da. Soldata arrakala murriztu egin da azken urteetan, baina oraindik ere garrantzitsua da. Azken urteetako lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) igoerei esker, diru sarrera txikiak zituzten pertsonak, nagusiki emakumeak baitira, beren egoera hobetu dute gainerako taldeekin alderatuta eta 2008an jasotzen zituzten diru sarrerekin alderatuta. Aipatzekoa da 10. pertzentilean, hots, diru sarrera txikiak zituzten %10ean, emakumeek ikusi zutela batez besteko diru sarrera murriztu egin zela Atzeraldi Handiaren ondoren; hala ere, LGSaren igoera horiek balio izan dute beren soldaten beheranzko joera zuzentzeko.

1. EKONOMIA SUSPERRALDIAREN URTEAN

1.1 Pandemia atzean uzten

Oro har, 2020. urtea covid-19arena izan zen, eta 2021a, berriz, munduko susperraldiarena. Horrek ez du esan nahi gaixotasuna desagertu denik eta gizartean edo ekonomian eraginik ez duenik. Ondorioak izaten jarraitzen du, baina munduak berarekin bizitzen ikasi du, beste gaixotasun batzuekin egiten duen bezala. Aldaera berrienak, omicrona kasu, kutsakorragoak dira, baina haien hilgarritasuna aurrekoak baino txikiagoa izaten ari da.

Pandemiaren azken zifrek gertakari biriko horrek munduan izan duen aparteko eragina agerian uzten dute. Kalkuluen arabera, jadanik 544 milioi kasu hauteman dira mundu osoan, eta 6,3 milioi heriotza gertatu dira. Herrialde bakoitzak hartutako neurrietan izan duen permisibitatearen arabera, heriotzen balantzea oso desberdina izan da. Muturreko bi adibide jartzearren, Txinan oraindik ere covid zeroaren politika aplikatzen ari da; horren bidez, edozein agerraldi, txikia izan arren, berehala erantzuten da mugikortasunaren murrizketekin, kontaktuen miaketarekin eta biztanleriaren konfinamendurekin, baita oso populatuak diren hirietan ere, Shanghain berriki gertatu den bezala. Neurri horiek munduko ekonomian izan duten eragina oso garrantzitsua izan da eta da oraindik ere, herrialde hori munduko fabrika nagusia baita. Egin diren kalkuluen arabera, Txinan 225.000 kasu pasatxo zenbatu dira, eta gaixotasunak eragindako heriotzak 5.226 izan dira orain arte.

Kontrako noranzkoan, AEBetako erantzuna motela izan zen eta birusa azkar hedatu zen herrialdean. Presidentearen aldaketak beste ikuspegi bat ekarri zuen, eta maskaren erabilera, urruntzea eta txertaketa izan ziren jardueraren ardatzak, baina ezin izan du saihestu 88 milioi pertsona inguruk gaixotasuna hartzea herrialdean eta milioi bat pertsona inguru hiltzea. Hasierako eredu

estatubatuarrari jarraitu zion beste herrialde bat Brasil izan zen. Gaur egungo datuen arabera, 31,7 milioi pertsona kutsatu dira eta 669.000 heriotza eragin ditu gaixotasunak herrialde horretan. Indiak emandako erantzuna ere eskasa izan da, eta 43,3 milioi pertsona kutsatu direla eta milioi erdi baino gehiago hil direla kalkulatu da.

Europako herrialdeak bat etorri ziren Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) gomendioekin, eta birusaren transmisioa saihesterik izan ez zuten arren, heriotzak txikiagoak izan ziren, baina oso garrantzitsuak. Hori horrela izanda, Frantzia 30 milioi kutsatu baino gehiago izan dira, 149.000 hildakorekin. Alemanian, berriz, 27,2 milioi kasu eta 140.000 heriotza inguru izan dira, Erresuma Batuan 22,5 milioi kutsatze eta 179.000 hildako, eta Espainian, orain arte, 12,5 milioi pertsona kutsatu dira, 107.000 hildakorekin.

Ez dakigu zenbat pertsona kutsatu diren mundu osoan; izan ere, gorabidean dauden herrialde askotako erregistroak ez dira oso zorrotzak, baina zenbait kalkuluren arabera, munduko biztanleen %10ek dagoeneko izan dute birusa. Alderdi kaltetuenetako bat irakaskuntza izan da, herrialde baten produktibitatearen gakoetako bat baita. Gutxi gorabeherako kalkulu baten arabera, 2.200 milioi ikasle egon dira uneren batean ikastetxe eta unibertsitateen itxieren eraginpean. Halaber, biztanleriaren herena konfinatuta egon da denbora batez. Txertoen etorrerak ahalbidetu zuen egoera bideratzea. Orain arte, munduko biztanleen %66k, hau da, 5.180 milioi pertsonak, dosi bat jaso dute gutxienez.

Testuinguru horretan, Euskadi ez da salbuespena izan, eta pandemiaren osasun ondorioak jasan ditu, Europako gainerako herrialdeak bezala. Kalkuluen arabera, 726.000 pertsonak baino gehiagok izan dute birusa lurralde honetan. Horietatik 7.000 pertsona baino gehiago hil dira. Adineko pertsonak dira ahulenak covid-19aren aurrean, eta heriotza horietatik 6.000 pertsonak baino gehiagok gutxienez 70 urte zituzten.

EAEko herritar gehienek txertoa hartzea erabaki zuten. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, autonomia erkidego honetara 4,5 milioi txerto inguru iritsi dira, eta horien %98,3 inokulatu egin dituzte. Euskadin bizi diren 2,1 milioi pertsonetatik 1,9 milioik pauta osoa hartu dute, eta 1,2 milioik oroitzen dosia ere jaso dute. Txertaketa ehunekoak oso handiak dira helduen artean (12 urtetik gorakoan artean, %95ek pauta osoa jaso dute), baina 5 eta 12 urte bitartekoan artean behera egin du, konplikazio gutxien izan duen adin taldea baita. Adin talde horretan, %50ek soilik jarri du dosi bat gutxienez, eta %40k du dosi osoa.

1.2 Munduko ekonomia jardueraren eta EAEko ekonomiaren ingurunearen portaera

2021. urtea susperraldiarena izan zen, eta bikaina izan zen hazkunde ekonomikoaren ikuspegitik. 2020ko martxoan koronabirusaren agerpenak ekarri zuen shockaren ondorioz, planeta atzeraldi larri batean sartu zen, eta susperraldia 2021. urtean iritsi zen, aurrekaririk gabeko estimulu sorta baten eskutik, bai zergen aldetik, bai moneta neurrien aldetik. 2021eko balantzerako NDFk aurkeztu dituen lehen aurreikuspenen arabera, munduko BPGaren hazkundera %6,1ekoa izan zen, hamarkadetako tasarik altuena baita. Ekonomiaren gorakada are handiagoa izango zen, udatik aurrera agertu ziren hornikuntza kateetako botila lepoek eta lehengaien eta produktu energetikoen garestitzeak geldiarazi ez balute.

Gobernu eta banku zentralen laguntza paketeekin batera, 2021eko susperraldi ekonomikoaren beste eragile nagusia koronabirusaren aurkako lehen txertoen etorrera izan zen. Munduko biztanleriaren zati handi baten immunizazioak, batez ere herrialde garatuetan, aukera eman zuen ekonomiak berriro irekitzeko eta hainbat sektore nolabait normalizatzeko, hala nola garraioa eta turismoa. Txertaketa ezinbestekoa izan da andui berriak kontrolatzeko, batez ere omikrona, 2021eko azarotik nagusi den anduia baita; izan ere, txerto horiek gabe, ospitaleko tentsioak eta murrizketek beste oztopo bat izango ziren munduko ekonomiak aurrera egin zezan.

Prezioak izan ziren bilakaera ekonomikoaren beste baldintzatzaile nagusia. Atzeraldi Handiaren ondoren, prezioek arazo izateari utzi zioten, eta, horri esker, banku zentralak dirua erruz injektatu zuten merkatuetan, eta interes tasak eremu ezezagunetara jaitsi zituzten, inflazioaren gorakadaren beldurrik gabe. Egoera horrek, hala ere, ustekabeko aldaketa bizi izan zuen 2021ean. Aldi berean, energiaren prezioak altuagoak izan ziren, neurri batean eredu jasangarriago baterako trantsizioak bultzatuta, munduko produktuen garraioan botila lepoak agertu ziren, eta eskaintza ezinean ibili zen munduko eskariaren errebote handia asetzeko (lantegi askok ahalik eta gehien murriztu zituzten inbentarioak koronabirusaren ostean), susperraldi ekonomikoarekin batera sortu zena. Arrazoi horiengatik guztiengatik ekonomia gehien inflazioa nabarmen handitu zen. AEBetan, adibidez, 2021eko abenduan prezioak %7,0 igo ziren urte arteko tasan, eta 2022ko martxoan %8,5era igo ziren, herrialdeko 41 urteko KPIaren erregistrorik altuenera, alegia.

Nazioarteko merkataritzak, berriz, nabarmen egin zuen gora 2021ean. Zehazkiago adierazita, munduko salgaien merkataritzaren balioa dolarretan %26,3 hazi zen eta 22,3 bilioi dolarretara hurbildu zen. Zerbitzuen merkataritzaren balioa, berriz, %15,0 handitu zen, 5,7 bilioi dolar gutxira. Ondasunen merkataritza globalaren eta zerbitzuen merkataritzaren bilakaera desberdin horren

arrazoia da ondasunen merkataritza nabarmen handitu zela automobilgintzaren, produktu elektronikoen eta kanpoko gaien eskari handiari esker, hori guztia hornidura katean urtearen bigarren erdian botila lepoak izan arren; zerbitzuen merkataritza, berriz, motelago suspertu zen, pandemiak oraindik indarrean zituen murrizketek eraginda. Izan ere, salgaien merkataritzak pandemiaren aurreko maila berreskuratu eta gainditu zuen 2021ean; zerbitzuen merkataritzak, ordea, 2019ko mailen azpitik jarraitu zuen (%5,0 beherago), eta tasa hori %47,0ra igotzen da turismoaren segmentuaren kasuan, Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) datuen arabera.

Munduko ondasunen merkataritza eremuka
5. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila milioi AEBetako dolarrek

	Esportazioak				Inportazioak			
	Balioa	Aldakuntza tasak			Balioa	Aldakuntza tasak		
	2021	2019	2020	2021	2021	2019	2020	2021
Mundua	22.283,8	-2,8	-7,2	26,3	22.518,8	-2,6	-7,5	26,0
Ipar Amerika	2.752,2	-0,6	-12,4	23,3	3.959,9	-1,8	-8,1	23,1
AEB	1.754,6	-1,3	-13,3	23,1	2.937,1	-1,8	-6,3	22,0
Erdi eta Hego Amerika	717,9	-5,8	-9,1	33,8	741,6	-5,0	-16,0	41,7
Brasil	280,8	-4,6	-5,4	34,2	234,7	0,2	-13,9	41,1
Europa	7.980,8	-2,8	-6,3	22,0	7.995,9	-2,9	-6,3	23,0
Europar Batasuna	6.625,6	-2,8	-6,0	21,0	6.456,9	-3,6	-7,0	25,3
EBE (*)	652,3	-4,2	-19,8	43,8	458,8	5,1	-7,6	24,6
Errusia	494,0	-5,4	-20,6	48,2	303,9	2,0	-5,6	26,8
Africa	547,3	-5,6	-17,5	38,7	630,1	-0,1	-13,7	24,4
Ekialde Hurbila	1.131,8	-8,8	-24,7	40,5	819,4	2,1	-12,6	21,8
Asia	8.501,6	-1,9	-1,4	27,2	7.913,1	-3,8	-6,4	30,1
Txina	3.364,0	0,5	3,6	29,9	2.687,5	-2,7	-0,6	30,1
Japonia	756,0	-4,4	-9,1	17,9	769,0	-3,7	-11,9	21,0
India	395,4	-0,1	-14,8	43,1	572,5	-5,5	-23,2	53,4

(*) Estatu Burujabeen Erkidegoa.

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta UNTAC.


Eremuka, guztiek izan zituzten gehikuntza tasa apartak, bai 2020an izandako truke maila txikiarekiko oinarrizko konparazio efektuaren ondorioz, bai eremu guztietako salmenten bilakaera bikainaren ondorioz (2021ean marka berriak izan zituzten esportazioen mailan). Gainerakoen gainera, Ekialde Ertaineko (%40,5), Afrikako (%38,7), Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako (%33,8) esportazioen ibilbidea nabarmendu zen. Ekialde Ertainean, esportazioen igoera handia energiaren prezioen gorakadak baldintzatu zuen, batez ere erregaiarenak, zeinaren salmenta berriro ere indartsu hazi baitzen mugimenduen murrizketak kendu eta muga guztiak ireki ondoren. Baliabide naturaletan aberatsak diren eskualdeek ere esportazioen hazkunde tasa handiak eskuratu zituzten. Hori izan zen Afrika eta, Latinoamerika eta Karibeko kasua. Bi eskualdeetan, beren oinarrizko esportazio produktu nagusietako batzuen prezioen igoeraz gain, Txinak, AEBek eta Europar Batasunak inportazioen eskari handiagoak ere mesede egin zien.

Bestalde, Asiak ere gora egin zuen munduko batez bestekoaren gainera, ondasunen fabrikazioan izan zuen paper nabarmenari lotuta. Zehatz-mehatz adierazita, eremu horrek 8.500 bilioi dolar baino gehiagoko produktuak saldu zituen, kanporako esportazioak %27,2 handituz. Txinak %29,9 handitu zituen salmentak, nazioarteko merkataritza berriro irekitzeak, pandemiaren aurkako borrokarekin lotutako produktuen salmentak (maskara kirurgikoak, esaterako) eta produktu mekaniko eta elektronikoen salmentak bultzatuta. Inportazioak ere indartsu hazi ziren arren (urte arteko %30,1), Txinako merkataritza balantza superabitariora izan zen eta 676.500 milioi dolarreko errekorra izan zuen.

Ekonomia aurreratuetan, merkataritza munduko batez bestekoaren zertxobait azpitik hazi zen, baina, hala ere, gehikuntza tasak indartsuak izan ziren. Horrela, AEBetako esportazioak %23,1 hazi ziren eta Europar Batasunekoak, berriz, %21,0. Zerga pizgarrien pakete erraldoiek bi eremuetako salmentak bultzatu zituzten.

Jarduera ekonomikoak ere gorakada handia izan zuen, baina susperraldia ez zen lineala edo uniformea izan. Lehen seihilekoan tasa harrigarriki altuak eskuratu ondoren, kasu askotan jardueraren hazkundera bi digituko eta aurrekaririk gabeko mailetaraino ekarri zuten, urteko bigarren seihilekoan herrialdeek erritmo motelagoan egin zuten gora. Hazkunde tasa txikiago horiek normalizazio prozesu bati egokitu zitzaizkion, oinarrizko ondorioak desagertu, murrizketak kendu eta estimuluak murriztu ahala. Halaber, ondasunen eskaria nabarmen handitu zen ekonomiak berriro ireki zirenetik, eta eskaintza erritmo horri jarraitzeko gai ez izateak itotze puntuak eragin zituen ekoizpen kateetan, eta energiaren eta lehengaien prezioak igo egin ziren. Hala ere, urteko balantzeak oso positiboak izan ziren.

Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak
4. irudia



Iturria: NDF.


Zehazkiago, Latinoamerikan, susperraldia kanpoko faktoreek bultzatu zuten nagusiki, hala nola bazkide komertzial nagusien hazkundeak eta lehengaien prezioen dinamika positiboak, haien batez besteko historikoaren gainera kokatu baitziren. Barne mailan, immunizazioaren aurrerapenak, zenbait herrialdetan (Txilen eta Kolonbian, esaterako) zerga alorreko bultzada jarraitzeak eta 2020an aurrezkiak metatzeak ere sendotu zuten hazkundera. Horren guztiaren ondorioz, 2021eko BPGa %6,8 hazi zen, tasa garrantzitsua, baina ez zen nahikoa izan pandemia hasi aurreko mailak berreskuratzeko. Hala ere, susperraldia desberdina izaten ari da herrialdeen artean. Brasileko (%4,6) eta Txileko (%11,7) ekonomiek politika ekonomikoaren babes handia jaso zuten eta mugikortasuneko murrizketa txikiagoak izan zituzten, lehen kasuan, eta txertaketa erritmo handiagoa erregistratu zuten, bigarrenean, 2019. urtearen amaierako BPGaren maila berreskuratu zuten 2021ean; Mexiko (%4,8) eta Argentina (%10,2) herrialdeek, berriz, 2022. urtearen amaierara arte itxaron beharko dute, gutxienez, berriro hartzeko.

Asiari dagokionez, 2020an gutxien hondatutako eremua izan baitzen, %7,2 hazi zen 2021ean. Txinan, agerraldiekiko zero tolerantziaren ikuspegiak eta higiezinaren sektorearen arazoek barne eskaria eta, batez ere, inbertsioa baldintzatu zituzten, eta horrek garrantzi berezia eman zion BPGaren hazkunderari urtearen azken txanpan. Hala eta guztiz ere, 2021ean jarduera ekonomikoa


%8,1 hazi zen. Indian, jarduera ekonomikoak %8,9 egin zuen gora, batez ere esportazio handiek eta inbertsio pribatuak bultzatuta, kontsumo pribatuak dinamismo txikiagoa erakutsi baitzuen. Indiako pizgarri fiskal ugariak eta pandemiari emandako osasun arloko erantzunek, zalantzarik hasiera baten ondoren, haren eraginkortasuna erakutsi zuten 2021ean, herrialdearen etengabeko susperraldia babestu zuten eta covid-19aren krisiaren inpaktu iraunkorrak arintzen lagundu zuten.

Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak
5. irudia


Amerika Latina




Brasil



Txina




India



Iturria: NDF.

Japoniak, bere aldetik, hazkunde batekin (%1,6) amaitu zuen 2021. urtea, nahiz eta birusaren ondoko ondoko olatuak geldiarazteko hiru hilean behin hartutako neurrien ondorioz gorabeherak izan, batez ere kontsumoari kalte egin ziotenak, eta hornidura kateko arazoek industria ekoizpenaren erritmoa murriztu zuten. Alde positiboan, esportazioak nabarmendu ziren, munduko makineriaren eskari handiari esker sendo agertu baitziren. Aurreikuspenen arabera, txertaketa tasak, beste herrialde garatu batzuetako mailetatik gertu, eta zerga zein diru laguntza etengabeak pandemia aurreko BPGaren mailak berreskuratzea ahalbidetuko dute 2022an.

Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak
6. irudia



Iturria: NDF eta Eurostat.

Gainontzeko ekonomia aurreratuen bilakaera aipatu denaren antzekoa izan zen. Jarduera ekonomikoa 2021ean hasi zen hazkunde erritmo sendoekin, baina horiek dinamismoa galduz joan ziren covid-19aren agerraldi berriak sortu ahala eta urtean zehar gero eta gehiago agertu ziren bi fenomeno areagotu ahala. Fenomeno horiek, neurri handi batean, pandemiaren ondoren ekonomiak berriro irekitzearen ondorio dira: hornidura kate globalerako tentsioak, eskaria berreskuratzeko ondorioz, eta ekoizpen prozesuetan, baina baita kontsumoko saskian ere, parte hartzen duten ondasun kopuru handi baten garestitzea.

Garatzeko bidean dauden herrialdeentzat azaldu den bezala, ekonomia aurreratuen artean ere susperraldia heterogeneoa izan zen. Hain zuzen ere, horietako batzuek bakarrik lortu zuten osasun krisiaren aurreko BPGaren mailak berreskuratzeko. AEBek 2021eko hirugarren hiruhilekoan gaingitu zuten langa hori (2019ko laugarren hiruhilekoko baino 1,4 puntu handiagoa izan zen), eta Europar Batasunak eta euroguneak 2021eko laugarren hiruhilekora arte itxaron behar izan zuten krisian galdutako aberastasuna eta enplegua berreskuratzeko. Hala ere, balantze orokorra gorabehera, Espainia, Italia, Portugal eta Alemania, beste herrialde batzuen artean, ez ziren gai izan pandemia aurreko jarduera maila 2021ean berreskuratzeko.

AEBak %5,7 hazi ziren 2021ean, 1984tik izan duen gehikuntza tasarik handiena baita. Erreserba Federalak espero zuena baino hazkunde handixeagoa izan zen, erakundeak %5,5eko gorakada aurreikusi baitzuen, baita Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) proiektatu zuen tasarena ere, %5,6 espero baitzuen. Familien kontsumoaren erritmo onak (AEBetako ekonomiaren ia hiru laurdenak biltzen baititu agregatu horrek eta iaz %7,9 handitu zen) eta inbertsio pribatuak (%9,8) babestu zuten hazkunde hori.

Euroaren eremuan, herrialdeen bilakaera oso antzekoa izan zen. Horietan guztietan, kontsumo pribatua izan zen hazkundearen bultzagile nagusia, eta, batez ere, geroraturako eskariak babestu zuen. Inbertsioa izan zen beste zutabea, herrialde gehienetan sendo agertu zena. Alemania izan zen salbuespena. Botila lepoekiko duen esposizio handiak –iazko une batzuetan manifaktura sektorearen ia %90ek aitortu zuen hornikuntza arazoak zituela– dinamismo txikiagoa azaltzen du. Gastu publikoak ere ekarpen handia egin zuen. Horren guztiaren ondorioz, eremua osatzen duten herrialdeen hazkunde tasak Alemanian erregistratutako %2,9tik Irlandan lortutako %13,5era bitartekoak izan ziren, tartean Espainia (%5,1), Italia (%6,6) eta Frantzia (%7,0) zeudela.

Enpleguaren susperraldiak ere aipamen berezia merezi du. Eurostatek argitaratutako datuen arabera, euroguneak %7,0ko langabezia tasarekin amaitu zuen 2021. urtea abenduan, hau da,

hamarren bateko hobekuntza aurreko hilaren aldean, eta langabezia tasarik txikiena moneta batasunean erregistro historikoak daudenetik, hau da, 1998ko apiriletik. Beheranzko joera hori mantendu egin da 2022ko lehen hilabeteetan. Zehatzago esanda, 2022ko martxoan %6,8ra jaitsi zen. Nolanahi ere, bi zifrak pandemia aurreko langabeziaren azpitik daude, orduan %7,4koa baitzen. Datu honek krisiari emandako erantzun kolektiboaren arrakasta erakusten du, hainbat mekanismoren bidez, horien artean ABEEE bezalako figurak nabarmenduz.

Inflazioari dagokionez, 2021eko hasieran, iragarpen handien ardura duten ekonomialariek ia alde batera utzi zuten mehatxua zen. NDFk, adibidez, apirilean iragarri zuen moneta politikak egokitzalea izaten jarraituko zuela, eta ez zuela bat-batean gogortuko, mailaz maila baizik, ekonomiaren susperraldia sendotu ahala. Prezioen inguruko hegakortasuna iragankorra izango zela uste zuen, eta inflazioaren presioa herrialde gehienetan apala izaten mantenduko zela. Izan ere, 2021erako prezioen igoeraren aurreikuspenak %1,6koak ziren ekonomia aurreratuetan eta %4,9koak, berriz, garatzeko bidean dauden merkatuetan.

Ekonomiaren aldagai nagusiak
6. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
Mundua	-3,1	6,1	3,2	4,7	--	--
Ekonomia garatuak	-4,5	5,2	0,7	3,1	6,6	5,6
AEB	-3,4	5,7	1,2	4,7	8,1	5,4
Japonia	-4,5	1,6	-0,0	-0,3	2,8	2,8
Europar Batasuna	-5,9	5,4	0,7	2,9	--	--
Alemania	-4,6	2,9	0,4	3,2	3,8	3,5
Frantzia	-7,9	7,0	0,5	2,0	8,0	7,9
Erresuma Batua	-9,3	7,4	0,9	2,6	4,5	4,5
Italia	-9,0	6,6	-0,1	1,9	9,3	9,5
Espainia	-10,8	5,1	-0,3	3,1	15,5	14,8
Garapen bidean daudenak	-2,0	6,8	5,1	5,9	--	--
Asia	-0,8	7,2	3,1	2,2	--	--
Amerika Latinoa	-7,0	6,8	6,4	9,8	--	--
Ekialdeko Europa	-1,8	6,7	5,3	9,5	--	--

Iturria: NDF.

Hala ere, hilabete batzuk geroago inflazioaren tenperaturak gora egin zuen mundu osoan. Erakundeek interpretatu zuten prezioen gainera presioak pandemiarekin lotutako ezohiko bilakaeraren eta eskaintzaren eta eskariaren arteko aldi baterako desoreken isla zirela. Eraitza izan zen 2021ean munduko inflazioa %4,7an kokatu zela, azken hamar urteetako inflaziorik handienarekin, alegia. Zehazkiago azalduta, ekonomia aurreratuen KPIa %3,1 hazi zen eta garapen bidean dauden herrialdeena, berriz, %5,9, biak ere aurreikuspenak baino puntu bat gehiago gaituta. Hala eta guztiz ere, erakunde nagusiek oraindik uste zuten hazkunde tasa horiek puntualak izango zirela eta, behin asaldurak kontrolatuta, inflazioa maila historikoetara itzuliko zela 2022an.


Horren guztiaren ondorioz, munduko ekonomia %6,1 hazi zen 2021ean, eta 2022rako adostasuneko aurreikuspena zen hazkundeak 2021aren amaieran hasi zuen moteltzeko fase leunarekin jarraituko zuela, baina tasak covid-aren aurreko urteetan lortutakoak baino handiagoak izango zirela oraindik. Hain zuzen ere, urtearen lehen zatian, hazkundera batez bestekoa baino handiagoa izango zela aurreikusi zen, eta, ondoren, jarduera tasak normalizatu egingo zirela ekonomiak berriro ireki ahala, pandemian sortutako gehiegizko aurrekia gastatu ahala eta ezohiko pizgarri neurriak kendu ahala. 2021eko urrian NDFk aurreikusi zuen munduko ekonomia 2022an %4,9 haziko zela.

2022ko lehen hilabete eta erdia aurreikusitakoaren arabera igaro zen. Pandemiaren bilakaera positibo samarraren eta botila lepoak konpontzeko bidean zeudela iragartzen zuten zantzu batzuen arabera, jarduera suspertzen jarraitzen ari zela pentsarazten zuten. Baina inongo erakunde eta agintarik espero ez zuena Errusiak Ukraina 2022ko otsailean inbaditzea zen. Eta gatazka hori, txosten hau idazten amaitu dugunean, oraindik indarrean dago. Ukrainaren inbasioa hasi zenetik, nazioarteak Errusiaren aurkako zigor gogorrekin erantzun baitio, lehengaien prezioen gorakadak, batez ere energetikoenak, mundu mailako konfiantzaren narriadurak eta finantzaziorako baldintzen gogortze nabarmenak eragin handia izan dute ekonomia guztien hazkunde eta inflazio aurreikuspenetan, batez ere Europakoetan, haien hurbiltasun eta mendekotasun energetikoagatik. Egoera berri horren aurrean, NDFk, gainerako aurreikuspen erakunde nagusiek bezala, BPGaren hazkunderaren zenbatespena murriztu behar izan du. Zehatz-mehatz, munduko hazkundera 2021erako zenbatetsi den %6,1etik 2022rako eta 2023rako %3,6ra motelduko dela aurreikusten du erakunde horrek.

2022ko lehen hiruhilekoan BPGaren bilakaerari buruz munduko ekonomia nagusietarako argitaratu diren datu ekonomikoek ez dute, oraingoz, Ukrainako gerraren eragin negatiborik jaso. Hala eta guztiz ere, ezin da gauza bera esan prezioen bilakaerari buruz, inflazioaren presioak areagotu egin baitira maximo historikoetara iritsi arte. Euroaren eremuan, 2022ko apirilean, indize orokorraren

urte arteko aldakuntza tasa %7,5era igo zen, eremu horretako serie historiko osoan prezioek inoiz izan duten garestitzerik handiena baita. Are gehiago, gutxienez hiru herrialdek %10etik gorako KPI indizea jaso zuten. Atlantikoaren beste aldean, bilakaera antzekoa izan zen. AEBetan, martxoan bertako KPIa %8,5era igo ondoren, apirilean %8,3ra jaitsi zen, eta ondoren %8,6ra igo zen maiatzean, beste zifra historiko bat. Inflazio handiko egungo testuinguru horrek behartu ditu banku zentral asko beren moneta politiken tonua gogortzera.

Gerraren eragina adierazle nagusietan. Urte arteko aldakuntza tasak
7. irudia



Iturria: Eurostat eta ELGA.

Era berean, Europak Errusiari ezarri zizkion zigor garrantzitsuek nabarmen murriztuko dituzte bi eremuen arteko merkataritza trukeak, baina nazioarteko merkataritza osoaren dinamismoari ere eragingo diote, zeren eta hazkunde globala moteltzera eramango baitu. Izan ere, Merkataritzako Munduko Antolakundearen (MMA) aurreikuspenen arabera, salgaien merkataritzaren bolumena %3,0 haziko da 2022an, hots, aurrez aurreikusitakoa baino gutxiago (%4,7 aurtan eta %3,4, berriz, 2023an), eta hori guztia zeharo zalantzazko bilakaera izango duen agertoki baten aurrean kalkulaturik. Lehenago ere aipatu den bezala, oraingoz, krisiaren berehalako ondorio ekonomikoa oinarritzako produktuen prezioen igoera nabarmena izan da. Munduko merkataritzan eta ekoizpenean partaidetza txikia izan arren, Errusia eta Ukraina oinarritzako ondasunen funtsezko hornitzaileak dira, hala nola elikagaiak, energia eta ongarriak, gaur egun beren hornikuntza gerraren

mehatxupean dagoena. Egoeraren larritasunaren adibide gisa, aipatu behar da zerealak Itsaso Beltzeko portuetatik bidaltzea eten egin dela, eta horrek oso ondorio kaltegarriak izan ditzakeela herrialde pobreenetako elikagaien segurtasunerako.

Hala ere, gerra ez da munduko merkataritza baldintzatzen duen faktore bakarra. Txinan covid-19aren hedapena eragozteko ezarri diren konfinamenduek berriro ere itsas merkataritza kaltetzen ari dira, hornidura katearen presioak leuntzen ari zirela zirudien une batean. Hala eta guztiz ere, dolarretan eskuragarri dauden hileko esportazioei buruz argitaratu diren azken datuak, 2022ko lehen hiru hilabetei buruzkoak, sendoak dira, eta zenbait kasutan gorantz doaz. Horren arrazoia da igoera horren zati bat prezioen igoerak eragin duela, tonatan salmenta txikiagoak nabariak izaten hasi direlako.


1.3 Kriaren eragina Euskadin

Eustatek eta Eurostatek argitaratutako datu ofizialen arabera, EAeko biztanleko BPGa %5,7 handitu zen 2021ean urte arteko tasan; hau da, 33.260 euro biztanleko. Pandemiaren urtearen ondoren, zifra hori oraindik ez da iritsi 2019an lortutako BPGaren errekorra (35.000 euro baino gehiago biztanleko), eta ez du konpentsatu ere egin 2020an izandako %11,0ko jaitsiera izugarria.

Gorakada hori Europako erreferentziazko ekonomia agregatuetan (Europar Batasuna eta EB-15) lortu zenaren antzekoa izan zen, eta Alemania eta Austria bezalako ekonomia aurreratuena baino handiagoa. Nabarmenezkoa da Txekiar Errepublikak 2021ean jasandako moteltzea, EAeko ekonomiaren antzeko ezaugarriak dituen eta arreta berezia merezi duen industrian oinarritutako ekonomia baita. Bertako moteltzea pandemiaren aurretik ere gertatu izan da. Biztanleko BPG mailetan, erreferentziazko ekonomia europar guztiak 2019an lortutako datuen azpitik daude.


Euskadiko per capita BPG, adierazle propiorik ezean, Espainiako erosteko ahalmenaren parekotasunarekin (EAP) neurtzen bada, haren hazkundea Europar Batasuneko baino %12,8 handiagoa izan da, baina EB15eko EAPekin neurtuko balitz, ordea, antzekoa izango zen. Alemaniarekin alderatuta, %6 gutxiago, baina %30 gehiago da Espainia baino (%16,4 gehiago E15eko EAPekin neurtuz gero). AEBek bakarrik gainditu dute 2021ean (44.000 eurotik gora) 2019ko maximoa.

BPG biztanleko. 2019-2021. Urte arteko aldakuntza tasak
8. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta.

BPG biztanleko. EAP
9. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta.

Azken hamarkadako bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da EAE EB15arekin 2013tik egiten ari zen bateratzeko prozesu geldoa galgatu egin zela pandemiaren ondorioz, eta 2021ean ez Euskadik ez beste herrialde askok ez dute aurrera egin EB15ekiko posizionamenduan, per capita errentari dagokionez.


Biztanleko BPGaren hazkundearen banaketa EAPean

BPG per capita ($PIB_{pc} = Y/N$) jarduera ekonomikoaren adierazlerik onartuena izanik, interesgarria da beti bere portaeraren azpian dauden determinatzaileak aztertzea, hau da, lan partaidetza (L/N), lanaldia (H/L) eta ordu bakoitzeko produktibitatea (Y/H).

BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (I)

10. irudia

Euskadi




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

2021ean, kalkuluen arabera, EAEko ekonomiaren biztanleko BPGaren hazkundera (%5,7) lanaldiaren hazkundera (%5,1) eta lan merkatuan langile gehiagok parte hartu izanak (%1,8) bultzatu zuten


batez ere, eta ordu bakoitzeko produktibitatearen ekarpenean izandako jaitsierak konpentsatu zituzten (-%1,1). Horiek horrela, EAEko ekonomiak irauli egin du pandemiaren kontrako konfinamenduko neurriek eragindako shock ekonomikoa, baina oraindik berreskuratu gabe dago orduko lan produktibitatearen maila.

BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (II)
11. irudia

Espainia



Europar Batasuna 15




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

Lanaldiaren funtsezko ekarpena biztanleko BPGaren igoeran, Espainiako (%3,8) eta Alemaniako (%1,9) datuetan ere hautematen da, eta EB-15ekoaren (%6,5) antzekoa izan da. 2020 eta 2021 urte anomaloak dira, eta, beraz, ez dute aukerarik ematen joerak aztertzeko, baina ikusten da erreferentziarako Europako herrialde guztietan etengabe jaisten ari dela ordukako lan produktibitatea, baita beherakada nabarmenekin ere.


BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (III)

12. irudia

Alemania



AEB



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta.

Txertoen etorrerak eta biztanleriaren gehienari inokulatzeak ahalbidetu zuten ekonomiek pandemiagatik galdutako BPGaren zati handi bat berreskuratzea. Euskadiren kasuan, 2020ko %9,9ko jaitsiera handiaren ondoren, 2021ean suspertzeko tasa %5,6 izan zen, balio garrantzitsua baita, baina pandemiaren aurreko mailara itzultzeko bidearen erdian geratu da. 2022aren hasiera ere ona izan da, urte arteko %5,7ko hazkundearekin. Hala eta guztiz ere, une horretan oraindik hiru puntu falta ziren EAeko ekonomia 2019ko laugarren hiruhileko mailara itzultzeko, pandemia hasi aurreko unera, alegia. Maila hori aurtengo bigarren hiruhilekoan lortzea espero zen, baina Ukrainako gerraren hasierak aurreikuspenak okertu zituen, ziurgabetasuna handitu zen eta 2022ko laugarren hiruhilekora arte atzeratu du une hori. Termino nominaletan, ordea, egungo BPGaren maila pandemiaren aurrekoaren gainetik dago.

Eskaintzaren ikuspegiak adierazten du sektore guztiek parte hartu zutela, neurri handiagoan edo txikiagoan, EAeko ekonomiaren susperraldian. Nabarmentzekoa da industriaren bultzada handia, pandemiak gehien zigortu zuen sektorea izan baitzen, baina zerbitzuek ere oso portaera dinamikoa erakutsi zuten. Bi sektore nagusien dinamismo horrek jarraipena izan du 2022aren hasieran. Bestalde, bai eraikuntzan, bai lehen sektorean, 2021ean ekonomiaren batez bestekoa baino askoz hazkunde txikiagoak izan ziren.

Lehen arloko adierazle nagusiak
7. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
BEG bolumeneko indizea	1,0	10,1	1,7	5,9	-15,0	1,8
BEG uneko prezioak	4,2	25,2	-4,9	4,5	-18,9	2,0
Deflatorea	3,2	13,7	-6,5	-1,4	-4,7	0,2
Enplegua	0,7	0,1	2,1	-2,8	-2,8	1,1
Produktibitatea	0,2	10,0	-0,4	9,0	-12,5	0,7

Iturria: Eustat.

Zehatzago esanda, lehen sektoreak balio erantsia %1,8 handitu zuen 2021ean, aurreko urtean pairatutako %15eko jaitsiera handiaren ondoren. Halaber, 2022ko lehen hiruhilekoan, urte arteko datua -%1,8koa izan zen. Beraz, pandemiaren aurreko balioak berreskuratzetik oso urrun dago. Zehazki, 2019ko laugarren hiruhilekoko eta gaur egungo produkzio mailaren arteko aldea

hemezortzi puntu ingurukoa da. Balio nominaletan, sektorearen oraingo produkzioa pandemiaren aurrekoa baino %8,6 txikiagoa da, baina -%22ra iristen da azken urteetako ekoizpen gailurrik handienarekin alderatzen denean. Enpleguari dagokionez, bi urtez jarraian behera egin ondoren, 2021ean %1,1 apala hazi zen, hau da, lanaldi osoko 100 lanpostu pasatxo. Horrek produktibitate irabazia %0,7an bakarrik uzten du.

Industria izan zen pandemiak gehien kaltetu zuen sektorea, eta haren balio erantsia %11,2 murriztu zen 2020an, baina 2021eko errebotea ere gainontzeko sektoreetan baino handiagoa izan zen. Horiek horrela, industriaren balio erantsia %8,5 gehitu zen urteko batez bestekoan, eta, ondoren, beste gorakada bat izan da, %3,5ekoa, 2022ko lehen hiruhilekoan. Beraz, gaur egun, sektorearen produkzio maila, termino errealetan, 2019ko laugarren hiruhilekoko baino zertxobait handiagoa da. Zentzu horretan, industria erabat suspertu da pandemiaren eraginetik, nahiz eta hiru puntura dagoen bere emaitza onenetatik, 2007an eta 2008an lortutakoetatik, Atzeraldi Handia gertatu baino lehen.

Termino nominaletan egindako analisiak adierazten du 2022ko lehen hiruhilekoan industriak inoizko zifrarik handiena izan zuela, 4.859 milioi euroko balio erantsiarekin, 2008ko zenbakiak ere gaindituz. Prezioak hainbat urtetan oso apal hazi ziren eta gora egin zuten 2021ean, bereziki urtearen bigarren erdian, nazioarteko merkatuetan energia eta lehengaiak garestitu ahala. Urteko batez bestekoan, industriaren deflatoea %3,9 izan zen 2021ean, baina 2022aren hasieran %11,4ra iritsi da

EAEko industriaren BEGaren bilakaera

8. taula


Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
BEG bolumeneko indizea	4,2	2,5	2,0	1,4	-11,2	8,5
BEG uneko prezioetan	4,0	2,8	3,9	2,4	-12,6	12,7
Deflatoea	-0,2	0,2	1,8	0,9	-1,6	3,9
Enplegua	1,9	2,9	1,7	0,8	-8,1	3,7
Produktibitatea	2,3	-0,3	0,3	0,6	-3,3	4,6
Industria produkzioaren indizea	2,9	5,9	2,2	1,6	-13,4	10,5
Industria jarduera indizea	-4,8	-3,7	-6,9	-7,1	-19,5	-10,2


Iturria: Eustat eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa.

EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.
Urte arteko aldakuntza tasak
13. irudia


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Industriak 2021ean eta 2022ko hasieran izan duen emaitza ona Eustatek IPIaren bidez kalkulatu duen industria produkzioan hauteman daiteke. Adierazle horren arabera, ekoizpenaren hazkundera %10,5 izan zen urteko batez bestekoa, eta tasa hori aurreko urteko beherakadatik osorik berreskuratzeko nahikoa ez bada ere, aurtengo lehen lauhilekoak 2008tik erregistratutako balioak gainditzea ahalbidetu du urte honen hasiera onak. Produktu multzoen arabera, energiaren ekoizpenak izan zuen portaera motelena, urteko batez bestean %0,3 baino ez baitzen igo. Gainera,

aurreko mailak berreskuratzetik oso urrun dago, nahiz eta azken hilabeteetan hazkunde erritmo biziak ezagutu dituen. Aitzitik, kontsumoko ondasunen ekoizpenean eragin txikiagoa izan zuen pandemiak 2020an, eta gainerakoen gaineratik hazi zen 2021ean; beraz, 2021eko maila aurreko urteetako baino handiagoa zen. Une on horrek jarraipena izan du 2022ko lehen hilabeteetan, tasa azpimarragarriak lortu baititu.

Ekipamendurako ondasunek joan-etorriko bidaia egin dute azken bi urte hauetan, eta beherakada handi baten ondoren, galdutako balio ia osoa berreskuratu zuten; beraz, 2021ean haien ekoizpen maila bi urte lehenagokoaren puntu bakar batean baino ez zen bereizten. Halaber, 2022ko lehen lauhilekoan izan duten gorakada handiaren ondorioz, produktu multzo hori pandemia hasi aurreko balioen gaineratik dago jada. Bitarteko ondasunen kasuan, susperraldia partziala baino ez da izan, eta aurtengo erritmo apalak ez du 2019ko zifretara iristea ahalbidetu. Horretarako, beste bost puntu egin beharko du gora.

Enpleguari dagokionez, industriaren saldoa oraindik oso negatiboa da. Hain zuzen ere, 2020an 17.000 lanpostu inguru galdu zituen urteko batez bestekoan, eta 2021ean 7.000 pasatxo berreskuratu zituen. Aldi bakoitzari dagozkion tasak $-8,1$ eta $3,7$ izan ziren. Aurtengo hasierak ($2,6$) beste milaka batzuk gehitzen ditu, baina ez dira nahikoak izango 2019an behar izan ziren lanaldi osoko 208.000 enplegu haietara itzultzeko.

Industriaren ekoizpenaren garai gozo honek sektorearen barruan baikortasun nabarmena ekarri du berarekin. Urteko batez bestekoan, 2021eko ikuspegia 2020koa baino nabarmen hobea izan zen, baina 2018ko eta 2019ko balioetara iritsi gabe. Izan ere, urtearen bigarren erdian ezkortasuna pixka bat handitu zen, botila lepoek eta lehengaien kostuen igoerak sortutako ziurgabetasunagatik. Hala ere, jada 2022. urtea hasita, eta aipatutako arazoak oraindik konpondu gabe, perspektiba benetan baikorra da, eta 2007ra arte itzuli beharko litzateke industria giroaren indizearen balioak egungoak bezain altuak aurkitzeko. Alde batetik, eskaera zorroa oso tamaina handikoa da, mundu osoan dagoen ondasunen eskari handiaren ondorioz. Beste aldetik, etorkizunari buruzko ikuspegia ere positiboa da, produkzioaren joerari buruzko iritziak azken bost urteetako baliorik gorenetan kokatuta daudela.

Eraikuntzak bi sektore nagusiek baino hazkunde tasa txikiagoa eskuratu zuen eta bere balio erantsia 2021ean $2,4$ baino ez zen hazi, hots, EAEko ekonomiaren batez bestekoaren erdia baino gutxiago. Beraz, bost puntu baino gehiago falta dira 2019ko jarduera mailara itzultzeko. Bigarren hiruhilekoko gorakada batez bestekoa baino txikiagoa izan zen, eta urtearen bigarren erdian eraikuntzak ahulezia

nabarmena erakutsi zuen. Lehengaien garestitzea eta langile falta dira galga hori azaltzeko erabili diren arrazoietakoz batzuk. 2022aren hasieran, sektorea %1,9raino suspertu da, gainerakoen oso azpitik. Prezioen igoera azken tasa hori (balio errealetan kalkulaturik) balio nominaletan dagokion tasarekin (%6,4) alderatzen denean hautematen da, lehen hiruhilekoko deflatorea %4,4an kokatuz, azken urteetako balioen oso gaineratik.

Sektorearen ahultasun hori gorabehera, enplegua indar handiz suspertu zen eta urteko batez bestekoan, 2021ean, aurreko urteetako guztizkoak gaineratu zituen. Pandemiarekin, sektoreak lanaldi osoko 2.400 lanpostu inguru galdu zituen eta ia 3.000 baino pixka bat gehiago sortu zituen. 2021eko 61.300 enpleguak azken bederatzi urteetako kopururik handiena dira, baina oso urrun dago 2007an, higiezin burbuila lehertu aurretik, kalkulatu ziren 100.000 lanpostuetatik

Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak
9. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
BEG bolumeneko indizea	0,2	1,6	4,0	2,4	-8,2	2,4
BEG uneko prezioak	0,6	2,4	5,9	3,7	-7,6	3,9
Deflatorea	0,4	0,8	1,9	1,3	0,6	1,5
Enplegua	0,3	-0,1	3,7	4,1	-3,9	5,3
Produktibitatea	-0,1	1,7	0,2	-1,7	-4,4	-2,7
Higiezin transakzioak	12,2	11,6	10,8	2,1	-12,5	22,2
Prezioa €/m ²	2,6	5,2	5,4	4,3	2,3	2,1
Hasitako etxebizitzak	76,4	-29,0	58,1	-2,8	-29,4	4,1
Amaitutako etxebizitzak	-37,6	42,2	11,2	-4,3	-0,6	12,4
Bisatuak. Etxebizitzen kopurua	-13,4	26,7	20,3	-7,1	-6,5	39,6
Eraikuntzaren koiuntura indizea	1,3	5,4	12,3	8,7	-8,1	7,8

Iturria: Eustat, INE eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa.

Oro har, zerbitzuek EAEko ekonomiaren batez bestekoak baino portaera hedakorragoa izan zuten. Balio erantsia, termino errealetan, %5,0 handitu zen 2021ean, aurreko urtean %9,0 jaitsi eta gero. Beraz, ez da pandemiaren zailtasunetatik errekuaratzeko gai izan, eta bost puntu falta zaizkio

2019ko mailara itzultzeko. Termino nominaletan, berriz, zerbitzuek beren balio erantsia 1.600 milioi eurotan handitu behar du. Gogoratu behar da mugikortasunaren murrizketek zerbitzuetako adar batzuen jarduera baldintzatu zutela, bereziki turismoari eta ostalaritzari lotutakoak. Aurtengo hasieran, zerbitzuek hazkunde nabarmena izan dute, eta, beraz, normalizaziorako ibilbidearen zati bat egina dago

Zerbitzuetako jardueren talde bakoitzaren bilakaera desberdina izan zen 2021. urtean. Hain zuzen ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeari kalte handia egin zion pandemiak, eta 2020an bere balio erantsiaren %18,1 galdu zuen. Murrizketak kendu ahala, dinamismoa itzuli egin zen, eta %8,9ko hazkundea lortu zuen, gainerako jardueren oso gainetik. Aitzitik, sektore publikoarekin lotura handiena duten jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak) ez zuten birusaren hedapenagatik hain kalte handirik jasan, eta balio erantsia igo egin zen 2020an; beraz, ez dute errebote efekturik izan, eta 2021ean haien hazkundea (%2,5) sektorearena (%5,0) baino askoz txikiagoa izan da. Azkenik, gainerako zerbitzuak tarteko posizioan kokatu ziren, eragin negatibo handiarekin 2020an (-%8,6) eta sektore osoak lortutako susperraldia baino txikiagoarekin.

Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak
10. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
BEG bolumenen indizea	2,8	2,9	3,1	2,5	-9,0	5,0
BEG uneko prezioak	3,6	3,8	4,2	3,7	-8,5	5,8
Deflatorea	0,7	0,8	1,0	1,2	0,6	0,8
Enplegua	2,5	2,1	2,3	1,6	-8,0	6,1
Produktibitatea	0,3	0,8	0,8	0,9	-1,1	-1,1
Bidaiarien gualdiak	8,9	2,6	7,2	3,7	-61,5	73,4
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,94	1,92	1,97	1,97	1,95	1,92
Plazen betetze maila (ehunekoa)	53,0	54,2	56,8	57,4	32,8	41,1
Zerbitzuen koiuntura indizea	3,7	3,0	1,1	0,6	-16,8	9,5

Iturria: Eustat.

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, merkataritzak 2021ean bilakaera ona izan zuela baieztatzea ahalbidetzen du, baina ez zen nahikoa izan 2019ko maila osorik berreskuratzeko. Mugikortasunari ezarritako murrizketek eragotzi egin zuten fisikoki ere erosketa jakin batzuk egitea, nahiz eta Internet bidezko erosketetan gorakada nabarmena egon zen. Merkataritza motaren arabera, zerbitzuen koiunturaren indizearen arabera, automobilen salmentak behera egin zuen hirugarren urtez jarraian, eta aldaketa estrukturala izateko itxura du. Bestalde, handizkako merkataritzak bultzada handia izan zuen urte horretan (%9,2), eta txikizkakoak, berriz, hazkunde apala izan zuen (%3,6). Talde horren barruan, elikadurak eta automobilgintzarako erregaiak portaera kontrajarriak izan zituzten. Elikadurak aparteko bultzada izan zuen pandemian, baina 2021ean behera egin zuen (-%3,2); erregaien salmentak, ordea, behera egin zuen 2020an (-%16,1), baina mugikortasuna itzuli ahala berreskuratu egin da (%8,2).

Merkataritzaz gain, garraioak bizitasun handia erakutsi zuen 2021ean (% 17,0) eta baita 2022ko hasieran ere (%17,4). Horri esker, pandemiaren aurretik erregistratutako jarduera mailaren oso gainetik dauden mailak lortu ditu. Era berean, ostalaritzak aldakuntza tasa handiak eskuratu zituen bai 2021ean (%16,2) bai aurtengo lehen hiruhilekoan (%37,8), nahiz eta galdutako guztia berreskuratzetik urrun egon oraindik. Urtea ondo hasi duten zerbitzuetako beste jarduera batzuk informazioa eta komunikazioak (%5,0) eta administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (%10,0) dira.

Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka
11. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Zerbitzuak guztira	2,8	2,9	3,1	2,5	-9,0	5,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,6	4,1	4,3	2,2	-18,1	8,9
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	2,4	2,2	1,8	3,2	1,6	2,5
Gainontzeko zerbitzuak	2,5	2,6	3,0	2,4	-8,6	4,1

Iturria: Eustat.


Pandemia garaian mugak ixteak ahalik eta gehien murriztu zuen hotelen okupazioa eta hegazkinez egindako bidaiak. Murrizketak kendu ahala, ordea, jarduera turismoaren sektorera itzuli zen, eta normaltasunera bueltatzeko irudia ematea lortu zen. Horiek horrela, 2021ean hotel

establezimenduetan egindako gaudien kopurua aurreko urtekoa baino %73,4 handiagoa izan zen, nahiz eta urteko 4,2 milioi gaudi horiek 2019ko 6,3 milioietatik urrun egon. Era berean, EAEko aireportuetako jarduera gutxika-gutxika itzuli da, eta 3 milioi pertsona baino zertxobait gutxiago abiatu ziren horietatik, pandemia aurretik bidaiatu zutenen erdia baino gutxiago. Bi kasuetan, 2022ko lehen hilabeteetan hiru digituko aldakuntza tasak erregistratzen jarraitu da, eta gero eta hurbilago dago aurreko balioetara itzultzetik.


Pandemiaren garaietako jarduerarik eza honela kuantifikatu zen: zerbitzuetan ia 56.000 lanpostu galdu ziren 2019arekin alderatuta, eta 2021eko susperraldiak 40.000 lanpostu inguru sortzea lortu zuen. Beraz, saldoa oraindik negatiboa da. Hala eta guztiz ere, 2022ko lehen hiru hilabeteetan lortutako hazkunde handiaren ondorioz (urte arteko tasa %5,9 izan da), zerbitzuetan lanaldi osoko lanpostuen gutzizkoa 2019ko laugarren hiru hilabeteetan izan zuen ia maila berean dago, serie historiko osoko punturik altuena izan baitzen hura.

Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak
14. irudia

Barneko azken kontsumoa



Kapital eraketa gordina



Iturria: Eustat.

Eskariaren ikuspegitik, 2021ean BPGaren hazkunderaren zati handiena barne eskariaren eskutik etorri zen, %5,1 hazi baitzen. Beste aldetik, kanpo saldoak hamarren gutxi batzuetako ekarpen

positiboa utzi zuen, eta horrek eten egin zuen aurreko sei urteetako joera, hazkundeari zerbait kendu edo ezer ez baitzion ekarri. Joera aldaketa hori areagotu egin da 2022aren hasieran; izan ere, barne eskariaren moteltzea eta kanporako salmenten indartzea nabari dira, eta horrek ezohiko ekarpen positiboak ekarri dizkio BPGari. Izan ere, 2022ko lehen hiruhilekoan, kanpo saldoaren ekarpena 2,7 puntu ingurukoa izan zen, eta zifra horrek ia berdindu egiten du barne eskariak egindakoa.

Familien kontsumoak portaera hedakorra erakutsi zuen 2021. urtean, aurreko urtean izandako beherakada handiaren ondoren, onartutako murrizketen eta pandemiak sortutako ziurgabetasun handiaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, iazko kontsumo pribatuaren hazkundera (%5,3) ekonomia osoarena (%5,6) baino pixka bat txikiagoa izan zen, batez ere urtearen bigarren erdian. Ekonomiaren batez besteko hazkunderarekiko hautematen den diferentzial hori areagotu egin da 2022aren hasieran, eta 2,6 puntura iritsi da. Nahiz eta pandemiak iraun zuen bitartean familien aurrezkiak oso nabarmen gora egin zuen eta ase nahi duen eskari atzeratu bat dagoen, prezioen bat-bateko garestitzeak eta Ukrainako gerrak eragin duen ziurgabetasunak familien gastu erabakiak geldiarazi dituzte.

Kontsumo pribatuaren etorkizuneko bilakaera zalantzazkoa da. Alde batetik, gastatzeko ahalmena badago, enpleguaren igoera eta soldaten hobekuntzak direla eta. Bestetik, inflazioak erosteko ahalmena kentzen du eta mesfidantza eta ezkortasuna sortzen ditu. Hori da, antza denez, gaur egun gertatzen ari dena, Laboral Kutxak egiten duen kontsumitzailearen konfiantza indizean emandako erantzunen arabera. 2021ean, indize horrek susperraldi azkarra izan zuen, pandemiaren unerik zailenetan erregistratutako balio negatiboetatik abiatuta. Bilakaera positibo hori areagotu egin zen 2022ko lehen hiruhilekoan, eta une horretan lortu zen balio gorena hainbat urtetan. Hala ere, erantzun berrienek ezkortasunera itzuli direla adierazten dute, arestian aipatutako arrazoiengatik. Hori ez da EAEko biztanleen artean bakarrik gertatu, Estatuko eta Europako adierazleek ere nabarmen egin baitute okerrera azken hilabeteetan.

Sektore publikoak berebiziko garrantzia izan du pandemiaren une gogorrenetan, eta kontsumoan egindako gastua %3aren inguru hazi da azken hiru urteetan, modu iraunkor batean. Hala eta guztiz ere, hiruhilekoko bilakaerak adierazten duenez, pandemia gaitzen ari zen neurrian eta ekonomia eta enplegua suspertzen ziren heinean, haien zeregina mugatzen joan zen, eta kontsumo publikoaren urte arteko aldakuntza tasak moteldu egin ziren. Neurritasun hori %0,6ra iritsi da 2022ko lehen hiruhilekoan.

Errenten adierazleen bilakaera
12. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Soldatapekoen ordainketa	3,0	3,2	3,4	3,7	-6,3	---
Urtean adostutako soldata igoera	1,0	1,5	1,9	2,0	1,7	1,2
Enplegua	2,2	2,1	2,3	1,5	-7,7	5,5
Pentsioen kopurua (*)	1,2	1,3	1,4	1,3	0,4	0,8
Batez besteko pentsioa (*)	2,0	2,0	2,7	4,9	2,0	2,2
PFEZren diru bilketa	4,1	6,0	5,4	5,7	-1,1	8,2
Banku arteko int. tasa (urte 1erako euriborra)(**)	0,0	-0,1	-0,2	-0,2	-0,3	-0,5
KPI	0,0	2,0	1,6	1,0	-0,1	3,1

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak. (**) Hilabeteko batez bestekoekin osatutako urteko batez bestekoak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Inklusioa, Gizarte Segurantzza eta Migrazioak Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera
13. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Kontsumo pribatua (bolumen indizea)	3,3	3,1	3,0	1,7	-12,4	5,3
Kontsumo publikoa (bolumen indizea)	1,8	2,1	1,2	3,1	3,8	3,0
IPI kontsumo ondasunak. EAE	1,1	4,6	5,4	3,1	-6,5	11,8
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	1,4	0,7	-0,1	1,5	-7,1	7,7
Automobilen matrikulazioa	4,7	8,0	4,6	-2,3	-22,0	-19,7
Txikizkako merkataritzaren indizea	3,3	1,7	0,7	0,9	-4,9	3,6

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Barne eskariaren beste osagai nagusiak, hau da, kapital eraketa gordinak, oso bilakaera hedakorra erakutsi zuen 2021ean zehar, urtean %6,3ko batez besteko tasa lortuta, ekonomiaren batez bestekoa baino handiagoa dena. Bereziki nabarmentzekoa da ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioa, %12,8 hazi baitzen urte osoan, eta 2022ko lehen hiruhilekoan %6,6ko erritmoari eusten baitzion oraindik, gerrak, kostuen igoerak eta moneta politikaren norabide

aldaketak sortutako ziurgabetasuna gorabehera. Aitzitik, gainerako inbertsioak, eraikuntzan egindakoa barnean hartzen baitu, profil apalagoa erakutsi zuen, %2,6ko igoera batekin, eta azken horrek ez du suspertzeko zantzurik eman aurtengo lehen hiruhilekoan ere (%2,2). Lehengaien prezioen igoera handiak sektorearen jarduera geldiarazi zuen, lizitazio berriek kostuen igoera hori baldintzetan jasoko ote dituzten zain. Beste aldetik, etxebizitzaren merkatua dinamizatu egin da, baina salmentak batez ere erabilitako etxebizitzaren izan dira, etxebizitza berrien eraikuntza nahiko txikia baita.

Ekipamendurako inbertsioarekin zerikusia duten adierazle berriek iradokitzen dute agregatu horrek joera hedakorra izan duela 2022ko lehen hilabeteetan. Zehazkiago azalduta, ekipamenduko ondasunen inportazioak %19,2 areagotu dira aurtengo lehen lau hilabeteetan, eta adierazle horretan ez da inolako ahuleziarik hautematen hilabeteak aurrera igaro ahala. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen ekoizpena, zati batean esportatu egiten dena eta beste zati batean tokiko merkatura bideratzen dena, %14,1 handitu zen lehen lauhilekoan, IPI globalaren aldakuntza tasa baino askoz ere gehiago. Eraikuntzako inbertsioaren adierazle aurreratuei dagokienez, bai lizitazio ofizialak bai etxebizitza berriak eraikitze baimenek balio positiboak jaso dituzte aurtengo hasierako hilekoetan.

Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera
14. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Kapital eraketa gordina (bol. ind.kateatua)	5,5	3,1	4,9	3,3	-11,7	6,3
- Ekipamendurako ondasunak	8,6	3,5	4,5	3,0	-12,9	12,8
- Gainontzeko inbertsioa	3,8	2,9	5,1	3,4	-11,0	2,6
IPI ekipamendurako ondasunak:	8,5	3,2	4,2	2,0	-12,5	13,3
- IPI garraio materiala	19,6	5,4	4,7	1,0	-15,1	10,5
- IPI makineria eta ekipamendua	1,8	-0,4	4,5	1,3	-7,0	14,8
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	13,8	4,8	4,1	5,3	-13,0	17,9
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	3,6	7,8	18,0	-16,7	-22,5	7,0

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Jarduera ekonomikoaren susperraldiaren ondorioz, salgaien merkataritzak, bai eskualdeen artekoak, bai erkidegoaren barnekoak bai nazioartekoak, 2020an jasandako hondamendiaren ondoren bere hazkunde tasarik handienetako bat izan zuen 2021ean. Horrela, C-intereg datu basearen arabera, Euskadiko ondasunen (zerbitzurik gabekoen) merkataritza fluxuak Estatuko gainerakoekin (erkidegoen arteko merkataritza) eta baita EAEko hiru lurraldeen arteko merkataritza aztertzeko aukera ematen baitu, Estatuko gainerako lurraldeetara esportatutakoa %13,9 hazi zen eta gainontzeko erkidegoetan eginiko erosketak, berriz, %20,9. Tasa horrek beste maximo bat ezarri zuen eta pandemiaren aurrean zeuden erkidegoen arteko inportazioen mailak berreskuratu zituen. Esportazioak, ordea, ez ziren iritsi covid-aren aurretik saldutako kopuruetara, eta, gainera, erosketak baino txikiagoak izan ziren; beraz, merkataritza saldoa defizitariora izan zen 4.000 milioi eurotik gorakoa, aurrekaririk gabeko maila baita. Eskualde barruko merkataritzari dagokionez, hazkunde tasa %12,9koa izan zen. Hala eta guztiz ere, 1.000 milioi pasatxo falta dira 2019an izandako truke-mailari berriro heltzeko.

Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn

15. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2016	2017	2018 (B)	2019 (A)	2020 (*)	2021 (*)	Milioi € 2021 (*)
Erkidegoen arteko merkataritza							
Esportazioak	-1,5	5,4	4,1	1,1	-9,7	13,9	15.309
Inportazioak	0,2	5,6	6,8	7,0	-7,3	20,9	19.370
Saldoa guztira (milioi €)	-900	-977	-1.420	-2.390	-2.581	-4.061	-4.061
Erkidegoen barneko merkataritza							
Totala	-3,4	7,6	8,3	-0,3	-13,4	12,9	11.538


(B) Behin-behineko datuak. (A) Aurrerapena (*) Aurreikuspena.

Iturria: C-intereg proiektua.

EAEko merkataritzak atzerriarekin duen harremanaren analisisian, kuota esportatzaileak, EAEko atzerrirako salmentek munduko salmenta guztiekin alderatuta duten partaidetza neurtzen duenak, ez zuen ia hobekuntzarik izan 2020arekin alderatuta. Geldialdi hori munduko esportazioak EAEko salmenten antzeko erritmoan hazi zirelako gertatu zen; beraz, konparazioan, erregistratutako hobekuntza gorabehera, 2020ko kuotaren antzekoa izan da, pandemia betean. Inportazioari dagokionez, EAEko erosketak mundukoak baino modu biziagoan hazi ziren, eta, horri esker, 2020an

galdutako merkatu kuota zati bat berreskuratu zen. Nolanahi ere, termino errealetan izandako aldaketak oso txikiak izan ziren, eta 2007an lortutako maximoetatik urrun daude oraindik.

EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko
15. irudia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) eta Eustaten datuetan oinarrituta. .

Zehatzago adierazita, Eustatek argitaratutako datuen arabera, 2021ean atzerrira bidalitako ondasunen guztizko esportazioak 25.665 milioi euro baino gehiago izan ziren, hau da, bigarren erregistrorik onena, 2018an lortutako maximoaren ondoren. Urte arteko alderaketan, aldakuntza tasa modu apartan hazi zen (%23,0). Ez pandemiak, ez automobilaren sektorea gogor kolpatu zuten hornidurarik ezaren arazoek, ez energiaren eta zenbait lehengaien garestitzeak ez zuten esportazio erritmoa murriztu, hiruhileko guztietan %20tik gora hazi baitzen. Izan ere, prezioen igoerek (%6,8) nabarmen bultzatu zituzten zifrak, tonatan egindako salmenta %9,8 hazi baitzen, erregistro garrantzitsu bat, baina eurotan lortutakotik urrun.

Inportazioei dagokienez, 2020an murrizketaz eta ziurgabetasunez betetako urtea izan ondoren, kontsumoaren kalterako aurrezteak sustatu zuena, 2021ean covid-aren aurreko kontsumo erduetara itzuli zela ikusi zen, eta geroraturako eskariaren zati bati irteera eman zitzaion. Horrek

barne eskariaren gorakada handia ekarri zuen, batez ere kontsumo pribatuarena, eta erosketak bultzatu zituen, 21.050 milioi eurotik gorakoak, aurrekaririk gabeko maila. Urte arteko alderaketan, inportazioak %34,1 hazi ziren, 1988tik izan duten tasarik indartsuena. Beste behin ere, prezioek ere lagundu zuten emaitza dinamiko horretan. Inportazioen prezioak %16,4 igo ziren, eta tonetan, berriz, hazkundea %6,8 izan zen.

Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (I)
16. irudia




Iturria: Eustat. 2021eko datuak behin-behinekoak dira.

Prezioen igoera hori are nabarmenagoa izan zen erregai mineraletan. Horrela, tonatan esportazio energetikoak %11,0 murriztu ziren bitartean, prezioen bilakaerak %20,9ko batez besteko hazkundera izan zuen (%29,5era igo zen 2021eko laugarren hiruhilekoan) eta eurotan %43,5era igo zen. Emaitza on hori gorabehera, Euskadiren energia mendekotasunak kezkarria izaten jarraitu zuen; izan ere, ia 1.400 milioi euro esportatu ziren erregai mineraletan, baina atzerrian egindako erosketak hirukoiztu egin zuen zenbateko hori (ia 4.600 milioi euro inportatu ziren 2021ean). Horregatik guztiagatik, 3.202 milioi eurotik gorako defizit komertziala sortu zen, 2020an erregistratutakoa baino 1.355 milioi handiagoa.

Energiaz bestelako esportazioak ez ziren salbuetsita geratu, eta prezioen hazkundera ere eragina izan zuen beraietan, nahiz eta talde horretan eragina apalagoa izan. Hain zuzen ere, prezioak %6,3 igo ziren; hazkundera eurotan, berriz, %22,0 izan zen, eta tonatan, %20,3. Tasa horien ondorioz, esportazio ez-energetikoak orain arteko mailarik handienara iritsi ziren, 24.300 milioi eurotik gora saldu baitziren urte osoan.

Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)
17. irudia



Iturria: Eustat. 2021eko datuak behin-behinekoak dira.

Erdieroale eta txipen eskasia (urtearen bigarren erdian garraio materialaren salmenta beherantz baldintzatu zuten) eta botila lepoak gorabehera, epigrafe guztiek hazkunde tasa handiak izan zituzten: bi muturretan, %11,6 makina eta aparatuen taldean eta %48,2 produktu kimikoen salmentan. Metal arruntek eta beren manufakturek, bestalde, %34,1eko hazkundera lortu zuten, zenbait lehengairen prezioen etengabeko igoerak lagunduta. Besteak beste, nikelaren prezioa %28,3 hazi zen 2021ean, eta aluminioarena, berriz, %74,9. Hala eta guztiz ere, prezioek gora egin arren, makinaren eta aparatuen multzoek, garraio materialek eta energiaren sektoreak ere ez zuten pandemia aurreko esportazio zifrak berreskuratzea lortu.

Eremu geografikoen arabera, emaitza onak herrialde garatuetara (ELGA) eta gorabidean daudenetara (ELGAtik kanpokoak) hedatu ziren. Lehenengo kasuan, aldakuntza tasa %23,9 hazi zen, saldutako guztizkoaren %84,4 bereganatuz; bigarrenean, berriz, hazkundera %18,2 izan zen eta esportazioen %15,6 bildu zituen. Bi kasuetan mantendu egin dira 2020an erregistratutako banaketa ehunekoak, eta, beraz, oraingoz badirudi egonkortu egin dela 2010ean hasi zen garapen bidean dauden herrialdeen merkatu kuotaren galera herrialde garatuen alde.

EA Eren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga
16. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2016	2017	2018	2019	2020	2021(*)	2021 (*)
Esportazioak	-1,2	11,5	7,0	-1,2	-17,1	23,0	25.665,4
ELGE	1,7	11,9	8,0	-1,2	-15,3	23,9	21.670,4
Europar Batasuna 27	2,7	10,3	7,2	-1,2	-20,4	24,3	16.319,7
Alemania	4,7	13,0	1,2	0,9	-5,5	13,4	4.092,3
Frantzia	-0,4	4,0	5,0	0,3	-15,1	27,4	4.120,2
Erresuma Batua	-7,7	16,1	14,5	35,9	-42,6	26,2	1.694,8
Italia	-9,2	6,0	12,8	-5,9	-6,6	26,5	1.350,7
AEB	-10,5	18,4	16,5	-15,5	-23,6	16,8	1.591,8
Japonian	191,9	-29,9	-13,0	11,9	5,0	24,0	156,1
Errusia	13,4	23,3	6,4	14,9	-0,3	-12,5	251,6
Txina	18,9	2,3	-12,7	5,6	-11,8	52,4	665,4

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat.

Zehatzago adierazita, Europar Batasunak jarraitu zuen EAEko produktuen helmuga nagusia izaten eta esportatutako guztiaren %63,6 bereganatu zuen, 2007tik ez baitzen maila horretara iritsi. Esportatutako produktuei dagokienez, garraio materiala izan zen talde nagusia, batez ere ibilgailu automobilak (eremura esportatutako guztizkoaren %25,3 biltzen dute), nahiz eta botila lepo handiak izan eta osagai eskasia pairatu une jakin batzuetan (hirugarren hiruhilekoan salmentak %5,8 murriztu ziren) 2021eko balantzean %13,6 handitu ziren. Izan ere, kontinente zaharrera esportatu ziren ibilgailu automobilen balioak 4.122 milioi eurotik gorakoa izan zen, serie historiko osoaren bigarren erregistrorik handiena baita. Gainerako epigrafeek urte arteko aldakuntza tasa positiboak lortzeaz gain, hauek askoz dinamikoagoak izan ziren. Hala, metal arrunten eta horien manufakturrek %34,8 egin zuten gora, batez ere siderurgiari lotutako produktuek bultzatuta, eta produktu mineralen salmentak, berriz, %42,4ko gehikuntza tasa eskuratu zuen.


Egitura hori, funtsean, Europako bazkide nagusien artean ere errepikatu zen, ñabardura txiki batzuekin. Frantziara, EAEko produktuen helmuga nagusia baita, bidalitako esportazioak %27,4 gehitu ziren, metal arrunten (%63,2) eta ekipamendurako ondasunen salmenta garrantzitsuari eske, eta urtean zehar joera uniforme mantendu ez zuten arren, aurrerapen handiak lortu zituzten. Zehazkiago, garraio materiala %12,9 hazi zen, bigarren seihilekoan emaitzak txarrak izan ziren arren; makinek eta aparatuek, berriz, lehen seihilekoaren bilakaera ikusgarriari esker, urte amaierako uzkurdura konpentsatu zuten, eta 2021a %24,8ko batez besteko igoerarekin itxi zuten. Alderantziko bilakaera izan zuen energiaren salmentak, bigarren urtez jarraian berriro gutxitu baitzen. Produktu energetikoen ia 215 milioi euroko salmenta oso urrun dago 2012-2019 urteen artean batez beste saldu ziren 500 milioi euroetatik.

Alemaniko merkatuan, esportatutako produktu nagusiak garraio materiala izaten jarraitu zuen, zehazki automobilen salmenta, 2021ean 2.000 milioi eurora hurbildu zena, aurrekaririk gabeko zifra, eta Alemaniara esportatutako EAEko produktu guztien ia erdia (%48,5) izan zen. Izan ere, Alemania da EAEko automobilen helmuga nagusia mundu mailan, bere merkatuak bakarrik bereganatzen baititu Euskadik esportatzen dituen ibilgailu automobil guztien ia %35. Datu on horiek erregistratu ziren nahiz eta horniduren krisiak sortutako ekaitz perfektuak eta errekuntza motorraren amaieraren inguruko ziurgabetasunak ekarritako salmenten jaitsierak eragin handia izan zuen autoaren sektorearentzat. EAEko fabrikatzaile handien jarduera geldialdiak horren lekuko izan ziren. Hala eta guztiz ere, Alemaniako herrialdeari egindako salmentak %13,4 hazi ziren.

EAEko esportazioek hobera egin zuten merkatu britainiarrean ere, eta herrialde horrek hirugarren postua berreskuratu zuen. Zehazkiago adierazita, Erresuma Batura zuzendutako salmentak %26,2 areagotu ziren, 1.695 milioi euro inguru pilatu arte. Metal arrunten salmentaren hazkundeak, batez

ere burdinaren eta altzairuaren galdaketarenak, 2020arekin alderatuta bikoiztu egin baitzuen salmenta, trenbideetako ibilgailuen salmentaren beherakada indargabetzea lortu zuen. Horrek oraindik ere eragin estatistiko konparatiboa nozitzen du, CAFek Erresuma Batuari 2019an, eta neurri txikiagoan 2020an ere, salmenta handiak egin zizkiolako. Izan ere, epigrafe horrek 782 milioi euro fakturatu zituen 2019an, 201 milioi 2021ean eta 20 milioi baino gutxiago, berriz, 2021. urtean.

Atzeriaren euskal merkataritzaren sailkapena
17. taula



Iturria: Eustat. 2021eko datuak behin-behinekoak dira.

AEBek Erresuma Batuarekin lehian jarraitu zuten hirugarren eta laugarren postuen artean, eta kasu honetan, tarte txikiagatik, merkatu britainiarrak gainditu zuen. Negozio adar nagusia makinak eta aparatuak izan ziren, eta atzetik produktu energetikoak kokatu ziren, petrolioaren prezioaren garestitzeak bultzatuta. Bi kasuetan gehikuntza tasa handiak eskuratu ziren. Garraio materialak, zehazki ibilgailu automobilen salmentak, %43,4 egin zuen behera, baina lehen aztertutako taldeekin alderatuta pisu txikia duenez, jaitsiera konpentsatu egin zen. Horren guztiaren ondorioz, 1.592 milioi euroko balioa zuten produktuak saldu zitzaizkion AEBetako merkatuari. Hala eta guztiz ere, merkatu britainiarrarekin batera, EAEko eragileek ez zituzten pandemia aurreko salmenta mailak berreskuratu.

Ohiko merkatuetako salmentak alde batera utzita, EAEko agenteek beren zifrak hobetu zituzten Txinako (%52,4), Brasilgo (%31,7) eta Japoniako (%24,0) merkatuetan, guztietan covid-aren aurreko salmenta mailak berreskuratuz, eta Errusiako merkaturan, berriz, okerrera egin zuten (-%12,5). Izan ere, Errusiarako esportazioek ahulezia handia erakutsi zuten adar nagusi guztietan, ibilgailu automobiletan izan ezik, %11,3 hazi baitziren. Hala ere, gorakada hori ez zen nahikoa izan gainerako adarren beherakada konpentsatzeko.

EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria
18. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2016	2017	2018	2019	2020	2021(*)	2021(*)
Inportazioak	-7,3	19,9	9,5	-1,6	-21,3	34,1	21.059,9
ELGE	-6,9	17,1	5,3	1,1	-17,5	28,0	14.213,0
Europar Batasuna 28	1,3	8,9	6,3	0,7	-13,4	27,4	10.963,9
Alemania	9,9	6,7	5,1	3,4	-12,2	21,1	3.101,9
Frantzia	-8,9	12,9	5,2	-7,9	-10,0	29,8	2.025,1
Erresuma Batua	-52,5	60,6	-42,1	-17,8	-18,7	33,6	677,6
Italia	3,1	8,2	7,7	-3,8	-11,5	34,8	1.145,4
AEB	-4,6	19,5	14,0	85,6	-39,6	20,6	682,0
Japonian	63,5	6,9	-8,9	-0,6	-31,4	37,9	188,8
Errusia	33,7	-44,0	-38,5	192,1	-50,1	141,1	1.378,8
Txina	-11,1	0,5	9,9	16,1	-6,7	33,0	1.653,7
Brasil	42,1	98,3	126,1	-69,6	28,1	84,1	455,0

(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

Lehenago ere adierazi den bezala, atzerritik etorritako ondasunen inportazioak %34,1 handitu ziren, esportazioen erregistroa baino hamaika puntu gehiago, alegia. Hazkunde hori herrialde garatuetara (%28,0) zein garatzeko bidean daudenetara (%48,8) hedatu zen. Bi kasuetan, prezioen garestitzeak zeharo baldintzatu zuen haien gehikuntza tasa, baina industria jarduera pandemiaren aurreko mailara itzuli izanak lehengaien eta energiaren eskakizun handiagoa ere ekarri zuen. Edonola ere, produktu energetikoen inportazioak %57,6 gehitu ziren, esportazio energetikoen %43,5 baino gehiago; izan ere, energiaren epigrafea guztizko inportazioen %27,1 da, eta esportazioen atalean, berriz, %5,3 baino ez. Garatzeko bidean dauden herrialdeen kasu zehatzean, EAEko eragileek

erosten duten energia hornidura osoaren %56,6 saltzen dute herrialde horiek. Zehatzago adierazita, Errusiak, Mexikok, Kazakhstanek eta Libiak bakarrik hornitzen dute Euskadik erosi zuen energia guztiaren %61,7; beraz, normala da gorabidean den eremutik datozen inportazioen hazkundea dinamikoagoa izatea.

Beste aldetik, energiaz bestelako produktuen inportazioa %28,8 hazi zen. Barne eskariaren sendotasunak eta susperraldi ekonomikoak erosketak bultzatu zituzten, eta kasu askotan orain arte erregistratu gabeko gehieneko kopuruetara igo ziren. Hori izan zen nekazaritzako produktuen, produktu kimikoen, paperezko produktuen eta horien manufacturen inportazioaren kasua, baita makinen eta aparatuen inportazioaren kasua ere. Gainerako epigrafeek, hau da, metal arruntek eta garraio materialek, aurreko erregistroak gaingitu ez arren, hazkunde tasa handiak eskuratu zituzten. Zehatz-mehatz, metal arrunten eta horien manufacturen inportazioak %45,0 hazi ziren, eta garraio materialarenak, berriz, %25,4.


EAEko hornitzaile nagusien artean, Alemaniatik ekarritako ondasunen inportazioak %21,1 hazi ziren, Frantziatik etorritakoak, berriz, %29,8 eta Italiatik iritsi zirenak %34,8, Erresuma Batuari egindako erosketen %33,6tik hurbil. Garatzeko bidean dauden herrialdeen artean, Errusiatik ekarritako inportazioak nabarmendu ziren, %141,1 handitu baitziren, eta 1.400 milioi eurora hurbildu ziren. Horietatik, %85,8 produktu energetikoak izan ziren eta, ondorioz, Errusiako merkatua izan zen EAEko eragileentzako hornitzaile nagusia produktu energetikoetan.

Laburbilduz, ekonomiaren suspertzeari esker, EAEko enpresek 25.665 milioi euroko urteko esportazio maila lortu zuten 2021ean, 2020an kontabilizatutakoak baino 4.500 milioi gehiago. Salmenta kopuru horrekin, EAEko konpainia esportatzaileek birusaren aurreko erritmoa berreskuratzeaz gain, aurreko maila errekorretik 100 milioi pasatxora geratu ziren, 2018an lortu ziren 25.788 milioi haietatik. Merkataritzako bazkide nagusiei dagokienez, Euskadiko esportazioen mailak Europar Batasunekoak eta Eurogunekoak baino dinamismo handiagoa erakutsi zuen (bi eremuetako hazkundeak %17,1 izan ziren), eta are handiagoak Frantzia (%15,2), Alemania (%13,9) eta Erresuma Batuko (%9,4) esportazioenak baino.


Era berean, barne eskariaren sendotasunak aurrekaririk gabeko mailetaraino bultzatu zituen inportazioak, baina esportazioen kopuruen azpitik, eta, ondorioz, 4.600 milioi eurotik gorako superabita saldoa sortu zen. Merkataritza saldo ez-energetikoa 7.808 milioi eurokoa izan zen eta %9,9ko hazkundea izan zuen 2020arekin alderatuta.

EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak
18. irudia


Esportazioak. Milioi euro




Inportazioak. Milioi euro



Saldoak. Milioi euro



Ondasun eta zerbitzuen irekiera maila



Iturria: Eustat EAEko datuentzat eta Datacomex eta Eurostat. 2021eko datuak behin-behinekoak dira.

Argitaratutako azken datuen arabera, Euskadi Europako ekonomiarik irekienetako gisa nabarmentzen da, Italia edo Frantzia bezalako herrialdeen gaineratik, mundu osoan 5.000 enpresa esportatzaile eta ekoizpen ezarpen baino gehiago baititu. Gainera, bere posizionamendua oso bideratuta dago balio erantsi handiko produktuetara, eta, beraz, «erreferente teknologiko bihurtu da, egoitza Euskadin duten lider globalekin», Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun

eta Ingurumeneko sailburuaren hitzetan. Nazioartekotze gero eta handiago horren eta bere lehiakortasunaren emaitza da Euskadik %121,9ko estaldura tasa izan zuela 2021ean, eta positiboa izan zela bere merkataritza bazkide nagusi guztien aldean. Azpimarratzekoa da Erresuma Batuaren aldean duen egoera, estaldura tasa %250,1ekoa izan baitzen; ondoren, AEBak (%233,4), Frantzia (%203,5) eta Alemania (%131,9) kokatu zirelarik. Halaber, irekiera maila 133,1 puntukoa izan zen, 2019ko erregistroa baino 1,1 puntu handiagoa.

Errusia eta Ukrainaren arteko gatazkak oraingoz ez du eraginik izan EAeko esportazioen bilakaeran. Hala baieztatzen dute Eustatek argitaratutako lehen hiruhilekoko datuek. Izan ere, prezioen igoera alde batera utzita, esportazioek, bai errealek bai nominalek, serie historikoaren baliorik handienak izan zituzten. Prezioen igoera hori bereziki nabarmena izan zen erregai mineralen partidan (2020ko hiruhileko berean erregistratutako balioa nabarmen bikoiztu zuen) eta metal arrunten eta horien manufakturen atalean.


Oraingoz, joera historikoekiko aldakuntzarik handiena Errusiari egindako salmentek erakutsi zuten, Europar Batasunak ezarritako zigorrek eraginda, %38,7 jaitsi baitziren. Errusiako merkatutik ekarri diren erosketak ere gogor apaldu ziren, baina eremu positiboan mantentzea lortu zuten. Bigarren hiruhilekoko datuetara arte itxaron beharko da neurri eta zigor guztien eragina nabaritzeko, eta gatazkak eta ziurgabetasunak EAeko merkataritzaren bilakaera zenbateraino baldintzatzen duten baloratzeko.

EAeko lan merkatuaren bilakaerak nabarmen egin zuen hobera, pandemiaren hilabeterik zailenak igaro eta gero. Hori horrela izanda, baldintza ekonomikoak termino agregatuetan berreskuratu ahala, lan merkatua aztertzen duten aldagaiek aurreko ekitaldiko emaitza negatiboak alde batera utzi zituzten. Hala eta guztiz ere, merkatu horrek beste inpaktu bati egin behar dio aurre, Errusiak 2022. urtearen hasieran Ukraina inbaditu izanak eragindako albo ondorioengatik.

Bilakaera hori jardueran islatu zen; izan ere, koronabirusarekin lotutako neurriak gogortu izanak nabarmen murriztu zuen eskulanaren eskaintza 2020an, eta handitu egin zen lan merkatua utzi zuten pertsonen kopurua, igurikimenik ez dutelako. Hala eta guztiz ere, 2021ean lana modu aktibo batean bilatzen zuten pertsonen kopuruak gora egin zuen, eta portaera horrek adierazten du lan merkatuaren aurreikuspenak hobetu egin zirela. Igoera horren protagonistak emakumeak izan ziren, %0,7ko igoerarekin, eta gizonen artean, aldiz, biztanleria parte hartzailea %0,2 baino ez zen handitu iaz.

Hala eta guztiz ere, biztanleria aktiboak portaera hobea erakutsi zuen emakumeentzat gizonentzat baino, baina partaidetza tasek oso antzeko igoerak izan zituzten. Zehazkiago azalduta, emakumeen partaidetza tasak lau hamarren egin zuen gora urte horretan, aurreko %51,3tik 2021eko % 51,7ra; gizonen tasak, berriz, bi hamarren igo zen, 2020an jaso zuen %60,6ko tasatik 2021ean izandako %60,8ko tasara. Beraz, bi sexuen partaidetza tasen arteko aldea oso handia da oraindik (9,1 puntu). Arrakala hori zuzentzea funtsezkoa da, justizia sozialeko kontu bat izateaz gain, onura makroekonomiko esanguratsuak izango lituzkeelako. Izan ere, gero eta azterlan gehiagok azaltzen dute generoen arteko berdintasunak berekin dakarrela ekonomia baten BPGa handitzea eta produktibitatea hobetzea¹. Gainera, gizarte kohesioa hobetzen du, pobrezia murrizten du, finantza publikoen iraunkortasunari laguntzen dio eta ekonomiari erresilientzia ematen dio.

Partaidetza tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn
19. irudia




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat

Aipatu berri den lan merkatuaren dinamika positibo hori okupazioaren bilakaeran ere islatu zen, eta aldakuntza tasa positiboak jaso zituen berau aztertzeke erabili ohi diren iturri guztietan. Alde batetik, Eustatek landutako kontu ekonomikoek aurkeztu zituzten erregistrorik mardulenak,

¹ Kingma, Anne & Vandeplass, Anneleen (2022). The Macro-Economic Benefits of Gender Equality (European Commission).

2020an balio oso negatiboak izatetik (-%7,7) 2021ean oso emaitza positiboak izatera igaro baitziren (%5,5). Estatistika horrek lanaldi osoko lanpostu baliokideak erabiltzen ditu enpleguaren aldagai gisa, eta kontuan hartzen dena da BPGaren maila jakin bat lortzeko behar diren benetan lan egindako ordu kopurua.

Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak
20. irudia



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzza eta INE.

Hala ere, gainontzeko eragiketek enplegua duten pertsonen kopurua zenbatesten dute, erreferentziazko aldi lan egin duten ala ez alde batera utzita. Azken erregistro eta estatistika horiek oso antzeko balioetan mugitu ziren beraien artean; hala, BJA eta BAI inkestek %1,1eko igoera kalkulatu zuten, eta afiliazioak, berriz, zertxobait gutxiago egin zuen gora, %0,9koa izan baitzen, alegia. Kontuan izan behar da aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteetan dauden pertsonak okupatuak eta afiliatuak izaten jarraitzen dutela, baina ez dutela ordurik ekartzen kontu ekonomikoetako lanpostuak kalkulatzeko. Hortik dator estatistiken arteko alde handia.

2020an, eskariaren beherakadak, pandemiaren ondorioz, eskaintza murriztea eta hornidura kate ugari etetea eragin zuen, zenbait ekoizpen jarduera aldi baterako gelditzearekin batera. Hala eta guztiz ere, 2021ean ekonomia azkar suspertu zen eta lanaldi osoko lanpostuen kopurua nabarmen handitu zen. Izan ere, serie historiko osoko hazkunderik handiena izan zen 2021ekoa, 1998an erregistratutakoarekin berdinduz. Enpleguaren hazkundera ekoizpen sektore guztietan gauzatu ziren. Industria (%3,7) eta eraikuntza (%5,3) dira enplegua astiroen berreskuratzen ari diren sektoreak, eta zerbitzuek izan zituzten erregistrorik onenak (%6,1), nahiz eta egia den pandemian ere zerbitzuek eragin negatiboena izan zutela. Guztira, 2020an galdutako 75.000 lanpostuetatik 49.000 pasatxo berreskuratu ziren 2021ean. Orobat, 50.000 lanpostu inguru sortu behar dira oraindik EAEko ekonomiak 2008an izan zuen enplegu maila berriro berreskuratzeko.

Enplegua sektoreka
19. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Enplegua guztira	2,2	2,1	2,3	1,5	-7,7	5,5
- Enplegua lehen arloan	0,7	0,1	2,1	-2,8	-2,8	1,1
- Enplegua industrian	1,9	2,9	1,7	0,8	-8,1	3,7
- Enplegua eraikuntzan	0,3	-0,1	3,7	4,1	-3,9	5,3
- Enplegua zerbitzuetan	2,5	2,1	2,3	1,6	-8,0	6,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.


Bestalde, afiliazioak ere goranzko joera erakutsi zuen, eta 2022ko lehen hilabeteetan ere mantendu egin da, 980.000 kotizatzailetik gorako erregistroekin, 2008an lortutako maximoetatik gero eta hurbilago dauden kopuruak baitira. Gorakada horretan emakumeak gizonak baino protagonista

gehiago izan ziren, emakume afiliatuen kopurua %1,0 igo baitzen eta gizon afiliatuena, ordea, hiru hamarren gutxiago.


Izan ere, jarduera adarren arabera banakapenean hautematen da enplegu gehien hezkuntzan zein osasun alorreko jardueretan eta gizarte zerbitzuetan sortu zela, eta bi eremu horietan oso nabarmena da emakumearen partaidetza. Halaber, informazio eta komunikazio jarduerak, lineako merkataritzaren eta telelanaren hedapenak bultzatuta, dinamismo nabarmenak izan zituzten. Aitzitik, ostalaritzaren adarrak, jarduerari eta mugikortasunari ezarri zitzaizkien murrizketetatik eratorritako eragin handiagoarekin bat etorritik, ez zituen pandemiaren aurreko enplegu mailak berreskuratu. Era berean, industriaren sektoreak jarraitzen du izaten zigor handiena pairatzen duena, oraindik positiboak ez diren hazkunde tasekin, eta horrek eragin negatiboagoa izan zuen gizonezko kotizatzaileengan.

Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn
21. irudia

Gizonak



Emakumeak




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat.

Azterketa BJAk eskaintzen duen informazio xehatua oinarrituz, adierazi behar da, koronabirusak lan merkatuan eragin berebizikoa utzi ondoren, 2021ean enplegua nabarmen suspertu zela, landunen kopurua 10.000 baino gehiago haztea lortuz, hau da, urte arteko

aldakuntza-tasa %1,1era iritsi zen. Halaber, enpleguaren susperraldi hori are biziagoa izan zen 2022aren hasieran. Hala eta guztiz ere, enpleguaren hobekuntzak ez zuen sexuaren arabera dagoen arrakala murrizteko balio izan. Izan ere, 2021eko enpleguaren hobekuntzaren ondorioz, enplegu tasa, bai orokorra bai sexu bakoitzarena, igo egin ziren. Horrela, enplegu tasa globala 2020ko %49,9tik 2021eko %50,5era igaro zen, emakumeen kasuan %46,5era eta gizonen kasuan %54,9ra, bi kasuetan aurreko datua baino zazpi hamarren gehiago. Beraz, bi sexuen arteko aldea 8,4 puntutan mantentzen da, baina gogoratu behar da 2018an alde hori 9,5 puntukoa izan zela

Adinari dagokionez, enpleguaren hazkundeak muturreko adin tartetean, hau da, biztanleria gazteenean eta zaharrenean, okupazio tasak gora egitea ekarri zuen. Hala, 25etik beherako enplegu tasa %21,9ra jaitsi zen 2020an, baina %23,7ra igo da 2021ean, azken hamar urteetako tasarik altuenera, alegia. Era berean, enplegua zuten 45 urtetik gorako pertsonen ehunekoa %43,0ra igo zen 2021ean, serie historiko osoko tasarik altuenera. Adin tarte handieneko gorakada horretan funtsezkoa izan da emakumeak pixkanaka lan merkatuan sartzea. Azkenik, 25 eta 45 urte bitarteko adin tartetako enpleguan partaidetza handiena duenak, ez du ia aldaketarik izan aurreko urtearekin alderatuta, eta %77,8ko tasan kokatu zen.

Aldi baterako enplegu erregulazioko egoeran dauden pertsonen bilakaera
22. irudia



Iturria: Gizarte Segurantzza.

Beste behin ere, enpleguaren 2021eko zifrak arestian aipatutako zenbait lege baliabideren erabilerak baldintzatu zituen, hala nola, ABEEEak, hasiera batean alarma egoera amaitu arte pentsatuta zeudenak, baina indarrean mantentzen dituzten luzapen berriak ezarri ziren. Espediente horiek erabiltzeak iradokitzen du eraginkorrak izan zirela enplegura itzultzea errazteko orduan, okupazioan lortutako susperraldia kontuan hartuta.

Beste neurri mota batzuk baino arinagoa eta azkarragoa denez, enpresa gehienek ABEEEak erabili zituzten, pandemia bezalako egoera koiunturalak enpleguan egiturazko eragin negatiboa izatea saihestuz, eta baliabide hori lehenetsiz kontratuen amaieraren erabileraren gaintik. Horren eraginkortasunaren erakusgarri da, 2020ko maiatzean ABEEE baten eraginpean zeuden langile kopururik handiena lortu ondoren (ia 140.000 pertsona), 2021eko amaieran kopuru hori 4.000 pertsonatik beherakoa izan zela. Are gehiago, 2022ko maiatzean, 1.400 pertsona baino ez ziren geratzen aldi baterako lan erregulazioko egoeran.

ABEEEekin gertatu zen bezala, enplegu erregulazioko espedienteak (EEE) ere nabarmen murriztu ziren, 2020ko 30.690 espedienteetatik 2021eko 1.858ra igaro baitziren. Azken horiek, 2012ko otsailean indarrean sartu zen lan erreformaren ondorioz, izapideak murrizten ere saiatu ziren, kaleratze kolektiboetarako aurretiazko administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu baitzen. Oro har, eskariaren edo ekoizpenaren murrizketarekin lotutako arazoak zeudela ikusten da; izan ere, lau EEEtik ia hiru arrazoi horren ondorio ziren. Oso urrutitik, ezinbestekoen (%16,3) ondoriozkoak zetozen; gero, arazo ekonomiko eta finantzarioen ondoriozkoak (%8,7), eta, azkenik, arrazoi teknikoek eta antolakuntzakoek eragindakoak (%1,1) oso urriak izan ziren.

Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak
20. taula

Kopurua


	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Espediente kopurua	446	266	187	173	30.690	1.858
Eragindako langileak	6.283	4.342	3.187	2.449	210.019	32.723
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	1.172	481	355	219	26.243	3.332
- Behin-behineko etetea	4.473	2.864	2.299	1.933	182.463	28.477
- Kontratua amaitzekoa	638	997	533	297	1.313	914

Iturria: Lana eta Enplegu Saila.


Lanpostuen sorrera eta, batez ere, kalitate handiagokoak bultzatzeko, biztanleriaren prestakuntza funtsezkoa da, eta atal honetan Euskadik hobekuntza nabarmena erakutsi zuen. Zehazki, 30-34 urteko adin taldean goi mailako hezkuntza duen ehunekoa %62,9 izan zen, serie historiko osoko erregistrorik handiena baita, Espainiako (%46,7) eta Europar Batasuneko (%41,6) balioen oso gaineratik. Aipatzekoa da, orobat, puntu horretan emakumeak posizio hobean daudela, hirugarren mailako hezkuntza gizonena baino handiagoa baitute (%65,6 eta %60,2, hurrenez hurren).

Goi mailako hezkuntza (30-34 urte bitarteko taldea)
23. irudia

Gizonak



Emakumeak



Iturria: Eurostat.


Adierazle horri gehitu behar zaio bigarren etapako bigarren hezkuntza (Batxilergoa edo erdi-mailako LH) amaitu ez eta inolako ikasketarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duten 18-24 urteko pertsonen ehunekoa neurtzen duena. Adierazle hori %4,8an kokatu zen EAEn, Europak 2020rako proposatutako helburua (%10etik beherako abandonatze tasa) nabarmen hobetuz.

Beste behin ere, ikasketarik ez zuten edo lehen edo bigarren hezkuntza ozta-ozta gainditu zuten pertsonak gainerako biztanleek baino langabezia tasa handiagoak izan zituzten, eta horrek egiaztatzen du prestakuntza hobeak enplegarritasun handiagoa dakarrela. Hezkuntzaren eskaintza azkar egokitu behar da lan merkatuan gertatzen ari diren aldaketetara. Bide horretan,


funtsezko zeregina izan dezake hezkuntza dualak, lanaldi partzialeko enplegua eta ikasketak uztartzen baititu. Formula horretan, Euskadi erreferentzia da beste lurralde batzuentzat, eta eskola porrotaren arriskua murrizten eta hezkuntza sistemaren eta lan merkatuaren arteko trantsizioa hobetzen laguntzen du.

Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2021. urtea
24. irudia


Enplegu tasa. Gizonak




Enplegu tasa. Emakumeak



Langabezia tasa. Gizonak



Langabezia tasa. Emakumeak




Iturria: INE.


2021ean eta 2022an sortu den enpleguaren bilakaerari gehitu beharreko ohar positibo gisa, kontratazio mugagabearen gorakada nabarmendu behar da (%2,1), iaz aldi baterako kontratazioarena (%0,2) baino handiagoa izan baitzen. Bilakaera horrek 2022. urtearen hasieran ere jarraitu zuen, lan erreforman oinarrituta. Erreforma horren helburuetako bat behin-behinekotasun handiaren aurkako borroka da. Horretarako onartu ziren neurrien artean, honako hauek aipatu behar dira: aldi baterako kontratazioaren erabilerari muga zorrotzagoak ezartzea, prestakuntza kontratuen gehieneko iraupena mugatzea eta obra edo zerbitzurako kontratua ezabatzea. Ondorioz, aldi baterako kontratua zuten soldatapekoen ehunekoa %29,1era jaitsi zen 2021ean. Jaitsiera guztia emakumeen artean gertatu zen, egoera prekarioago batetik abiatuta, eta ia bi puntu murriztu zen haien behin-behinekotasuna, %32,1eraino. Bestalde, gizonen tasa %26,1era igo zen.

Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko
25. irudia

Gizonak



Emakumeak




Iturria: Eustat

2021ean lan merkatuaren kalitatea hobetu zuen beste alderdi bat egindako lan denborari buruzkoa izan zen. Hain zuzen ere, lanaldi partzialeko kontratazioa murriztu egin zen urte horretan, bai EAEn, bai Europar Batasunean. Euskadiren kasuan, 2020ko %16,1etik 2021eko %15,3ra gutxitu zen, eta Europar Batasuneko ehunekoa, berriz, %17,7 izan zen. EAEn, lanaldi partzialeko enplegua asko erabiltzen da emakumeak kontratatzeke, eta hori da soldata arrakala azaltzen duen arrazoi nagusietako bat, aurrerago zehaztuko den bezala. Hala eta guztiz ere, azken urteetan nabarmen


murriztu da lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeen ehunekoa. Izan ere, 2015ean tasa hori %31,1ekoa izan zen bitartean, 2021ean % 24,5era jaitsi zen. Portzentaje hori 2006tik erregistratutako batez bestekoa baino txikiagoa da, urte horretan hasi baitzen informazio hori BAI inkestan.

Lanaldi partziala duten landunek okupatu guztiekiko
26. irudia

Gizonak



Emakumeak




Iturria: INE

2021. urtean sortutako enpleguaren ondorioz, langabeziak nabarmen egin zuen behera urte horretan. 2020an, ABEEak erabili arren, langabeen kopurua 6.100 pertsonatan handitu zen urteko batez bestekoan, baina 2021eko lan merkatuaren dinamismoari esker, kopuru hori 104.200 pertsonara murriztu zen, aurreko urtean baino 5.700 gutxiago. Beraz, 2019ko maila ia berreskuratu zen. Aipatu behar da langabezia dauden pertsonen kolektiboa ia %50ean banatzen dela gizonen eta emakumeen artean, eta 2021eko jaitsiera 3,600 gizonena eta 2.000 emakumeena izan dela, kolektibo bakoitzari dagozkion zifrak 53.100 gizonetan eta 51,200 emakumetan uzteraino.

Enpleguaren eta langabeziaren bilakaera positibo horren ondorioz, langabezia tasak behera egin zuen, eta antzeko zifrak zenbatetsi ziren BJA(n (%10,0) eta BAI(n (%9,8)). Hobekuntza hori gorabehera, emaitzak Euroguneko tasetatik urrun daude oraindik ere; izan ere, aurreko urteetan bezala,

euroguneko tasak ez zuen %8 utzi. Sexuaren araberako analisiak adierazten du bietan lortu zela langabezia tasa murriztea, baina jaitsiera pixka bat handiagoa izan zela gizonen kolektiboan, bere tasa zazpi hamarren jaitsi baitzen %9,8ra arte; emakumeena, berriz, puntu erdikoa izan zen, eta 2021eko batez besteko tasa %10,2ra iritsi zen. Langabezia tasaren beherakadak jarraitu egin du 2022aren hasieran, %9,1era arte; %8,5eko tasa gizonentzat eta %9,7koa, berriz, emakumeentzat.

Langabezia tasaren bilakaera EAEn
27. irudia




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.


Langabeen kopurua oraindik handia bada ere, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 2021ean 3.000 lanpostu zeuden bete gabe. Horiek egotea justifikatzen duten arrazoen artean, aipatzekoa da lan eskaintza horietarako eskatutako prestakuntza eta langabezia dauden pertsonen gaikuntza ez direla bateragarriak. Arrakala hori, gainera, nabariagoa da adar digitaletan, EAeko enpresa askok adierazi baitute arazo larriak dituztela profesionalak aurkitzeko. Era berean, alokairuko etxebizitzaren eskaintza nahikorik ez izateak zaildu egiten du pertsonak bete gabeko enplegua duten lekuetara mugitzea.

Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn
28. irudia

Gizonak



Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat.

Erregistratutako lan kontratuen bilakaera
21. taula

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2021	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Guztira	828.010	6,5	3,0	3,9	0,7	-30,3	21,7
Lanaldi osoko mugagabeak	27.001	-0,2	11,6	18,2	-10,8	-29,5	31,3
Obra edo zerbitzukoak	128.783	1,3	2,2	3,4	-2,4	-28,9	12,0
Abagunekoak	237.957	10,9	6,6	7,2	4,5	-29,8	22,7
Lanaldi laburrekoak	328.295	8,6	3,7	3,1	2,6	-34,2	26,0
Prestakuntzakoak (*)	7.473	-11,6	5,1	6,9	-17,2	-35,7	50,9
Gainontzekoak	98.501	2,8	-6,2	-3,7	-5,9	-18,5	15,3

(*) Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.
Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuak erabiliz.

Azkenik, kontratuek serie historiko osoko erregistrorik onenak izan zituzten, %21,7ko gehikuntza tasa batekin. Nabarmenezkoa da, aurreko aldietan ez bezala, lanaldi osoko kontratu mugagabeen portaera, %31,3ko gorakada eskuratu baitzuen. Era berean, aldi baterako kontratazioak garrantzi handia izaten jarraitu zuen, eta, beraz, pisu handi horren ondorioz, kontratatutako pertsona gehienak hainbat kontratu sinatu zituen urtean zehar, 2020an pertsona bakoitzeko 2,9 kontratu izenpetzetik 2021ean 3,0 kontratu izatera igaro baitziren. Lan erreforman sartutako aldaketek, kontratu mugagabea lehenesten ari direnez, egonkortasun handiagoa eman beharko diete plantillei hemendik aurrera.

Barne jatorriko kostuei dagokienez, BPGaren deflatorearen bidez neurtuak, adierazle hori %2,5 igo zen 2021ean, aurreko hamar urteetan erregistratu ez zen erritmoa baita, prezioen bilakaera urte horietan oso apala, baita negatiboa ere zenbait urtetan, izan baitzen. 2021eko garestitzea urrun dago deflatoreak 2020an izan zuen beherakadarekin (-%1,3), pandemiaren ondoriozko eskariaren ahultasuna dela eta. Hiruhilekoko terminoetan, 2021eko lehen hiruhileko batean BPGaren deflatorea oraindik ere balio baxuetan (%0,5) egon ondoren, urtearen erdialdeko tartean agertu ziren lehen botila lepoak ekoizpenean eta zenbait lehengairen prezioen igoera, gainerako produktuetara aldatuz joan zirenak. Ondorioz, laugarren hiruhilekoan deflatorea %4,6an kokatu zen. 2022ko lehen hiruhilekoan, %3,5era arte apaldu da, baina ez da espero urteko gainerako hilabeteetan zuzenketarik lortzea.

Azterketa KPlan zentratuz, indize horrek nabarmen egin zuen gora 2021ean zehar, goranzko etengabeko joerarekin, eta are gehiago areagotu zen 2022ko lehen hilabeteetan, neurri handi batean Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka belikoaren ondorioz. Zehazkiago adierazita, igoera nabarmen horren atzean lehengaien garestitzearekin hasten den arrazoi kate bat dago, eskariaren susperraldi handiaren ondorioz, eta eskaintzaren erantzunik ezarekin jarraitzen du, hainbat alderdi geopolitikok zein balio kate globaletan erregistratutako botila lepo batzuek kaltetuta.

Errusiaren eta Ukrainaren artean 2021eko amaieran sortu ziren tentsioek eta 2022ko otsailaz geroztik dagoen liskar armatuak energia nabarmen garestitzea eragin zuten, eta faktore hori funtsezkoa izan zen inflazio tasen azken aldiko gorakadan, arestian aipatutako arrazoiekin bat egin zuena. Prezio energetiko altuek bultzatuta, bai argiaren eta bai gasaren prezioek igoera handiak izan zituzten, eta horiei galga jartzen saiatu ziren, akordioak eta deskontuak lortu ondoren, gorakadak mugatzeko.

Zehatz-mehatz, KPIk goranzko joera garbia aurkeztu zuen, eta behetik gorako bilakaera izan zuen. Hala izanda, indizeak negatiboan itxi zuen 2020. urtea, pandemiaren murrizketek kontsumoan izan zuten eraginagatik. 2021eko urtarrilean eta otsailean bere horretan jarraitu zuen atonia horek, baina hileko horretatik aurrera inflazioa etengabe igo zen eskala globalean, eta azken urtean %3,1eko batez besteko igoera jaso zuen, 2011tik izandako handiena. Balio horiek are gehiago egin zuten aurrera 2022ko hilabeteetan, eta duela zenbait hamarkadatik ikusi gabeko urte arteko aldakuntza tasak pairatu zituzten.

Gorago ere adierazi den bezala, lehengaiak egon ziren inflazio prozesu global horren jatorrian. Hain zuzen ere, Brent motako petrolio upelak 50 dolarretan hasi zuen urtea eta 78 dolarretan amaitu zuen. Horrek erregaiaren igoera bultzatu zuen, gasolinarentzat %23ko eta gasolioarentzat %25eko gorakadekin. Gauza bera gertatu zen handizkako merkatuan elektrizitatearen maximo historikoen segida luzearekin eta fakturretara eramatearekin. Beste aldetik, Ukrainako gerrak eragindako tentsio geopolitikoek nekazaritzako lehengaiak ere eragin zieten, eta igoera nabarmenak aurkeztu zituzten.

Kontsumoko prezioen indizearen banaketa
22. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019	2020	2021	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	2,0	1,6	1,0	-0,1	3,1	3,1
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,1	0,9	1,0	0,8	1,0	0,7
KPI landutako elikagaiak (%16,7)	0,0	0,9	0,6	1,7	1,4	0,2
KPI industriako ondasunak (%23,6)	0,3	-0,1	0,3	0,3	1,0	0,2
KPI zerbitzuak (%40,2)	1,7	1,5	1,6	0,8	0,7	0,3
Hondarreko inflazioa (%19,5)	6,5	4,6	0,8	-4,0	12,1	2,4
KPI landugabeko elikagaiak (%9,5)	3,7	2,9	1,3	4,0	2,6	0,3
KPI energia (%10,0)	8,2	5,9	0,4	-9,4	21,3	2,1

Iturria: INE.

Nahiz eta energiak eta elikagaiak azaltzen duten inflazioak 2021ean izan duen igoeraren zatirik handiena, azken hilabeteetan eta, batez ere, 2022aren hasieran, prezioen gorakada gainerako

produktuetara ere hedatu da. Horren ondorioz, azpiko inflazioak goranzko joera nabarmena erakutsi zuen, eta %4tik gorako aldakuntza tasak markatu zituen, 2021. urtea balio apalagoetan itxi ondoren.

Analisia inflazioaren nukleo egonkorrena osatzen duten partidetatik hasita, prestatutako elikagaiak izan ziren azken hilabeteetan gehien garestitu zirenak, garraioaren kostu handiak eta ongarrrien prezio handiagoa direla eta, besteak arrazoi batzuen artean. Era berean, industria alorreko ondasunek ere garestitze nabarmenak ezagutu zituzten, lehengaien goranzko bilakaerak eraginda, eta zerbitzuek ere gora egin zuten prezioetan, pandemiak aurreko hilabeteetan eragin zuen atoniaren ondoren.

EAEko kontsumo prezioen indizea
23. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Indize orokorra	0,0	2,0	1,6	1,0	-0,1	3,1
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,6	1,2	1,5	0,9	2,8	2,0
- Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,4	1,7	2,2	0,3	0,2	0,4
- Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,7	1,1	1,0	1,0	1,0
- Etxebizitza	-4,1	3,7	2,6	-1,4	-3,3	11,3
- Etxeko hornidura	0,5	-0,3	0,3	1,0	0,5	1,9
- Medikuntza	1,0	1,1	0,2	0,4	0,5	0,8
- Garraioa	-1,8	4,3	3,4	2,7	-3,6	7,3
- Komunikazioak	2,6	1,3	2,4	0,9	-1,1	-2,9
- Aisia eta kultura	-1,0	1,9	-0,4	-0,2	-1,0	-0,1
- Irakaskuntza	0,6	1,6	1,0	1,0	1,1	0,9
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,0	1,8	1,9	1,9	1,2	1,2
- Besteak	1,7	0,7	0,7	1,6	0,9	1,3

Iturria: INE.


Beste aldetik, hondar inflazioa osatzen duten elementu gorabeheratsuenek aurreko urteko goranzko balioak baieztatu zituzten 2022ko lehen hilabeteetan ere, bai produktu energetikoen kasuan, bai prestatu gabeko elikagaien kasuan. Espero zitekeen bezala, lehenak izan ziren inflazio

handiena eragin zutenak, kontuan hartuta energiak prezioen igoeran izan duen protagonismoa. Aldi berean, bigarrenak hazkunde tasa apalagoak aurkeztu zituzten, baina beren zifrak %10etik gorakoak izatera ere iritsi ziren, ekoizpen kostuak eta elikadura lehengaiak modu esanguratsuan garestitu zirelako.


Taldean garestitzea are nabarmenagoa izan zen 2022. urtearen hasieran, eta energiarekin lotura zuzena zutenak izan ziren hazkunde tasa azpimarragarrienak jaso zituztenak. Hain zuzen ere, etxebizitzarako zerbitzuen taldea %35eko erregistroetara hurbildu zen martxoan, eta aldaketa hori elektrizitatearen garestitzeak eragin zuen nagusiki; garraioaren taldeak, berriz, erregaien prezioen igoeraren ondorioz, %17,4an kokatu zuen bere aldakuntza tasa hilabete horretan, eta erregistro horiek apur bat moteldu ahal izan ziren Espainiako gobernuak elektrizitatearen prezioa geldiarazteko hartu zituen neurrien ondoren. Era berean, turismoarekin lotura estuen duten taldeetan ere, hala nola hoteletan, kafetegietan eta jatetxeetan, eta aisian eta kulturaren, goranzko joera hauteman zen.

KPIaren bilakaera 29. irudia

Indize orokorra: EAE



Indize orokorra: Eurogunea



97-02 03-08 09-14 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021


97-02 03-08 09-14 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

Iturria: INE eta Eurostat.

Prezioen goranzko dinamika horren iraupena Ukrainako gatazka belikotik eratorritako disrupzioek eta gerraren iraupenak berak baldintzatuko dute. Gaur egun bizi diren liskarrak eteteak lehengaien prezioak jaitea eta ekoizpen kateetako botila lepoak zuzentzea ahalbidetuko luke. Hori lortuko ez balitz, kontsumorako produktuen azken prezioetara bideratzen den transmisioa handiagoa izango balitz eta bigarren txandako ondorioak sortzen hasiko balira, inflazioa iraunkorragoa izatea eragingo luke.

Kontsumoko prezioen bilakaera antzekoa izan zen inguruko herrialdeetan. Euskadiko indizeak Euroguneko indizeekin alderatzen baditugu, agerian geratuko zen inflazioa zertxobait handiagoa izan zela autonomia erkidegoan, eta diferentzial hori areagotu egin dela 2022ko lehen hilabeteetan, aldi horretan energiak inflazioaren gorakadari egin zion ekarpena bereziki handia izan baitzen, elektrizitatearen prezioak maximoetan egon baitziren. EAEren kasuan, bezero asko merkatu arautuan daudenez, horrek goranzko bilakaera handiagoa eragin zuen, eta elektrizitatearen igoera horiek altuagoak izan ziren gure inguruan.

EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartera. 2021eko batez besteko balioak
30. irudia



Iturria: INE eta Eurostat.

Prezioak aztertzen dituzten gainerako adierazleek bezala, IPRIaren kasuan ere, 2021eko azken hilekoetan hazkunde tasa garrantzitsuak jaso ondoren, aldakuntza tasak are gehiago bizkortu ziren 2022aren hasieran. Egia bada ere industriako prezioen garestitzea energiak bultzatuta etorri zela, gainerako taldeen garestitzea ere esanguratsua izan zen, bitarteko ondasunen bilakaera nabarmenduz, produktu talde horrek erdieroaleen eta lehengai jakin batzuen prezioen igoera biziki pairatu zutelako. Era berean, bai kontsumorako ondasunek bai ekipamendurako ondasunek portaera diskretuagoa izan zuten, nahiz eta beren prezioek ere gora egin zuten, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Azkenik, prezioen goranzko tentsioen aurrean, soldatek ez zuten intentsitate berarekin erreakzionatu; izan ere, soldaten igoerek %1,2an itxi zuten 2021. urtea, KPIaren hazkundearen oso azpitik, eta, ondorioz, langile guztiek erosteko ahalmena galdu zuten. Horiek horrela izanda, 2015etik 2019ra bitarteko soldata igoerek izan zuten goranzko joeraren ondoren, 2020tik aurrera joera hori gelditu egin zen, koronabirusaren arazoaren ondorioz jarduera ekonomikoa gelditu zelako, eta 2021ean zehar ez zen berriro aktibatua. Pentsatzekoa da igoerak nabarmen handiagoak izango direla 2022an.

EAEko industriako prezioen indizea
24. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Indize orokorra	-2,9	2,8	3,2	1,4	-3,1	7,3
- Kontsumoko ondasunak	0,6	1,0	2,1	-0,3	1,9	2,9
- Kontsumo iraunkorrak	-0,7	2,4	-0,5	1,9	0,9	1,8
- Kontsumo iragankorrak	0,8	0,7	2,5	-0,7	2,1	3,0
- Ekipamendu ondasunak	0,8	2,7	1,9	1,6	0,8	0,1
- Bitarteko ondasunak	-1,9	1,9	2,6	0,0	-0,5	7,1
- Energia	-10,4	6,6	7,8	5,0	-15,1	20,6

Iturria: Eustat.

Inflazioaren presioak soldatetara oso-osorik ez aldatzeko arrazoietakoa bat da 2021ean sinatutako hitzarmen gehienek ez zutela soldata bermearen klausularik. Bestalde, hitzarmen horiek gero eta

langile gutxiagori eragiten diete, indarreko hitzarmena duten pertsonen ehunekoa %45,9koa izan baitzen, 2020koa (%55,4) baino askoz txikiagoa.

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak
25. taula

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Indarrean dauden hitzarmenak	1,0	1,5	1,9	2,0	1,7	1,2
- Urtean zehar sinatutakoak	1,1	1,7	2,2	2,3	1,2	1,1
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	1,0	1,5	2,0	2,1	1,7	1,0
- Enpresako hitzarmenak	1,1	1,5	1,6	1,8	1,7	1,9

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

2. HAZKUNDEA BERRESKURATZEKO HARTUTAKO NEURRIAK

2.1 Moneta politika eta pandemiaren eragina finantza sektorean

Covid-19aren pandemiaren inpaktua aurrekaririk gabeko erronka izan zen nazioarteko mailan eta banku sektoreak zein finantza sistemak, oro har, aurre egin behar zioten erresilientzia proba handiena 2008ko finantza krisi handiaz geroztik. Finantza erregulazioaren eta gainbegiratzearen arloko erantzukizunak dituzten nazioarteko erakundeek azkar eta irmo erantzun zuten, eta helburua izan zen nazio mailan gauzaturako jarduerak koordinatzea eta, horrela, ekonomia errearen finantzaketa jarraitua ziurtatzea. Gobernuak eta banku zentralak neurriak hartu zituzten zergen eta moneta politikaren arloan, hainbat inpakturi aurre egiteko, bai produkzio sektoreetan eta etxeetan, bai finantza merkatuetan eta likidezia eskuratzeko orduan. Izan ere, 2020. urtean lehen aldiz banku zentralen arteko ekintza koordinatuak onartu ziren dolarretan likidezia errazteko, banku nagusien erreferentzia tasak orokorrean murriztu ziren ekonomia laguntzeko, eta ekonomia suspertzeko mekanismo indartuak ezarri ziren, hedapen kualitatiboko programen bidez (QE) batez ere.

2021ean, pandemia kontrolatzen joan zen heinean, eta, bereziki, txertoen agerpenaren ondoren, ekonomiaren suspertze iraunkorraren ikuspegia indarra hartuz joan zen, eta horrek, moneta politikako eta zerga politikako neurri ultralaxo eta egokituekin batera, inbertitzeko sentimendua areagotu zuen, urteak aurrera egin ahala suspertuz eta indarra hartuz joan zena. Munduko susperraldiak aurrera egin zuen heinean, funtsezko lehengaien, bitarteko sargaien eta zerbitzu logistikoen eskariak eskaintza erabilgarria gainditu zuen, eta horrek prezio hazkor eta lurrunkorrak eta inflazioaren igoera handia eragin zituen. Hasiara batean, inflazio hori iragankorra izango zela pentsatu zen.

Egoera horren aurrean, 2021eko azken zatian zenbait banku zentralak finantzaziorako baldintzak neurritz doitzen hasia erabaki zuten. Erreserba Federala *tapering* delakoa murrizten hasi zen, eta banku zentral batzuk, besteak beste Ingalaterrako Bankua, Brasilekoa eta Zeelanda Berrikoa, beren esku hartze interes tasa handitzen hasi ziren. Europako Banku Zentralak (EBZ) uste zuen inflazioaren gertakaria puntuala zela eta egokitzat jo zuen hazkunderari lehentasuna ematea prezioen gaintetik, eta, beraz, 2021ean ez zuen inolako aldaketarik egin bere politiketan. Errusiak Ukraina inbaditu ondoren eta prezioen etengabeko igoeraren ondorioz, EBZk bere tonua gogortu behar izan zuen. Horrela, martxoan amaitu ziren pandemiari aurre egiteko larrialdiko erosketa programaren (PEPP) erosketa garbiak, 2022ko hirugarren hiruhilekoaren hasierarako aktiboak erosteko programaren amaiera iragarri zuen, eta, ondoren, interes tasen lehen igoera 2022ko uztailean izango zela jakinarazi zuen. Fed-ek, bestalde, normalizaziorako bidea hasia zuen, eta 2022ko martxotik ekainera bitartean hiru aldiz handitu zuen bere esku hartzeko interes tasa, %1,5-%1,75 mailaraino. Ingalaterrako Bankuak %1,0raino igo zuen maiatzean bere erreferentziatzeko tasa, 2009tik izan duen mailarik altuena baita, eta Brasilgoak, berriz, %13,25eraino igo zuen, apirilean %12,0tik gorako inflazioa kontrolatzeko ahaleginean.

Banku zentralen interes tasak
26. taula

	01-05	06-10	11-15	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Eka-22
Europako Banku Z.	2,5	2,4	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00	0,00
Erreserba Federala	2,1	2,1	0,30	0,75	1,5	2,5	1,75-1,5	0,25-0,0	0,25-0,0	1,5-1,75
Japoniako Bankua	0,0	0,2	0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Ingalaterrako Bankua	4,2	2,7	0,5	0,25	0,5	0,75	0,75	0,1	0,25	1,0
Txinako Bankua	2,5	6,0	5,7	4,35	4,35	4,35	4,15	3,85	3,80	3,70
Indiako Bankua	7,1	6,5	7,8	6,25	6,00	6,50	5,15	4,0	4,0	4,9
Brasilgo B. Z.	17,4	11,6	10,9	13,75	7,00	6,5	4,5	2,0	9,25	13,25

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

Japoniako Bankua joera horretatik aldendu zen, eta interes tasa oso apalei eutsi zien, eta inolako aldaketarik gabe. Moneta agintariek erabaki zuten suspertzeko joera epela inflazioaren edozein presioaren aurretik jartzea. Beste aldetik, azken hori oso txikia izan zen, baita ongietorria ere, kontuan hartuta herrialde horretan deflazioa 2021. urte osoan ezarrita zegoela. Yenaren erorketa bortitz eta jarraituak bakarrik baldintza zezakeen, une honetan, herrialde hartako moneta politika.

Txinako Herri Bankuak, azkenik, hazkunde ekonomikoa bultzatzeko asmoz, oinarrizko 10 puntutan murriztu zuen interes tasa.

Hala, 2021aren amaieran, bazirudien ekonomiak eta merkatuek pandemiaren aurreko hazkunde bideari heldu ziotela berriro, eta kezka bakarra inflazio gorakor baina iragankor baten bilakaera zen, nolabaiteko lasaitasun ezarekin, diru pizgarriak pixkanaka kentzeak ekar zitzakeen ondorioengatik. Agertoki horretan, 2022ko otsailean, gerra piztu zen. Errusiak Ukraina inbaditu zuen eta nazioarteko finantza merkatuak ezegonkortu zituen.

Europar Batasunak, AEBek, Kanadak eta Erresuma Batuak azkar batean erabaki zuten zigor batzuk ezartzea, Errusia inbasioaren aurrean atzera egitera behartzeko, baina, neurri horiek gogorrak izan arren, Putinek jarraitzea erabaki zuen. Zehazkiago adierazita, inbasioaz geroztik, Europar Batasunak sei zigor pakete onartu ditu Errusiaren aurka, gerra ekonomiko moduko batean. Zigor horiek 2014tik zeuden zigorrei gehitu behar zaizkie, Kremlinek Krimea anexionatu ondoren, Errusiako moneta, haren finantzak, teknologia, sektore ekonomiko bakoitza eta haren politikari eta oligarka nagusiak kolpatzeko. Neurri horiek pixkanaka-pixkanaka ezarri dira, eta lau kategoriatan sailka daitezke: finantzarioak, merkataritzakoak eta industriakoak, pertsonalak eta bestelakoak (diplomatikoak, komunikabideak eta lankidetzak ekonomikoak).

Finantza alorreko zigorrek eragina dute zuzenean entitate jakin batzuetan (Errusiako banku merkatuaren %70ean) eta Errusiako eta Bielorrusiako banku zentraletan. Neurri nagusien artean, aktiboak eta Errusiako eta Bielorrusiako banku zentralen nazioarteko dibiseta erreserbak eskuratzeko aukera izoztea daude, baita horiekin jarduteko debekua ere. Gainera, SWIFT finantza mezularitzako sistemara sartzea debekatu zaie Errusiako zazpi bankuri eta Bielorrusiako hiruri aurtengo martxoaren 12tik, bai eta nazioarteko finantza merkatuetan eragiketarako egitea ere, apiriletik. Neurriek, halaber, nabarmen mugatzen dituzte Errusiak EBn dituen finantza fluxuen sarrerak, debekatu egiten baitute balore jakin batzuk gainditzen dituzten nazionalen edo egoiliar errusiarren gordailu berriak onartzea, bai eta eurotan izendatutako baloreak bezero errusiarrei saltzea ere.

Merkataritza eta industria zigorren artean, garrantzitsuenak Errusiako energia sektoreari eragiten dio, sektore horren motor ekonomiko nagusia baita. Berrikuntzarako gaitasuna oztopatzeko asmoz, Errusiara petrolioa eta, oro har, energia sektorea fintzeko teknologia esportatzea debekatu da, industria nuklearra izan ezik. AEBak haratago joan ziren eta martxotik Errusiatik etorritako petrolioa, gas likidotua eta ikatza inportatzea debekatu zuten. Europar Batasunak oraingoz mugatu

egin du betoa ikatzaren inportaziora, kontinente zaharrak Errusian duen mendekotasun energetiko garrantzitsuagatik, eta burdinaren eta altzairuaren sektoreetan funtsezkoak diren produktuengatik. Hala ere, Europako Batzordeak 210.000 milioi euroko plan baten berri eman zuen maiatzean, Europak 2027an Errusiako erregai fosilen mende egoteari uzteko eta Moskutik urruntzea aprobetxatzeko, energia berderako trantsizioa bizkortzeko.

Era berean, puntako teknologiarako eta merkataritzarako sarbidea mugatzeko neurriak aplikatu dira funtsezko sektoreetan, hala nola energiaren eta garraioaren sektoreetan, goi teknologiako ondasunak esportatzeko debekuekin (erdieroaleak edo hegazkingintzako osagaiak), baita Errusiako findegiak modernizatzeko beharrezko osagaiak esportatzeko ere, eta horien energia sektorean inbertsioak debekatuz. Orobat, hainbat zehapen jarri dizkiote Errusiako garraioari, airez eta itsasoz, giltzarri baitira kanpotik hornitzeko eta konektatzeko. Hegazkin errusiarrei, komertzialei zein pribatuei, aireko espazioa ixtea erabaki zen.

Errusiako industria siderurgikoa ere kaltetuetako bat izan da. Debekatu egin zen produktuak inportatzea, erostea eta garraiatzea, hala nola hodiak, txapak eta alanbreak. Era berean, ezin da Errusian erabiltzeko luxuzko produkturik esportatu edo saldu. Besteak beste, edari alkoholodunak, kosmetikoak, erlojuak eta harribitxiak (300 eurotik gorakoak); gailu elektronikoak (1.000 eurotik gorakoak) edo ibilgailuak (50.000 eurotik gorakoak).

Azkenik, zigor pertsonalei dagokienez, Europar Batasunak, neurrien bultzatzaileak, Errusiako zenbait oligarkaren aktiboak izoztu zituen, eta Donestk eta Luhansken independentzia onartzearen alde bozkatu zuten Errusiako Dumako 361 kideei bidaiatzea debekatu zien, hori izan baitzen Putinen "aitzakia" Ukraina inbaditzeko. Erresuma Batuak ere izoztu egin ditu hainbat oligarkaren aktiboak. Guztira, ekainaren erdialdean, banakako neurri murriztaileak 654 pertsona eta 52 erakunderi aplikatzen zitzaizkien, eta horien artean daude ondasunak ibilgetzea eta zerrendan dauden pertsona eta erakundeen eskura funtsak jartzeko debekua. Gainera, zerrendan dauden pertsonen aplikatzeko moduko bidaiatzeko debeku batek galarazi egiten die EBko lurraldean sartzea edo bertatik ibiltzea.

Gatazka belikoak egun gutxi batzuetan ezabatu zituen 2021ean berreskuratutako eta metatutako irabazi guztiak, pandemiak 2020an izandako beherakada handiaren ondoren. Zigorrak Errusiarentzat bakarrik diren arren, gainerako ekonomiak ez dira egoeratik at geratzen ari, izan ere, hegakortasuna eta arriskuarekiko ezinikusia merkatu guztietara zabaldu da.

Zehatzago esanda, 2021ean, banku zentralek merkatuetan likidezia injektatzeko zuten erosteko goseak, 2021eko lehen erdian inflaziorik ez egoteak eta zorro zuhurrenak bilatzeak nabarmen murriztu zituzten zor subirano nagusien errentagarritasunak. Izan ere, pandemiarekin lotutako albiste negatiboek (kutsatzeen gorakada, konfinamendu berriak) ozta-ozta eragin zioten zor subiranoari. Hori aldatu egin zen inflazioaren presioak areagotu zirelako eta horrek epe laburrean moneta politikak gogortzea ekar zezakeelako. Hala eta guztiz ere, errentagarritasunaren hazkundera murriztu egin zen urtean zehar, eta aurreko aldietan erregistratutako batez bestekoaren oso azpitik kokatu zen.

10 urterako zor publikoaren errendimendua
27. taula

	Errendimendua (%)					Alemaniarekiko aldea (oinarri puntuak)				
	08-13	14-19	2020	2021	2022-eka	08-13	14-19	2020	2021	2022-eka
Alemania	2,40	0,31	-0,58	-0,18	1,37	0	0	0	0	0
Frantzia	2,99	0,69	-0,34	0,19	1,95	59	38	23	37	59
Italia	4,83	1,92	0,52	1,19	3,39	241	161	110	136	203
E. Batua	2,88	1,38	0,20	0,97	2,24	47	106	77	115	87
Espainia	4,64	1,38	0,06	0,60	2,46	224	107	63	77	109
Irlanda	5,85	0,81	-0,30	0,25	2,01	344	50	27	43	64
Portugal	6,90	2,19	0,06	0,49	2,46	451	188	64	66	109
Grezia	13,00	5,84	0,63	1,31	3,62	1.059	553	120	149	225
AEB.	2,67	2,32	0,91	1,50	2,97	26	201	149	168	161
Japonia	1,02	0,11	0,02	0,07	0,23	-139	-20	60	25	-114

Iturria. Espainiako Bankua.

2022an hau guztia aldatu egin zen. Banku zentralek berehala igo zituzten tasak, eta, horren ondorioz, zorra saldu zuten aktibo seguruagoak lortzearen truke. Ondorioz, bonuen prezioek behera egin zuten, eta errentagarritasunak, berriz, gora, azken urteetan ikusi gabeko mailetaraino. Are gehiago, 10 urterako muga eguna duen Espainiako bonuak %3ko muga gainditu zuen ekainaren erdialdean, 2014ko maiatzetik lehen aldiz. Errendimenduen hazkunde handi hori zor periferiko osora hedatu zen (Grezia %4,6, Italia %4,2, Portugal %3,1), eta arrisku sariak igo egin ziren, 2020ko apirileko maximoetan kokatu baitziren, koronabirusaren pandemiak eztanda egin ondoren. Arrisku sarien narriadura azkar horrek eskualdeko herrialde zorpetuenen finantza egonkortasunari eta

zorraren iraunkortasunari buruzko kezka areagotu zuen, eta ekainean EBZk premiazko bilera bat egin behar izan zuen. Bilera horretan, zatiketaren aurkako «tresna» bat aktibatzea erabaki zen, zorraren merkatuak baretzeko eta pandemiaren eskuratutako bonuak malgutasunez berrinbertitzeko. Horren ondoren, errendimenduek beheranzko bide leuna hasi zuten.

Nazioarteko burtsen bilakaerari dagokionez, pandemiaren bigarren urtea errusiar mendi bat izan zen errenta aldakorrean, birusak eragindako etapa desberdinek eragindako gorabeherekin. Hala eta guztiz ere, urteko balantzeak irabazi handiak ekarri zituen. Inbertsio sentimenduaren hobekuntza erlatiboari esker, burtsa indize nagusiek arnasa hartu zuten; izan ere, inflazioaren presioek, omikron aldaeraren kutsatze errekorrak eta moneta pizgarriak kentzeko iragarpenek ez zuten eragotzi S&P 500 (gehieneko maila historikoetan) eta EuroStoxx50 (+%26,9 eta +%21,0 urtean, hurrenez hurren) 2021ean mende honetako urteko irabazien hirugarren erregistrorik onena izatea. Europako eta AEBetako indizeek maila errekorretan kotizatu zuten bitartean, Ibex-35ek pandemiaren aurreko mailen azpitik amaitu zuen 2021a. Espainiako parkeak ez zuen hain susperraldi lehergarria izan, eta %7,9ko errebalorizazioa baino ez zuen erregistratu. Gorabidean dauden herrialdeetako indizeek jarri zuten notarik ezatseginena (MSCI Emerging Markets indizeak -%4,6ko nota jaso zuen urtean), pandemiaren ondoren susperraldi erritmo txikiagoagatik eta arrisku idiosinkratikoen interferentziagatik.


2022ko egun gutxi batzuk besterik ez zuen iraun panorama berde horrek. Urtarrilaren amaieran Errusiak Ukrainan esku hartze armatu batekin mehatxatzen zuen, NATO bere eraginpeko eremuko herrialdeetara zabaltzea geldiarazten ez bazen. Analistek eta inbertitzaileek gertatzeko aukera gutxi zituzten arren, hegazkortasunak burtsak inbaditu zituen eta egoerak okerrera egin zuen inbasioa gauzatu zen unean. Urtarrilean, mundu osoko burtsek galera handiak izan zituzten, eta ekonomiaren moteltzearen eta, are, atzeraldia beldurra handitu ahala, gora egin zuten. Horrela, ekainera arte, Nasdaq-a %30,98 jaitsi da, eta murrizketak %17,75era iritsi dira Dow Jonesen eta %22,9ra S&P 500 merkatu beherakarian sartu den batean, bere maximoetatik %20ko beherakada gainditu baitu. 2021ean ez bezala, Ibex-35 da orain arte beherakada txikiena izan duena. Oraingoz, galerak %4,9koak dira.

Kapitalek ihes egin zuten burtsetatik babesleku aktiboetara igartzeko, arriskuarekiko ezinikusia dagoenean ohikoa den bezala. Izan ere, 2021eko maiatzean euroak balioa galtzeko bideari ekin zion dolarraren aldean, eta horrek bere ekonomiaren sendotasuna eta Erreserba Federalak interes tasak eurogunean baino askoz lehenago igotzeko aurreikuspena baliatu zituen. Zehazki, euroa 1,22 dolarretik gora kotizatzerara iritsi zen dolarraren truke 2021eko maiatzaren 20an, eta, ordutik, beheranzko bidean murgildu da, eta 2022ko ekainean 1,04 dolarrera iritsi da euroaren kotizazioa.


Azken 12 hilabeteetan, euroak balioaren %11,6 galdu du dolarraren aldean. Libera esterlinaren eta franko suitzarraren aldean ere balioa galdu zuen euroak. Yenaren aurrean bakarrik eutsi zion goranzko joerari, merkatuek aurreikusten baitute Japoniako Bankuaren moneta politikaren gogortzea EBZrenaren ondorengoa izango dela.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko
31. irudia


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera esterlina



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.

Mendebaldeak Errusiari ezarritako zigorrek bere dibisa eta poltsa hondoratu zituzten hasiera batean. Zehazki, errubloak balioaren %40 baino gehiago galdu zuen dolarraren eta euroaren aldean, 0,0061 euro errubloko eta 0,0072 dolar errubloko kotizatzerira iritsi baitzen. Aldi berean, Moody's agentziak Ca ratingeraino jaitsi zuen, zabor bonutzat hartzen dena eta Moskuko zorrari ordaindua ez izateko probabilitate handia esleitu zion. Egoera horren aurrean, Errusiako gobernuak erreferentziazko interes tasa %9,5etik %20,0ra igotzea erabaki zuen, bankuei injekzio handiak egin zizkien, atzerriko inbertitzaileek Errusiako finantza aktiboak saltzeko murrizketa ugari ezarri zituen, eta Moskuko burtsa %33 jaitsi ondoren, hilabetez ixtea erabaki zuen. Neurri horiei esker, errubloa berreskuratu ahal izan da denbora errekorrean, hilabete geroago inbasioaren aurreko mailetan kotizatzen baitzuen.

Mendebaldeko zigorrek energia saltzea barne ez hartzeak errubloari mesede egin dio. Are gehiago, Errusiako gobernuak hain indartsu ikusten du bere dibisa, non bere erreferentzia tasa birritan jaitea erabaki duen, %11ra arte. Burtsak ere galdutakoaren zati bat berreskuratu du, ekainean bakarrik %31 baino gehiago. Hala ere, MOEXen galerak %28,6koak izan dira urtearen hasieratik.

Gordailuen bilakaera
28. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2008-2021 arteko aldea	
							Milioi €	Tasak
Guztira	1,9	4,7	2,3	6,6	5,7	4,7	19.816,3	26,0
Gordailu publikoak	-0,2	11,2	36,6	8,9	27,1	53,1	3.611,7	63,0
Gordailu pribatuak	2,0	4,4	0,9	6,5	4,4	1,2	16.204,6	22,9
Ageria eta aurrezkia	15,4	20,9	6,6	11,4	9,0	5,1	52.190,4	193,4
Epera	-16,6	-27,3	-17,3	-13,5	-20,1	-26,6	-35.985,9	-82,4


Iturria: Espainiako Bankua.

Familien finantza osasunari dagokionez, INEren datuen arabera, Espainiako familiek 2021ean beren errenta erabilgarriaren %11,4an kokatu zuten aurrezpen tasa, 2020an erregistratutakoa baino 3,6 puntu txikiagoa, orduan lortu baitzen aurrezpenaren maximo historikoa covid-19aren

pandemiagatik. Tasa txikiago hori ulertzekoa da, kontsumoak eta inbertsioak nabarmen egin baitzuten gora 2021ean, 2020an murrizketek eta jarduera ekonomikorik ezak baldintzatuta.

Hala eta guztiz ere, aurrezki maila handia izan zen berriro, eta horrela jaso zen EAEko eragileen gordailuen bilakaeran, 96.160 milioi euro inguru inbertitu baitzituzten horietan, aurrekaririk gabeko maila, eta 2020ko erregistroa baino ia 4.300 milioi handiagoa. Horrekin jadanik bost urte dira etengabeko maximoak kateatu direla. Izan ere, burtsek urte amaieran errebalorizazio handiak izan zituzten arren, pandemiaren ondoriozko ziurgabetasunak eta olatu berrien agerpenak inbertsiogileak aktibo seguruagoetan inbertitzearen alde egitera eraman zituen. Gordailu publikoek zein pribatuak hazkunde positiboak izan zituzten eta, gordailu publikoen kasuan, orain arte erregistratutako zenbatekorik handiena metatu zuten. Gordailu pribatuak, bestalde, 86.815 milioi euro inguru izan ziren, bigarren erregistrorik onena, beste behin ere ageriko gordailuek sostengatu zutena, sektore pribatuak egindako ezarpenen %91,2 metatu baitzuten. Sektore pribatuak kontratatutako eperako gordailuek berriro galdu zituzten jarraitzaileak, eta 7.637 milioi euro izan ziren guztira, 1990eko lehen hiruhilekotik izan duten kopururik txikiena.

Kredituen eta gordailuen alderaketa. BPGaren %
32. irudia




Iturria: Espainiako Bankua eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Gordailuen gorakada berri horri esker, EAEko ekonomiak saldo positiboa izan zuen ekonomiaren finantzaketan esku hartzen duten banku sistemako tresna nagusien artean: kredituak eta gordailuak. Zehazki, 2021ean, gordailuek ia 26.000 milioi eurotan gaintu zituzten kredituak, errekor berri bat.

Kredituen bilakaera
33. irudia


Arlo publikoari emandako kredituak. Aldakuntza tasak




Arlo publikoari emandako kredituak. Milioi euro



Arlo pribatuari emandako kredituak. Aldakuntza tasak



Arlo pribatuari emandako kredituak. Milioi euro



Iturria: Espainiako Bankua.

Kredituen bilakaerari dagokionez, likidezia beharrak finantzatzeko funtsen eskaerek gorakada handia izan zuten 2020ko bigarren hiruhilekoan, osasun krisiak eragindako murrizketen ondorioz. Ondoren, banku maileguren eskariak beheranzko joerari eutsi dio 2021eko azken hiruhilekora arte. Itxura guztien arabera, enpresa batzuek 2020an metatutako likidezia koltxoien zati bat erabili dute, eta beste batzuek finantzaketaren zati bat errenta finkoko banku-maileguekin ordezkatu dute, eta horrek kredituen eskaria murriztea eragin du. Familiek ere antzera jokatu zuten. Gastu berrietako batzuk pandemian pilatutako aurrezkiarekin finantzatu dira, eta ziurgabetasunaren ondorioz, etxeko kontuak onbideratzen jarraitu dute.

Horregatik guztiagatik, EAeko eragileen kreditu osoa %0,1 baino ez zen hazi 2021ean, zorpetze publikoaren hazkundera bultzatuta (%15,8), pribatua %1,9 murriztu baitzen. Izan ere, sektore pribatuaren zorpetzea txikiena izan zen 2004tik, eta sektore publikoarena, berriz, maximo berri bat.


Interes tasen igoerak analisi hori guztia alda lezake, beraren hedapen uhina ekonomiaren geruza guztietan sartuko baita, erremediorik gabe. Alde batetik, familiek gehiago ordainduko dute beren kredituengatik –gordailuengatik askoz gehiago jaso gabe–, eta horrek familien unitateek zorrak ordaintzeko duten gaitasuna okertzea ekar lezake. Halere, tasen igoera neurritzkoa bada, hasiera batean eurogunean espero dena bezala, familiengan eragin ez oso esanguratsua izan lezakeen, neurri handi batean, tasa finkoko hipotekek hartu duten pisuari esker. Izan ere, 2021eko hasieratik, tasa finkoan sinatutako hipoteken kopurua handituz joan da, eta 2022ko lehen hiruhilekoan, argitaratutako azken datua hori baita, hipoteka guztien %72,3 izan da. Bestalde, enpresei ere gehiago kostatuko zaie finantzaketa lortzea, eta Estatuari are zailagoa izango zaio pandemiatik jasotako zorpetze handia murriztea eta kontu publikoak koadratzea.

Izan ere, interesak ordaintzeko karga aurtengo uztaileko ezarritako tasen igoera baino askoz lehenago hasi da. Espainiako Bankuaren apirileko azken datuen arabera, ETEetarako kreditu berrien interes-tasa –250.000 eurorainokoa– %2,91raino igo zen, 2021eko batez bestekoaren gainera, eta kontsumorako eman berri diren kredituena %5,91koa izan zen, aurreko urteko hil berean erregistratutakoa baino apur bat handiagoa. Goranzko joera leun horretatik urrun, euriborra dago, balio minimoetatik -2021ean %0,5aren azpitik zegoena-, eta lurralde negatiboan mantendu da urte osoan, 2022ko apirilean lurralde positiboa berreskuratzera eta ekainaren erdialdean, EBZren larrialdi bileraren ondoren, %1,067ra igo da, edozein aurreikuspen aise gainditzen duen balioa. Horrela, euriborra ia hamarkada batean ikusi gabeko mailetara itzuli da; izan ere, 2012ko uztailearen 23ra jo behar da %1etik gorako maila aurkitzeko.


Euriborraren igoera horrek hipoteken urteko berrikuspenean kuotak handitzea dakar, eta Espainiako Altxorrek errentagarritasun handiagoa eskaini beharko du bere zorra inbertitzaileei saltzeko. Hala ere, oraingoz, euriborrean eta zor subiranoan ikusten diren goranzko tentsioak gorabehera, kredituaren makineriak funtzionatzen jarraitzen du, eta bankuek likidezia ugari dute, oraingoz tasa baxuetan maileguak ematen jarraitzeko.

Interes tasen bilakaera
34. irudia

12 hileko euriborra



Hipoteken interes tasak




Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Higiezin merkatua, azkenik, pandemiak gutxien kaltetutako sektoreetako bat izan zen 2021ean. Prezioek (ia ez zuten eraginik izan) eta 2020an konfinamenduak eragindako aurrezkiak gorantz bultzatu zuten etxebizitzaren salerosketa. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak argitaratutako estatistiken arabera, 2021ean 25.303 eragiketa egin ziren, 2020an baino %23,4 gehiago, eta 2007ko mailetara itzultzea dakar, higiezinaren boom betean. Beraz, adreilua babes balio gisa aldarrikatzen da, krisi garaian erosteko balioaren galerari aurre egiteko joera gutxi duten inbertitzaileentzako aukera bat, eta oraindik merkatuetako prezio merkeak aprobeztatu nahi dituzte, inflazioaren etengabeko hazkunderaren aurrean gorantz amaituko dutenak, zalantzarik gabe.


Horrek guztiak eragin zuzena izan zuen hipoteken merkatuan. INEren datuen arabera, 20.597 hipoteka sinatu ziren iaz Euskadin. 2010. urtetik ez zen hainbeste eragiketa erregistratu. Hipoteken batez besteko zenbatekoari dagokionez, azkenik, urte osoan prezioa %13,7 igo zen 157.222 eurora arte, 2008tik izan duen baliorik altuenera, alegia.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera. Mila 35. irudia

Formalizatutako hipotekak



Formalizatutako hipoteken zenbatekoa




Iturria: INE.

2.2 Zerga politika bultzatzea


2021ean, politika fiskalak izaera hedakorri atxiki zion ekonomia aurreratuetan, eta tonu apalagoa, berriz, gorabidean dauden herrialdeetan. Lehenengoan artean, osasun alorreko krisiak irautearen ondorioz, 2020an hartutako gastu eta diru sarreren neurri asko berritu egin ziren, eta, hori dela eta, zor publikoak eta defizitak nabarmen handitu ziren. Bilakaera hori ez dator bat garapen bidean dauden ekonomietan bi aldagai horiek izan duten hazkunde neurritsuagoarekin; izan ere, pandemiari aurre egiteko maniobra marjina txikiagoa izan zen.

Defizitaren eta zor publikoaren bilakaera
36. irudia

Defizit publikoa BPGaren %



Zor publikoa BPGaren %



Iturria: NDF.

2020ko martxoan, Europako Batzordeak laguntzen denbora markoa aldatu zuen, pandemiari eman beharreko erantzun ekonomiko eta soziala egungo benetako beharretara egokitzeko helburu nagusiarekin. Hori horrela, enplegua eta produktibitatea zaintzen jarraitu nahi zen, bai eta negozioen kaudimena indartu ere. Horretarako, ezarri ziren laguntzak aurrerakin itzulgarri, mailegu, berme edo bestelako diru laguntza zuzen bihurtzeko aukera sartu zen. Jarraian, bost laguntza taldeak zehazten dira:

- i) Zuzeneko diru laguntzak, zerga abantaila selektiboak eta aurrerakinak: Estatu kideek enpresa bati gehienez 800.000 euro emateko planak ezarri ahal izango dituzte, likidezia premia larriei aurre egiteko.
- ii) Enpresek bankuetatik hartutako maileguetarako estatu bermeak: Estatu kideek estatu bermeak eman ahal izango dituzte, bankuek maileguak behar dituzten bezeroei ematen jarraituko dutela bermatzeko.
- iii) Enpresei diruz lagundutako mailegu publikoak: Estatu kideek enpresei interes tasa apaleko maileguak eman ahal izango dizkiete. Mailegu horiek inbertsioaren eta lan kapitalaren berehalako beharrak asetzen lagun diezaiekete enpresei.
- iv) Estatuak ekonomia errearlari ematen dion laguntza bideratzen duten bankuentzako babesak: Estatu kide batzuek bankuek dituzten kreditu gaitasunak aprobetxatzeko eta

enpresei laguntzeko kanal gisa erabiltzeko asmoa dute, bereziki enpresa txiki eta ertainei laguntzeko. Markoak argi uzten du laguntza hori zuzeneko laguntzat hartzen dela bankuen bezeroentzat, ez bankuentzat berentzat, eta bankuen arteko lehiaren gutxieneko distortsioa bermatzeko orientazioa ematen du.

v) Epe laburreko esportaziorako kreditu aseguruak: markoak malgutasun gehigarria ematen dio zenbait herrialde negoziak ezin daitezkeen arriskuak direla frogatzeko moduari, eta, horri esker, Estatuak epe laburrerako kreditu aseguruak ematen dio esportazioari, beharrezkoa denean.

2020ko martxotik, Europako Batzordeak sei aldaketa egin ditu Estatuak laguntzei buruzko denbora markoan; azkena, 2021eko azaroaren 18an, eta indarraldia beste sei hilabetez luzatu du, 2021eko abenduaren 31tik 2022ko ekainaren 30era. Osasun krisiak bere horretan jarraitzen duenez eta 2020ko lehen erdian hartutako zerga neurriak mugaeguneratu direnez, lehenago hartutako neurriak luzatu egin dira, eta herrialde gehienetan hornidura gehigarriak sartu dira.

Zehatzago adierazita, euroaren eremuan, neurri berrien artean nabarmendu ziren enpresei laguntzeko hornidura gehigarriak, laguntza programa osagarriak sortuz, eta dauden eskemak indartu eta zabalduz. AEBetan, tamaina handieneko neurriak familientzako zuzeneko laguntzetara bideratu ziren; Erresuma Batuan, berriz, enpleguari laguntzeko hornidura berriak eta familiei laguntzeko neurri gehigarriak bideratu ziren.

Enpresen likidezari laguntzeko neurrien barruan, aipatutako ekonomia guztietan abal publikoen programak luzatu ziren, itzultzeko epe batzuk luzatu ziren eta sartzeko baldintzak lasaitu ziren. Hedapen horien ondorioz, berme publikoen programak 2021eko maiatzera arte egon ziren indarrean AEBetan, ekainera arte Alemanian eta abendura arte Erresuma Batuan, Italian, Espainian eta Frantzia. Horretaz gain, ezarritako jardueren artean, garrantzi handiagoa hartu zuten enpresentzako laguntza espezifikoek, EBren denbora markoaren barruan emandakoek. Horien helburua da pandemiak gehien kaltetutako sektoreetara bideratzea laguntzak. Horregatik, batez ere hegazkingintza eta automobilgintza sektoreetara jo zuten, eta Alemaniako gobernuak emandakoak izan ezik, normalean mendeko maileguak eta bermeak izan ziren, kapitaleko zuzeneko partaidetzak baino gehiago. Era berean, herrialde bakoitzeko langabezia sorospen espezifikoak hedatu ziren.

Espainiaren kasu zehatzean, 2021eko martxoan 11.000 milioi euro gaitu ziren (BPGaren %1) enpresen eta autonomoen kaudimena babesteko, eta autonomia erkidegoak arduratuko dira diru

hori ezartzeaz. Diru kopuru horretatik 7.000 milioi zuzeneko laguntza lerro berri bati dagozkio, eta horrek gastu finkoak eta zorrak ordaintzeko balioko du; 4.000 milioi, berriz, enpresen zorra berregituratzen eta enpresak birkapitalizatzen laguntzeko erabiliko dira. Bestalde, ezinbesteko kausa batean oinarritutako aldi baterako lan erregulazioak 2022ko martxoaren 31ra arte luzatu ziren.

Halaber, eurogunean, Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren ihes klausularen luzapenak, 2020an aktibatu baitzen, mesede egin zion zerga politikari. Europar Batasunaren Egonkortasun eta Hazkunde Ituna 1997an sartu zen Ekonomia eta Diru Batasunaren hirugarren fasearen zati gisa. Euroa zirkulazioan jarri ondoren, Batasuneko finantza publikoak sasoi onean mantentzea zen bere helburua. Itun horretan jasotako arauen artean, gehiegizko defizitaren prozedura dago, zeinak ezartzen baitu aurrekontu defizita ez dela BPGaren %3 baino gehiago izan behar, eta zor publikoa, berriz, ez dela BPGaren %60 baino handiagoa izango. Betebehar horiek betetzen ez zituzten herrialdeek EBko Kontseiluak ezarritako beharrezko gomendioak aplikatu behar zituzten, haiek ezarri duen epearen barruan. Gomendio horiek gauzatzen ez badira, Estatu kideak Kontseiluak ezarritako zehapen ekonomiko bati egin beharko dio aurre, Batzordearen gomendio batean oinarrituta.

2009. urtean Europar Batasunak aurre egin behar izan zion zor krisiaren ondoren, 2011. urtean Batzordeak Itunean erreforma bat sartzeari erabaki zuen. Itun hori *Six-pack* izenez ezagutzen da, eta zerga zaintza indartzeko sei erreformako multzoa da. Horien artean, ihes klausula orokorra ezarri zen. Horrek aukera ematen dio Estatu kideari epe ertaineko aurrekontu helbururanzko doikuntza ibilbidetik aldi baterako baztertzeko, baldin eta eragindako Estatu kidearen kontroletik kanpo badago eta eragin handia badu administrazio publikoen finantza egoeran edo euroaren eremuko edo Batasun osoko krisi ekonomiko larriko aldietan. 2020ko martxoan, aurrekaririk gabeko shock ekonomikoari aurre egiteko eta iraganeko akatsak saihesteko, hala nola austeritate garaia eta 2007ko finantza krisiaren ondoren aplikatutako murrizketak, hogeita zazpiek klausula aplikatzea erabaki zuten, eta 2021ean zehar luzatu zen, eta, gerra gatazkaren ondorioz, 2022an eta 2023an ere mantentzea aurreikusten da.

Arau fiskalen etetearen luzapenak oxigeno baloi gisa balioko du errusiarren inbasioaren ondorioek tenkatuta dauden Europako ekonomientzat. Neurri horren hedapenak adostasun politikoa du EBn, eta tarte handiagoa emango die Estatu kideei gerraren ondorio ekonomikoari aurre egiteko. Izan ere, EBko krisiaren denbora markoaren barruan, Estatu kideek milioi askoko estatu laguntzak eman dituzte energiaren prezio altuak, besteak beste, kaltetutako familiei eta enpresei laguntzeko.

Zehazki, Errusiak Ukraina inbaditu izanaren testuinguruan ekonomia babestera bideratutako Estatuko laguntza neurriei buruzko denbora markoak hiru laguntza mota jasotzen ditu:

1. Laguntzaren zenbateko mugatuak: Estatu kideek berehala sartu ahal izango dituzte 35.000 eurorainoko diru laguntza erregimenak nekazaritzaren, arrantzaren eta akuikulturaren sektoreetan krisiak kaltetutako enpresa bakoitzeko, eta 400.000 eurorainokoak krisiak gainerako sektoreetan eragindako enpresa bakoitzeko. Ez da beharrezkoa laguntza hori energiaren prezioen igoerarekin lotuta egotea, krisiak eta Errusiaren aurkako neurri murriztaileek hainbat modutan eragiten baitiote ekonomiari, baita hornidura katearen etete fisikoengatik ere. Laguntza hori edozein modutan eman ahal izango da, zuzeneko diru laguntzak barne.
2. Likideziari laguntzea, estatu berme eta mailegu hobaridun gisa: Estatu kideek eman ahalko dute: i) diruz lagundutako estatu bermeak eman ahal izango dituzte, bankuek egungo krisiak eragindako enpresa guztiei maileguak ematen jarraitzen dutela zaintzeko; eta ii) interes tasa hobaridunak dituzten mailegu publiko eta pribatuak.
3. Energiaren prezio garestiak konpentsatzeko laguntzak: Estatu kideek zati batean konpentsatu ahal izango dituzte enpresak, bereziki energia asko kontsumitzen dutenak, gasaren eta elektrizitatearen aparteko prezioen igoeretatik eratorritako kostu gehigarriengatik. Laguntza hori edozein modutan eman ahal izango da, zuzeneko diru laguntzak barne. Onuradun bakoitzeko laguntza orokorrak ezingo du gainditu diruz lagun daitezkeen kostuen %30, gehienez ere bi milioi euro une jakin batean. Enpresa batek ustiapen galerak dituenean, baliteke beste laguntza bat behar izatea jarduera ekonomiko baten jarraipena bermatzeko. Horretarako, Estatu kideek gehienez 25 milioi euroko muga horretatik gorako laguntzak eman ahal izango dizkiete energia kontsumitzaile handiei, eta 50 milioi eurorainokoak sektore jakin batzuetako enpresei, hala nola aluminioa eta beste metal batzuk, beira zuntzak, pasta, ongarriak edo hidrogenoa eta oinarrizko produktu kimiko ugari ekoizteari.

Aldi berean, eta Bruselak ezarritako jarraibideen arabera, herrialde zorpetuenek trantsizio berdea eta digitala gauzatzeko behar diren inbertsioekin jarraitu beharko dute, Europako Berreskuratze Planean oinarrituta. Prozesu horretan, Next Generation funtsek berebiziko garrantzia izango dute; izan ere, Espainiak dagoeneko 10.000 milioi euroko lehen ordainketa jaso du, 2021ean, funts horietatik. Espainia izan da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Batzordearen (PRTR) zuzeneko finantzaketa jaso duen lehen herrialdea.

2.3 Euskal sektore publikoaren erantzuna

Zerga itunduak

EAEEn, 2021ean, zergen bidez bildutako diruaren datuek baieztatu egin zuten jarduera ekonomikoa suspertzeko fase batean sartu zela, koronabirusak eragindako beherakadaren ondoren. Jarduera ekonomikoaren hobekuntza horrek, mugak pixkanaka irekitzeak eta eskualdeetako konfinamenduak zein urruntze sozialeko neurriak bertan behera uzteak lagunduta, 2021ean zerga sarrerak zifra historikoetara iristea ahalbidetu zuten, bai kalkulu baikorrenak, bai 2019. urtean ezarri zen diru bilketaren aurreko errekorra gaindituz. Zehazki, 2021eko zerga itxiera, foru aldundiek eman dituzten datuen arabera, 15.963 milioi eurora arte igo zen, hau da, 2020. urteko emaitza baino %14,4 gehiago eta 2019koa, hots, pandemia aurreko azken ekitaldikoa, baino %3,2 gehiago.

Diru bilketaren %14,4ko igoera horren arrazoia ez dira bakarrik izan EAEko ekonomiaren susperraldi partziala eta prezioek 2021eko azken hilabeteetan izan duten igoera bizia, bi arrazoi horiek BPG nominala %8,1 igo baitzuten aurreko urtearen aldean. Horiez gain, Bizkaian 2019ko akta bakarren bidez aparteko diru sarrera batzuk lortu ziren, batez ere BEZari, MOSS/OSS (leihatila bakarrek erregimena, ingeleseko bere siglen arabera) BEZaren erregimena Estatuarekin ituntzeari eta 2020an atzeratu ziren diru sarrera batzuk orain bildu zirelako. Diru sarrera horiek pandemian zehar kalteak gutxitzeko eta enpresei likidezia gehiago emateko, beste arrazoi batzuen artean, hartu ziren neurrien ondorioz atzeratu ziren eta 2021ean jaso zen dirua.

Egia bada ere diru bilketaren dinamismoa nahiko orokorra izan zela, zeharkako zergapetzeak zuzeneko zergapetzeak baino portaera hobea erakutsi zuen, eta horrela berresten du zergen banakatzeak. Zuzeneko zergen artean eta PFEZren azterketarekin hasita, zerga horren diru bilketa %8,2 hazi zen eta 400 milioi euro baino gehiago handitu zen, balio absolututan, aurreko urtearekin alderatuta. 2021ean enpleguak izan zuen bilakaera positiboak azaltzen du, hein handi batean, erregistro hori; izan ere, lanaren atxikipenak %6,1 areagotu ziren 2020arekin alderatuta, inbertsio funtsen ondare irabazien gaineko atxikipenen aparteko igoerak ahaztu gabe (%58,2). Era berean, aipatu behar da igoera hori gainerako zerga figurena baino txikiagoa izan zela, eta horrek zerikusia duela 2020an zerga horren bilketaren beherakada txikiagoa izatearekin, errenta publikoen bilakaerak (soldata publikoak, pentsioak eta aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen lotutako transferentziak) eragin positiboa izan baitzuen.

Zuzeneko zergekin jarraituz, sozietateen gaineko zergaren diru bilketaren bilakaerak PFEZaren bilketaren ehuneko igoerak gainditu zituen eta %10,8ko aldakuntza tasa erakutsi zuen. Aipatu behar da aldaketa tasa esanguratsu hori pandemiak eragin handia izan duen zenbatekoen aldean kalkulatzeko dela, eta, diru bilketa aurreko ekitaldikoaren aldean nabarmen hazi den arren, ez dela lortzen 2019an bildutako zenbatekoak gainditzea, zenbateko horiek baino %11,4 txikiagoa izan zelako.

Zuzeneko zergapetzearen parte diren gainerako figuretatik, 2021ean nabarmentzekoa da ondorengotza eta dohaintza zergaren bilketaren igoera, 2020ko eta 2021eko covid-aren gehiegizko hilkortasunengatik, eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioz, sozietateen mozkinen banaketan izandako susperraldiari esker.

Halaber, 2021ean, argindarraren prezioarekin lotutako neurriak nabarmendu behar dira, merkatuko prezioen igoera handiak direla eta. Adibide argia da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, bi hiru hilekoko sortzapena kendu baitzen, nahiz eta horietako batek bakarrik eragin zion 2021eko bilketari, %17,1 jaitsi baitzen 2020.arenarekin. Era berean, elektrizitatearen gaineko BEZaren tasa %21etik %10era jaitsi zen kontratatutako potentzia 10 kWh-tik beherakoa duten kontratuetan (etxeko kontsumoa, funtsean).

BEZa, zeharkako zergapetzearen osagai nagusia baita, izan zen diru bilketak portaera hobea izatearen erantzule nagusia. Zehazki, %21,2ko hazkunderarekin, erregistrorik positiboak eskuratu zituen zerga izan zen, familien kontsumoan izandako susperraldiari eta obra berrien salerosketen bilakaera onari esker, 2021ean etxebizitzaren prezioaren igoerarekin batera. Orobat, lehenago ere adierazi den bezala, gorakada hori, hein handi batean, ezohiko diru sarrerek eragin zuten. Batetik, hidrokarburoen merkaturatzeari buruzko auzi baten ondorioz Bizkaiko Ogasunari egindako ezohiko transferentzia baten ondoriozko diru sarrerak. Bestalde, merkataritza elektronikoaren eta zerbitzu digitalen gaineko MOSS/OSS BEZa Estatuarekin hitzartu izana.

Geroztik, elektrizitatearekin lotutako neurriak zabaldu ziren, eta elektrizitatearen gaineko zerga berezian tasa jaitsi zen (%5,11tik %0,5era), diru bilketa %9,1 jaitsiz. Tabakoaren laboreen gaineko zergak ere bide negatiboarekin jarraitu zuen (-%9,8). Alkoholaren eta garagardoaren kontsumoa zergapetzen duten zergen bilketari dagokionez, zerga horien aldaketak oso positiboak izan ziren, pandemiaren hedapenaren aurkako osasun neurrien aplikazioak gehien kaltetutako aldiarekin konparatzen baitira: konfinamenduak, edukiera-mugak, etab.

Zerga itunduen bilakaera
29. taula


Mila euro

	Diru-bilketa		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2021	2016	2017	2018	2019	2020	2021
PFEZ	6.114.393	4,1	6,0	5,4	5,7	-1,1	8,2
Sozietateen gaineko zerga	1.155.151	-3,5	10,9	32,8	-11,7	-20,0	10,8
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	62.212	95,6	-	-2,4	59,8	-2,0	22,5
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	179.944	-2,4	6,2	12,0	-7,4	-0,1	47,3
Ondarearen gaineko zerga	171.456	6,8	1,2	13,3	-9,3	5,7	-3,2
Kreditu entitateen gordailuen g/ zergak	27.509	-0,4	2,1	-1,0	-1,6	14,3	-0,4
Energia elektrikoaren ekoizpenaren g/ zerga	24.673	-13,9	2,2	6,1	-32,0	25,6	-17,1
ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA	7.735.340	3,5	7,2	10,2	1,6	-4,1	8,9
BEZaren bertoko kudeaketa	6.256.924	1,4	20,4	-3,3	3,3	-14,3	21,2
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	182.440	19,3	19,0	10,8	1,7	-13,7	29,9
Egintza juridiko dokumentatuen g/ zerga	40.945	-10,2	-0,9	20,9	1,1	-24,6	14,3
Garraiobide jakin batzuen g/ zerga bereziak	20.279	8,6	21,1	20,0	7,9	-42,9	26,2
Fabrikaz. zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.521.390	2,3	2,5	-0,7	12,6	-17,1	14,6
Aseguru sarien gaineko zerga	104.638	2,4	2,0	4,6	-0,3	1,1	31,2
Joko jardueren gaineko zergak	6.591	20,6	20,5	11,0	-5,9	10,0	-3,8
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	3.207	-16,3	65,2	-7,6	-20,8	-7,1	13,4
Iraungitako zergak	-77	15,0	20,6	-23,5	70,2	96,3	25,9
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	8.136.336	1,9	16,4	-2,3	5,0	-14,8	20,1
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	91.533	4,7	-11,5	11,0	-7,5	-30,3	19,7
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	15.963.209	2,7	11,8	3,5	3,3	-9,8	14,4

Iturria: Foru aldundiak.

Aitzitik, prezio energetikoen gorakadak eta jarduera ekonomikoaren suspertzeak, mugikortasunaren murrizketak ezabatzearekin batera, zerga berezien osagai nagusiaren hazkundera, hidrokaburoen gaineko zergarena, gorarazi zuten, %18,6 igo baitzen. Hala, zerga berezi guztien baterako bilketa %14,6 handitu zen, nahiz eta oraindik ere 2019koa baino bilketa maila txikiagoa izan.

Zerga nagusien diru bilketa 2005-2021. BPGaren %
37. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta foru aldundien datuekin.

Zerga bilketa BPG nominala baino askoz gehiago hazi zela kontuan hartuta, presio fiskala nabarmen handitu zen, eta serie historiko osoko erregistrorik handiena markatu zuen, BPGaren %20,7an kokatu baitzen, 2007an erregistratutako balioetik (%20,6) oso hurbil. Zuzeneko zergan (PFEZ eta sozietateen gaineko zerga) izan zuten igoera ez zen nahikoa izan BPGarekiko beren pisua handitzeko, eta, aurreko urtean bezala, %7,9an eta %8,5ean mantendu ziren, hurrenez hurren. Aitzitik, BEZaren bilketan izandako gorakada handiaren ondorioz, BEZaren pisua BPGarekiko %8,1ean kokatu zen, eta, beraz, PFEZa berriro gairatu zuen, 2012tik gertatzen ari zen bezala, aurreko urteko salbuespen bakarrarekin.

Aparteko diru sarrerak

2021eko ekitaldian, zerga itunduak alde batera utzita eta aurreko ekitaldian bezala, pandemiarekin lotutako ezohiko diru sarrerak jaso dira Estatutik eta Europatik (MRRko funtsak).

Alde batetik, covid-19aren krisiak erkidegoetako finantzetan izan dituen ondorioak arintzeko helburuarekin, Estatuak, 2020an egin zuen bezala, erkidego eta hiri autonomoen artean 13.486 milioi euroko aparteko funtsa banatu zuen. Diru kopuru horretatik, Euskadiri 645 milioi euro iritsi zitzaizkion. Era berean, Estatu mailan hau ere, finantza kaudimena eta enpresen bideragarritasuna laguntzeko ezohiko neurrien artean –2021eko martxoan onartu ziren–, 7.000 milioi euroko zuzeneko laguntza lerro bat ezarri zen, autonomia erkidegoek kudeatu beharrekoa, krisiak gogorren jo dituen profesional autonomoei eta sektoreetako enpresei zuzendua, baldin eta haien diru sarrerak 2019arekin alderatuta %30 baino gehiago murriztu baziren. Hasiera batean Euskadiri 218 milioi euro egokitu bazitzaizkion ere, diru laguntzak eskuratzeko ezarri ziren baldintzen ondorioz emandako diru guztia 95 milioi eurokoa izan da.

Beste aldetik, eta Next Generation Programaren babesean, 2021ean hasi ziren MRRtik datozen lehen zenbatekoak jasotzen. Europako funts horren dirua Estatuak banatzen du, Europako erakundeek onetsitako berreskuratze, eraldatze eta erresilientzia plana (PRTR) gauzatzeko helburuarekin. PRTR 30 osagaitan proiektatzen da, herrialdea modernizatzeko inbertsioetan eta erreformetan koherenteak diren proiektuak artikulatzeko.

Eusko Jaurlaritzak 2021ean jaso zituen 444 milioi euroetatik, diru sarrerarik handiena etxebizitza birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko planaren osagaiari (PRTR) lotutakoa izan zen, handik 102 milioi euro jaso zirelako. Ondoren, mugikortasun jasangarriko, seguruko eta hiri inguruneetan eta metropolietan konektatutako talka plana, 67 milioi euroko finantzazioa izan baitzuen. Orobat, nabarmentzekoak dira gaitasun digitalen plan nazionalako 47 milioi, lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusiborako politika publiko berrietarako 43 milioi, eta zainketen ekonomiarako eta gizarteratze politikak indartzeko txoke planerako 33 milioi. 2022ko ekainera arte, beste 83 milioi euro jaso dira. Guztira 527 milioi.

Eusko Jaurlaritzak zuzenean kudeatutako baliabide horiei, alde batetik, toki erakundeek Estatutik zuzenean jaso dituzten Europako funtsak eta, beste aldetik, Estatuko Administrazio Orokorrak zuzenean ebatzitako deialdien bidez banatu diren funtsak gehitu behar zaizkie.

Estatuko kudeaketaren figura nagusietako bat Ekonomia Berreskuratzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak (PERTE) dira. Estatuko ekonomiaren hazkundera ekonomikorako, enplegurako eta lehiakortasunerako arraste ahalmen handia duten proiektu estrategikoak dira, lankidetzaren publiko-privatuaren osagai handia dutenak eta administrazioekiko zeharkakoak. Nahiz eta gaur egun onartuta dauden hamaika PERTE gehienak (ibilgailu elektrikoaren eta konektatuaren garapena;

abangoardiako osasuna; energia berriztagarriak, hidrogeno berriztagarria eta biltegitratzea; nekazaritzako elikagaiak; hizkuntzaren ekonomia berria; ekonomia zirkularra; ontzigintza; industria aeroespaziala; uraren zikloaren digitalizazioa; mikroelektronika eta erdieroaleak; ekonomia soziala eta zainketarena), oraindik ere ebazpen fasean dauden, aurreikus daiteke EAEko industriak eremu jakin batzuetan duen lehiakortasun maila altuak, hala nola ibilgailu elektrikoa eta konektatua, abangoardiako osasunean eta energia berriztagarrietan, batzuk aipatzearen, Europako baliabide asko mekanismo horren bitartez eskuratzea ahalbidetuko duela.

Gaur egun (2022ko ekainean), Euskadiri esleitutako MRRaren baliabideak 1.090 milioi eurokoak dira 2021-2023 aldirako; horietatik 856 milioi Eusko Jaurlaritzak kudeatuko ditu, 143 milioi Estatuak eta 90 milioi toki erakundeek.

Azken horiei dagokienez, EAEko 185 udalek jaso dituzte baliabide horiek. Zenbateko handiena MITMAk (Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioa) deitutako programari dagokio. Programa hori diru laguntzak ematen dizkie udalei emisio gutxiko eremuak sortzeko eta hiri garraioaren eraldaketa digitala eta jasangarria garatzeko. Programa horren bidez, 65 milioi euro jaso dira.

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien jarduera ekonomikoa

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak normaltasunerako igarobide gisa planteatu ziren, EAEko ekonomiaren susperraldia lortzeko asmoz. Horretarako, bi tresna erabili ziren. Batetik, Next Generation EU 2021-2026 funtsaren MRRtik iritsiko liratekeen diru sarrerak, eta, bestetik, ahalegin ekonomiko endogeno handia egingo luketena, batez ere aurrekontuaren defizita estaltzeko zor publikoaren arloan.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2020ko irailean hartutako akordioak %2,2ko erreferentziazko tasa ezarri zuen defiziterako, eta zor publikoak ez zuen BPGaren %16,9ko erreferentziazko tasa gainditu behar 2021. urtean. Aurrekontuetan jasotako agertokia 1.784 milioi eurokoa izan zen zorpetze garbian, eta 767,8 milioi euroko amortizazioak egin ziren; beraz, zorpetze gordina 2.552 milioi eurokoa izango zela planteatu zen.

Zerga itunduen bitartez eskuratutako diru bilketa 2021eko aurrekontuak egin zirenean aurreikusitakoa baino %12 handiagoa izan zen (1.713 milioi euro), hau da, hasieran aurreikusitako ekarpena baino 1.210,6 milioi euro gehiago. Estatutik jasotako aparteko diru sarrerekin batera, Eusko Jaurlaritzaren diru sarrera arruntak BPGaren %15,8ra igo ziren, zifra historikoa, 2020an baino ia bi puntu gehiago.

Osasun krisiak irautearen ondorioz, 2021ean bultzada fiskalari eutsi zitzaion, Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren ihes klausularen luzapenak lagunduta. Baina urte horretan pandemiak gehien kaltetutako agenteen errentei eta finantza posizioari emandako babesa modu selektiboagoan bideratu zen; izan ere, osasun arloko krisiari eusteko neurriak gero eta fokalizatuagoak bihurtu ziren, eta, beraz, eragile multzo gero eta txikiagoari eragiteko joera izan zuten.

Mantentze horren ondorioz, 2020. urtean hartu ziren gastu eta sarrera neurri asko berri ziren geroago ere. Eusko Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontua pandemiak baldintzatu zuen hasieratik, eta, beraz, berriro sartu ziren covid-aren aurkako neurriak. Azkenean, 740 milioi euro bideratu ziren neurri horietara, hau da, 2020an zuzendu zirenak baino 75 milioi euro gehiago, hazkunde tasa %11 izan zelarik.

Eusko Jaurlaritzaren gastua koronabirusaren krisiari erantzuteko.

30. taula

	Milioi euro		
	2020	2021	Totala
Osasun sistema indartzea	432.001	361.349	793.350
Enpresei eta autonomoei zuzendutako neurriak	111.885	219.023	330.908
Likideziari laguntzeko neurriak	22.172	17.939	40.111
Kaudimenari laguntzeko neurriak (zuzeneko laguntzen covid lerroa)	0	95.231	95.231
Sektore espezifikoei laguntzeko neurriak	89.713	105.852	195.565
Enplegua babesteko eta langabeei laguntzeko neurriak	18.148	245	18.393
Pertsonei eta etxeei laguntzeko neurriak	34.963	31.133	66.097
Hezkuntzaren sektoreari laguntzeko neurriak	67.011	127.784	194.795
GUZTIRA	664.007	739.534	1.403.542

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datuekin. Eusko Jaurlaritzak.

Osasun arloko egoera hobetzeari esker, osasun materialaren hornidurara, ospitaleko egonaldien kostura eta osasun inbertsioetara bideratutako covid neurrien baliabideak murriztu ziren, baina osasun arloko nahiz hezkuntza arloko langile beharrak areagotu ziren. Halaber, baliabide gehiago bideratu ziren enpresen kaudimenari laguntzeko neurrietara (covid linea, autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzak), baita pandemiak bereziki zigortutako sektore ekonomiko jakin batzuetara bideratutakoetara ere (lehen sektorea, merkataritza, turismo eta ostalaritza sektorea, garraioa eta kultura sektorea), eta nabarmen jaitsi ziren industriara eta berari lotutako zerbitzuetara bideratutakoak.


Gastu arruntek gorakada handia (%8,8) izan zuten arren, termino erlatiboetan Eusko Jaurlaritzaren ahaleginak bere horretan jarraitu zuen, eta, beraz, diru sarrera arruntekin alderatzean, aurrezki gordina pandemiaren aurreko mailetara igo zen (BPGaren %1,7).

2021eko ekitaldian zehar, bai diru sarreren bai gastuen aurrekontu exekuzioaren bilakaera ikusita, eta diruzaintzako gerakinak gehitzeak lagunduta, aurrekontu orokorrekoez gain beste aurrekontu zuzkidura batzuk onartu ziren. Helburua, arau fiskalak bertan behera uztea aprobetxatuz, inbertsio publikoa sustatzea zen, Atzeraldi Handiaren ondoren egindako kontsolidazio fiskala doitzeko aldagaia izan zena eta gutxieneko mailetan zegoena.

Horrela, 2021eko maiatzean, Gobernu Kontseiluak 180 milioi euroko aurrekontu zuzkidura onartu zuen (62 milioi 2021ean eta gainerakoa 2022an eta 2023an) eskualde behartsuetan edo lehentasunezko jarduketan eremuetan (LJE) (Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea eta Aiaraldea) trakzioko proiektu batzuk dinamizatzeko, azken industria birmoldaketek gehien zigortutakoak eta pandemiaren eragin ekonomiko handiena jasan dutenak. Lurralde berriz orekatzeko jarduera hori 2021eko ekitaldian jarri zen abian, eta foru aldundiekin, udalekin eta eskualdeetako eragileekin lankidetzan gauzatuko da 2021etik 2023ra bitartean. LJEen proiektu bultzatzaileek kudeaketa arlo desberdinetan eragiten dute (industria, nekazaritza, kultura, enplegua, lanbide heziketa, osasuna, etxebizitza, trenbide azpiegiturak, etab.).

Geroztik, inbertsiorako jarduera hori irismen orokorragoko beste batekin osatu zen: 2021eko Inbertsioen Aparteko Plana, 250 milioi euroko zenbatekoarekin, 2021-2024 aldian gauzatu beharrekoa, haietatik 170 milioi 2021. urtean. Haren helburua da abian diren eraldaketak bultzatzea, besteak beste, zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sistemaren egitura teknologikoak indartzeko, bai eta hezkuntzako, osasuneko, epaitegietako edo etxebizitzako azpiegiturak indartzeko ere.

**Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2021. BPGaren %
38. irudia**




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

Plan horiek proportzio handian gauzatu badira ere, ez da gauza bera gertatu MRR funtsekin lotutako proiektuekin, horien gobernantza ez baita kudeatzen erraza, eta funtsak Euskadiko gizarte eta produkzio sarera iristeko prozesua atzeratuz. Inbertsiorako proiektuen azterketa xehatuak agerian uzten du MRRari lotutako proiektuek aurkeztu duten egikaritze arazoa, %30eko egikaritze globalarekin, eta inbertsio partiden kasuan %11ra murrizten da.

Proiektu horien egikaritze maila eskasak kapitaleko gastuen gauzatze globalean eragin du, baina ez da %70era iritsi. Horrek ezinezko egin du gauzatutako inbertsioaren maila orokorrean jauzi kualitatiboa ematea, 400 milioi eurotik gorako defizita metatuz aurrekontuan sartutako inbertsioaren eta azkenean likidatutako inbertsioaren artean. Horrela, 2021ean inbertsioari lotutako kapitaleko gastuak %13 handitu diren arren, BPGarekiko inbertsio ahalegina azken ekitaldietako maila berean mantendu da, BPGaren %1,2, eta ez du lortu Atzeraldi Handiaren aurreko maila berreskuratzea.

Eusko Jaurlaritzaren aurrezkoa, kapital gastua eta defizita 2005-2021. BPGaren %
39. irudia



Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

Eusko Jaurlaritzaren kapital eragiketen aurrezki gordinaren jokoak BPGaren %0,9ko finantzaketa ahalmena ekarri zuen 2021ean. Horrela, aurrekontuetan aurreikusitako finantzaketa beharra gaitasun bihurtu zen, batez ere diru sarrera arruntak handitu zirelako, hasieran aurrekontuan jasotakoaren aldean.


Hasiera batean, MRR proiektuei lotutako funtsek aurrekontuan duten eragina nulua da, egindako gastua bat datorrelako jasotako transferentziarekin, baina gastuaren zati bat ez gauzatzeak, 2021eko ekitaldian gertatu den bezala, zeregin garrantzitsua du dagokion ekitaldiko aurrekontu saldoan. Estatuak egindako transferentziak Eusko Jaurlaritzaren diruzaintzan sartu direla kontuan hartuta, gauzatu gabeko zatiak (diru sarreren %70) aurrekontuaren superabita BPGaren 0,3 puntu inguru handitzea ekarri du. Hazkunde hori periodifikatze kontua da; izan ere, ekitaldi batean exekutatu ez diren MMRko funtsak, Europar Batasunetik datozen beste funts batzuk ez bezala, ez dira galtzen, baizik eta datorren urteko aurrekontuan sartzen dira. Horregatik, horrek zehaztu egiten du 2021eko aurrekontu superabitaren bolumena.

Zorraren 668 milioiko amortizazioarekin (BPGaren %0,9) eta finantza aktiboen %0,1eko aldakuntzarekin, 2021eko ekitaldiko zor jaulkipenak 1.000 milioi eurotik gorako zorpetze beharrak gainditu zituen, BPGaren %1,4, aurrekaririk gabeko maila, inoiz ez baitzen gainditu 1988an lortutako BPGaren %1eko gehieneko maila. Horrela, 2021eko zor jaulkipenaren zatirik handienak Eusko Jaurlaritzaren altxortegia handitu zuen.

Portaera hori izan du lehenago ere Eusko Jaurlaritzak bere historiako hainbat unetan, hala nola iaz (%0,8) edo Atzeraldi Handiaren aurreko urteetan, baina inoiz ez hain ehuneko handian. Atzeraldi Handian kontrakoa gertatu zen: aurreko hamarkadan saneamenduarekin metatutako erreserbak zirela eta, 2009ko zorraren jaulkipena zorpetze beharraren erdia baino ez zen izan, BPGaren %4,3ra iritsi baitzen.

Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa ahalmena epe laburrerako finantzaketan oinarritu izan da beti, kantitate handiekin, zenbait ekitalditan BPGaren %1 baino askoz ere gehiago izan dira, eta 2011-2014 aldian, krisiaren ondorioz, %0,2 inguruko balioetara egokitu zen. 2015etik aurrera, berriz ere handitu egin da bere garrantzia, eta 2021ean BPGaren %0,8an kokatu da.

Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharraren analisia 2005-2021. BPGaren % 40. irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

Gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren zorraren saldo bizia 11.172 milioi eurora iritsi zen, baina BPG nominalaren hazkundera handia kontuan hartuta, termino erlatiboetan BPGaren %15,6ra jaitsi zen, 2020an baino sei hamarren gutxiago, orduan inoizko mailarik altuena eskuratu baitzen, egin zen zor jaulkipen garrantzitsuagatik eta jarduera ekonomikoaren jaitsiera handiagatik. Halaber, 2021eko zor maila hori Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan ezarritako BPGaren %16,9ko helburuaren azpitik dago. Hala, zorpetze maila txikiena duten autonomia erkidegoen artean dago kokatuta Euskadi, eta Madrilek, Nafarroak eta Kanariak soilik gainditzen dute.

2021eko zorraren jaulkipen ia osoa apirilean egindako bonu jasangarrien bosgarren jaulkipenari egokitu zitzaion, 1.000 milioi euroko zenbatekoarekin, 11 urteko eperako, eskaintza baino hiru aldiz eskari handiagoa eduki zuena eta %0,45eko kupoi finkoarekin. Hori horrela izanda, Eusko Jaurlaritzak jaulkipen mota horien alde egindako apustua sendotzen zen; izan ere, ingurumen eta gizarte proiektuei lotuta daude, finantzaketa arduratsua eta eraginkorra sustatzen dute eta Euskadiko ingurumen, ekonomia eta gizarte erronkei aurre egitea ahalbidetzen dute. Urtearen amaieran, bonu jasangarrien indarreko jaulkipenak 3.200 milioi eurokoak ziren, eta zirkulazioan zegoen Eusko Jaurlaritzaren zor publikoaren titulu guztien %48 mota horretakoak ziren (zorpetzearen %30).

Zorraren kostua eta bizi-tza
41. irudia




Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

2021ean, zorraren batez besteko kostua, hamarkada osoan bezala, murrizten jarraitu zen eta %1,26ra iritsi zen, eta horren osagarri, zorraren iraupena 8,45 urtera arte luzatu da. Merkatze horretan, EBZk aplikatzen duen diru politika hedakorraz gain, inbertitzaileek Euskadin duten konfiantzak ere lagundu du, agentzia espezializatuen kreditu kalifikazioak berretsita.

Iraupenaren igoyerari dagokionez, nabarmendu behar da 2020an 510 milioi euroko 50 urterako bonu bat jaulki zela, 2070ean epemuga izango duena. Halaber, zorraren %78 tasa finkoari dagokio, eta %22, berriz, tasa aldakorrari. Zorraren guztizko zenbatekotik %62 bonuek eta %38 maileguek osatzen dute.

Foru aldundien kasuan, 2020an, pandemiak eragindako egoera gorabehera, aurrekontu superabit txiki bat eskuratu zuten, eta 2021eko ekitaldian BPGaren %0,4ra handitu da superabit hori, azken urteetako batez besteko mailan kokatuta dagoen kopurua baita. Adierazi den bezala, diru bilketaren iguera handia izan zen, eta horrek diru sarrera arruntak BPGaren %21,7ra arte handitzea eragin zuen, eta inbertsioa ere BPGaren 0,7 punturaino igo zen, azken urteetako batez bestekoaren inguruan kokatuz, eta ez zen iritsi Atzeraldi Handiaren aurreko mailara, non BPGaren %1 gainditzen zen.

Foru aldundien aurrezkoa, kapital gastuak eta defizita 2005-2021. BPGaren %
42. irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

Azken 30 urteetan, foru aldundi guztiek oso gutxitan aurkeztu dituzte finantzaketa beharrak: hain zuzen ere, 2002an eta Atzeraldi Handian. Pandemiaren urte hauetan finantzaketa ahalmena izaten jarraitu dute, nahiz eta Estatuarekin lortutako akordioari esker, 2020an gertatzen zen bezala, beren kontuak aurrekontu defizitarekin aurkeztu ahal izan (BPGaren %0,9 eta %0,8 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren). Foru aldundiek defizitean erortzeko aukera erabaki zuten, ez baitziren toki erakundetzat hartu defizitean eta zorrean erortzeko aukerari dagokionez. Lurralde historikoek zerga ahalmen handia dutenez, krisi ekonomiko batek eragindako diru sarreren jaitsiera ezin da konpentsatu beste administrazio batzuen transferentzia arrunten bidez, eta, beraz, zorpetzera jo behar izan dezakete.

Finantzatzeko ahalmen hori gorabehera, foru aldundiek ere zorra jaulki dute, 600 milioi euro baino gehiago, BPGaren %0,8, eta finantza aktiboen eta pasiboen joko hartuta, BPGaren %0,7ko gehiegizko zorpetzea dakarte, foru altxortegiak gora eginez. Hala eta guztiz ere, foru aldundiek 2021. urtearen amaieran zuten zorra, gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera, 3.365 milioi eurokoa zen, BPGaren %4,7, eta igoera txiki bat izan zuen aurreko ekitaldiko mailarekin alderatuta. Hala ere, foru aldundiek 2013an lortu zuten gehienekoa (BPGaren %5,3) baino puntu erdi txikiagoa da.

Foru aldundien zorpetze beharraren analisia 2005-2021. BPGaren %
43. irudia




Iturria: Eustat. Sektore publikoaren aurrekontu estatistikak.

Udalen zorra, beste aldetik, aurreko urteko hazkunderaren ondoren, 2012an hasitako beheranzko bidera itzuli da, eta BPGaren %0,4an kokatu da. Guztira, administrazio autonomoaren zorra BPGaren %20,7 da.

Egonkortasun eta Hazkunderako Itunak biltzen dituen arau fiskalak bertan behera uzteak eta aztertu berri den kontu publikoen hobekuntzak euskal administrazio publikoentzako eremu fiskal berria erraztu dute, eta, horri esker, EAEko erakundeek 2022ko martxoan onartu dute 2022-2024ko Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Plana. Hainbat urtetarako inbertsio programa horrek inbertsio publikoari bultzada eman nahi dio, epe luzerako hazkunde potentziala handitzeko eta eremu pribatuak eta estrategikoak mobilizatzeko. Planak Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien baliabide propioak aktibatzea dakar, 530 milioi euro ingururen truke, Euskadi Next egitarauan jasotako proiektu eraldatzaileen zati bat abian jartzeko, MRRtik datozen Europako funtsak iritsi arte itxaron gabe.

Autonomia Administrazioaren zor publikoaren bilakaera (gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera). BPGaren %
44. irudia



Iturria: Espainiako Bankua, Ogasun Ministerioa eta INE (eskualdeko kontabilitatea).

Eusko Jaurlaritzak egindako gastuaren analisi funtzionala

Azken hamarkadan, Atzeraldi Handiaren ondorengo urteetan lortutako gastu sabaiaren egonkortzea, BPGaren %15 ingurukoa, kolokan geratu zen pandemiaren etorrerarekin eta, ondorioz, erantzun publikoaren premiarekin. 2021ean krisi ekonomiko eta sanitarioari erantzuna ematen jarraitu zen, EAEko ekonomia suspertzeko eta berreskuratzeko helburuarekin. Horrela, 2021ean, 2020an bezala, Eusko Jaurlaritzaren gastua BPGaren %16tik gorakoa izan zen.

Analisi funtzionalari dagokionez, gastuek Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren egitura bereziari jarraitzen diote hasiera-hasieratik, alderdi bakoitzaren pisuan izan diren aldaketekin, transferitutako eskumen berrien, aldizkako krisien ondoriozko aurrekontu inpaktuaren eta legealdi bakoitzean eragin handiagoa edo txikiagoa duten politika publikoen erabakien arabera.

2021ean, osasun eta hezkuntza arloetako politikek Gobernuaren bi gastu eremu nagusi izaten jarraitzen dute, bien batuketak aurrekontu osoaren %56 eta %58 arteko portzentaje bat biltzen dutelako. Pandemiaren aurreko urtearekin alderatuta, BPGarekiko pisu erlatiboa handitu egin da: osasunaren pisua %5,40 da (0,35 puntu igo da) eta hezkuntzarena, berriz, %3,94 (0,3 puntu handitu da).


Era berean, zor publikoaren partidaren zenbatekoa gutxitu izana azpimarratu behar da; izan ere, zor publikoaren jaitsiera 2020an hasi zen eta aurrekontuaren %6,4 suposatu zuen, 2018ko eta 2019ko %12aren aldean, zorraren amortizazio txikiagoaren eta interesen kostuari eustearen ondorioz. Horri dagokionez, zorraren zerbitzuaren %18 finantza gastuei dagokie, 2012an eta 2013an izan zen %53tik oso urrun, finantza krisiaren ondoren Europar ezarritako austeritate politiken ondorioz.

Bestalde, nabarmendu behar da administrazio orokorraren gastuei lotutako partidak gora egin duela, bai 2020an, bai 2021ean; izan ere, politika publiko horren zeregina boskoiztu egin da aurreko urteekiko, eta laugarren garrantzitsuena da osasunaren, hezkuntzaren eta zor publikoaren ondoren. Igoera horren arrazoia izan da, alde batetik, "COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak" ezohiko programa sartu dela, 2020 eta 2021 urteetako gastuen %3,5 eta %4,0 hartzen dituena. Bestetik, 2021ean sortutako programa berria sartu da, zeinaren bidez bideratzen baitira Estatutik MRRren bidez jasotako Europako funtsen zati bat.

Justiziako gastuaren barruan, kualitatiboki aipatu behar da 2021ean espetze politikaren arloan transferitutako eskumen berria, 8,2 milioi euroko zenbatekoarekin, eta kuantitatiboki etorkizuneko Bilboko Justizia Jauregia (egungo Mapfre eraikina) 41 milioi euroan erostea, eskura dauden bulego judizialak berrantolatzeko. Bestalde, nabarmendu behar da, 2020ko beherakadaren ondoren, etxebizitza politiken pandemiaren aurreko zifretara (200 milioi) eta turismoko politiketara (21 milioi) itzuli dela. Aitzitik, industria politikak, 2020an egindako bultzadaren ondoren (248,6 milioi), bere gastua murriztu eta moderatu du, 140,7 milioiko zenbatekora iritsiz, 2019koaren antzeko zifretara itzuliz.

Gizarteratzeko funtzioari lotutako gastuak, diru sarrerak bermatzeko politikari dagozkionak, BPGaren %0,57 inguruan mantentzen dira, eta enplegu politikak, berriz, %0,33an kokatu dira. Aurreko ekitaldietan nabarmentzen ziren beste partida garrantzitsu batzuk, hala nola euskal Y-tik eratorritako kudeaketa kredituak, nabarmen murriztu dira eta 34 milioi euro besterik ez dira izan orain.

Eusko Jaurlaritzak gauzatutako gastuaren bilakaera (2005-2021). BPGaren % 45. irudia



Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritza; Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Erregulazio ekonomiko orokorrean, Finkatuz funtserako 50 milioi euroko zuzkidura nabarmentzen da, diruzaintzako gerakinen kargura, Finantzen Euskal Institutuak kudeatuta. Horrela, aipatutako finantza tresnak 210 milioi zituen 2021ean, legegintzaldian zehar kapitala handitzen joateko aurreikuspenarekin, 300 milioira iritsi arte. Helburua Finantzen Euskal Institutuaren maniobra marjina indartzea zen, EAEko finantza politika artikulatzeaz arduratzen baita, eta sustapen eta garapen ekonomikoko politikak aktibatu ahal izatea, horiek baitira Euskadiren eraldaketa bidea markatzen dutenak.

Etorkizuneko finantza publikoen jasangarritasuna

Administrazio publikoen jarduteko gaitasunean eta finantza publikoen iraunkortasunean giltzarri diren bi elementu daude. Alde batetik, EHLren babes klausula desaktibatzea; izan ere, Ukrainako gerrak sortutako ziurgabetasuna eta susperraldi ekonomikoari dakartzkion arriskuak kontuan hartuta, ziurrenik 2024. urtera arte atzeratuko da. Horri esker, nolabaiteko marjina egongo da inbertsio publikoak modu efikaz eta eraginkor batean proaktiboki kudeatu ahal izateko.

Europar, adostasuna dago arau fiskalen esparrua berrikusteko beharrari buruz, azken hamarkadetako esparru horretan hutsune handiak izan baitira. Europako Batzordea 2021eko urrian hasi zen hura berrikusten, eta bere helburuen artean honako hauek nabarmentzen dira: konplexutasuna murriztea, haren betetzea hobetzea, zerga politikaren jokabide kontraziklikoagoa sustatzea eta trantsizio digital eta berdeei lotutako inbertsio premia berriak egokitzea.

Bidea zabaltzen ari den aukeretako bat da markoa antolatzea zor publikoaren epe ertaineko helburu bakar baten inguruan –herrialde bakoitzerako desberdina izan daitekeena–, eta tresna fiskal gisa ezartzea gastu publikoa epe ertaineko ikuspegiarekin finkatzea, gastu publikoaren hazkundera jarduera ekonomikoaren hazkunde potentzialarekin lotuz. Argi dagoena da datozen urteetan zerga baterakuntzaren bidearekin bat datozen aurrekontu politikak ezartzea eskatuko dela. Bestalde, espero zen arau fiskalen itzulerari inflazioaren igoera eta berau denboran irautea gehitu zaizkio. Moneta agintaritzek interes tasei eusteko ematen duten erantzunak finantza baldintzak gogortzea ekarriko du, eta, ondorioz, sektore publikoaren finantzaketa kostuak handitzea. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren zorraren batez besteko iraupenaren luzapenak eta interes tasa finkoko finantzaketaren pisu handiagoak kostuan duen eragina mailakatua izatea eragingo dute.

Europako Banku Zentralaren politiken emaitzak, inflazioaren aurka borrokatzeko eta, aldi berean, euroguneko finantza zatiketa eta beste zor krisi bat saihesteko helburu korapilatsuan, administrazio publikoen finantzaketa baldintzak eta aukerak zehaztuko ditu. Egoera horren aurrean, zorrozatasuna, aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna eta, azken batean, finantza publikoen kalitatea euskal administrazioek zaindu beharreko balioak dira, aurrekontu publikoaren kudeaketa arduratsuarekin, eta horrek gastu publiko arruntaren gehikuntzak ekonomiaren hazkunde potentzialaren bideari edo diru sarrera publikoen egiturazko hazkunderari edo biei batzera behartzen du.

3. ETORKIZUNeko ERRONKAK

3.1 Eraldaketa energetiko-ekologikoa

Zientzia mailan adostasun zabala dago berotze globalak planetarentzat arrisku handia dakarrela eta berotegi efektuko gasen (BEG) isuri antropogenikoak, batez ere energia iturri fosilen errekuntzarekin lotutakoak, nabarmen murriztu beharko liratekeela datozen urteetan. Temperatura globalaren igoera industria aurreko mailekiko 2°C-ra mugatzeak berotegi efektuko gasen bolumena batez beste urteko %3,2 murriztea eskatuko luke datozen hiru hamarkadetan. Hala eta guztiz ere, jaitsiera hori ez dator bat, nabarmen, 2015eko Parisko Akordioa berretsi zuten 193 herrialdeek Glasgoven 2021eko azaroan egindako Alderdien Konferentziaren (COP26) 26. urteko goi bileran aurkeztutako ekarpenekin. Izan ere, kasurik onenean, orain arte egindako ekimenek munduaren batez besteko temperatura 2050ean industriaren aurreko erregistroen gaineratik 2,4°C-tan kokatuko lukete. Hori dela eta, gero eta handiagoa den aliantza bat osatu da, 70 herrialde baino gehiago barruan daudela, tartean Txina, AEB eta Europar Batasuna, eta 1.000 hiri baino gehiago, 1.200 enpresatik gora eta 151 herrialdeetako erakunde. Aliantza horrek klimarekiko helburu anbiziotsuagoa ezarri du, tenperaturaren gehienezko gehikuntza 1,5°C-tan ezartzera eta 2050erako klimaren ikuspegitik mundu neutro baten alde lan egiteko konpromisoa hartuz.

EBren kasuan, eraldaketa energetiko-ekologikoa bultzatzeko eta Europa klimaren aldetik neutroa den lehen kontinentea bihurtzeko ekintzen koordinazioa Europako Itun Berdea delakoaren bidez egituratu da. EBk klima neutraltasunarekiko duen konpromiso horren ondorioz, Klimaren Europako Legea onartu zen 2021eko uztailean. Lege horrek legez lotesleak diren bi helburu ezartzen ditu: berotegi efektuko gasen emisio garbiak gutxienez %55 murriztea 2030erako, 1990eko mailekin alderatuta, eta 2050ean berotegi efektuko gasen isurketa garbiak zero izateko azken helburua.

Europar berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko helburua, batez ere, honako hauen bidez aplikatzen da: EBko isurketa eskubideen merkataritza araubidea (EU ETS, ingelesezko siglak), ahalegina banatzeko erregelamendua eta Estatu kideen isuriak murrizteko helburuak, lurraren erabilerari, lurraren erabileraren aldaketari eta basogintzari buruzko erregelamendua. EU ETSK Europako industria sektorean berotegi efektuko gasen isuriak murriztea du helburu, besteak beste, elektrizitatearen sorkuntza eta abiazioa barnean hartuta. Hori dela eta, EBk Estatu kideei eskatu die beren ahaleginak «sektore lausoak» izenekoetan zentratzeko, hau da, EU ETSn sartuta ez daudenetan, hala nola garraioan, hondakinen kudeaketan, nekazaritzan eta abeltzaintzan.

Estatuan, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoa da, 2001. urtean sortua, sektore lausoen ibilbide orri bat taxutzen duena helburuak betetzeko, berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko hainbat neurriren bidez. Neurri horiek 2021eko Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Legean jasotzen dira, eta bertan jasotzen dira Parisko Akordioan hartutako arintze arloko konpromisoak; 201-2030erako Energia Klima Aldaketaren Plan Nazionala, non BEGen isurketak murrizteko, energia berriztagarriak martxan jartzeko eta energia eraginkortasuneko helburuak, Estatuan, 2030. Urtean, zehazten baitira; eta 2050 Epe Luzerako Deskarbonizaziorako Estrategia, mende honetako erdialdean klima neutraltasuna lortzea ahalbidetuko duten helburuak jasotzen dituen.

Euskadin, Europako Itun Berdearen ildotik, Eusko Jaurlaritzak etorkizun jasangarriagoa lortzeko ezarri duen ekonomia eta ingurumen ibilbide orria Basque Green Deal delakoan jasotzen da, 2021eko maiatzean aurkeztua, eta anbizio klimatikoa, eraginkortasun energetikoa eta energia garbia ditu ardatz nagusi. Horrek, 2021ean, arau isla eta formulazio estrategikoa izan ditu Eusko Jaurlaritzaren plangintzan. Arau esparrutik, aipatzekoak dira Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Legea 2021eko abenduan onartu izana, Euskadiko Mugikortasun Iraunkorrari buruzko Legearen eta Euskadiko Landa Garapenari buruzko Legearen proiektuak Legebiltzarrean izapidetu izana eta Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearen aurreproiektua izapidetu izana. Jaurlaritzaren plangintzari dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira: 2021-2024 Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Plan Estrategikoak (PTECC) eta 2024 Ekonomia Zirkularrerako eta Bioekonomiarako Plan Estrategikoak, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2030 Planaren esparruan egindako RIS3 Euskadi Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren arloen berrikuspena. Plan horien arabera, energia garbienak lehentasun estrategikoetako bat dira, eta ekoberrikuntza aukera nitxo gisa aurkeztzen da.

Estrategia horien barruan, eta ingurumenaren alorrean hartutako konpromisoak lortzeko, eraldaketa ekimen ugari hedatu beharko dira hamarkada honetan. Horiek horrela izanda, 2021eko urrian onartutako PTECC planak hamabost ekimen enblematiko ezartzen ditu arintzearen eta

egokitzearen arloan. Ekimen horien bidez, isurketak %30 murrizteko eta azken energian %20ko berriztagarrien kuota lortzeko konpromisoa hartzen du, bai eta lurraldearen erresilientzia bermatzeko konpromisoa ere, klima erronkarako edo naturan, hustubideetan eta Natura 2000 Sarean oinarritutako irtenbideetarako prestatutako udalerrriak eta kostaldeko azpiegiturak egokituz.

15 ekimen enblematiko

31. taula

Ekimena	Helburua	Emaitza	Aurrekontua
1. ekimena: lurraldearen antolamendu eredugarria energia berriztagarriak garatzeko	Euskadin energia berriztagarrien etorkizuneko proiektuen lurralde ezarpena planifikatzea	<ul style="list-style-type: none"> LPS Energia Berriztagarriak 	150.000 €
2. ekimena: Euskadi nazioarteko erreferentea energia ozeanikoetan	Euskadi nazioarteko erreferente gisa kokatzea energia ozeanikoaren arloan	<ul style="list-style-type: none"> Energia ozeanikoaren proiektuak, EEEn urteko laguntza programaren bidez Itsas energiaren sustapen eta garapen teknologikoa, gailu berriak berritzen dituzten erosketak publiko prekomertzialen eta erosketak publiko berritzaileen formularen bidez. 	12.700.000€
3. ekimena: Euskal industria energia eolikoaren abangoardian	Euskadi energia eolikoaren garapen teknologikoaren abangoardian kokatzea	<ul style="list-style-type: none"> BIMEPeko saiakuntzen eremua zabaltzea (Biscay Marine Energy Platform) Energia eolikoko proiektuak sustatzea diru laguntzen bidez 	1.000.000€
4. ekimena: eguzki-energia fotovoltaikoa etorkizun elektriko eta berriztagarri baten aurrean	Euskadin SFko instalazioen ezarpena erraztea	<ul style="list-style-type: none"> 400 autokontsumorako instalazio urtean 2023rako, energia erkidego bateko 12.000 eta 20.000 kide artean 023rako 100 MW-eko EKIENEA eguzki sorkuntza fotovoltaikoko parkea martxan 	33.100.000€
5. ekimena: hidrogenoa ekoizteko, banatzeko eta kontsumo ekosistema Euskadin	Hidrogeno berriztagarriaren ekoizpen, distribuzio eta kontsumo ekosistema bat sortzea eta Euskadi kokatzea	<ul style="list-style-type: none"> H2 berdea garraiatzeko lehen ekoizpen eta azpiegitura proiektuak bultzatzea Hidrogenoaren Euskal Estrategia monitorizatzea eta bultzatzea 	3.300.000€
6. ekimena: mugikortasun iraunkorra, epe laburreko beharra	Datozen urteetarako energia eta ingurumen konpromisoei erantzuneko dien garraio eredu bat ezartzea	<ul style="list-style-type: none"> Erregai alternatiboak eta eraginkorrak erabiltzen dituzten ibilgailuen erabilera sustatzea. Jarduera-zentroetarako mugikortasun planak Erregai alternatiboak kargatzeko/erregaiz hornitzeko instalazioen estaldura Euskadi osoan 	24.000.000€

Ekimena	Helburua	Emaiza	Aurrekontua
7. ekimena: eraikinen birgaitze energetikoa bultzatzea	Euskadin dauden eraikinen parkearen birgaitze energetikoa bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> Energia termikoa eta eraikuntza eta instalazioak birgaitzeko inbertsioetarako laguntzak Teknologia jasagarrietarako zerga kenkariak (efizientzia eta berriztagarriak) Sistema zentralizatuak dituzten bizitegi eraikinetan, banakako kontsumoak kontabilizatzea. Eraikinetan energia-auditoretzak egitea 	172.000.000€
8. ekimena: ekonomia zirkularra eta klima aldaketa, txanpon beraren bi aldeak	BEG isurien murrizketa erraztea ekonomia zirkularraren bidez	<ul style="list-style-type: none"> Produktuen eta eraikinen ekodiseinua zabaltzea Ekonomia zirkularrean ibilbide-orriak garatzea Bigarren mailako materialen kontsumoa bultzatzea Elikagaien xahutzearen aurkako ekimenak garatzea 	18.000.000€
9. ekimena: karbono-hustutegiak, klimaren neutraltasunerako funtsezko pieza	Euskadiko karbono hustutegiaren potentziala handitzea	<ul style="list-style-type: none"> Lurraldearen karbono-xurgapenaren potentzialaren kuantifikazioa Xurgapen proiektuak erregistratzeko mekanismo bat garatzea Xurgatze proiektuak sustatzea, laguntza programak garatuz eta bideratuz 	3.400.000€
10. ekimena: Euskal Natura 2000 Sare erresilientea, neutraltasun klimatikoa bultzatzen duena	Klima aldaketarekiko erresilientea den Natura 2000 Sarea eraikitzea, hustubide gisa duen zeregina indartuz	<ul style="list-style-type: none"> Ikuspegi klimatikoa Natura 2000 Sareko guneak kudeatzeko planetan sartzea Habitat eta espezieen arrisku klimatikoaren ebaluazioa Klima ekintzarako neurriak identifikatzea eta proposatzea 	1.500.000€
11. ekimena: kostaldeko herriak eta azpiegiturak, klima aldaketaren erronkarako prest	Kostaldeko lurraldearen erresilientzia sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> Itsas mailaren eta olatuen igoeraren ondoriozko uholde arriskuaren analisia klima aldaketaren egoeretan Portuetan klima aldaketara egokitzeko planak Alerta goiztiarreko, telemetriako eta bideometriako sistemak, kostaldeko uholde-gertakarien aurrean 	8.100.000€
12. ekimena: udalerrien erresilientziarako berrikuntza iturri izatean oinarritutako irtenbideak	Naturan oinarritutako irtenbideak udalerrri mailan hedatzea	<ul style="list-style-type: none"> Naturan oinarritutako irtenbideen katalogo bat egitea Udal ekintza sustatzea hiri eta hiri inguruko azpiegitura berde-urdinean, hiri ekologizazioaren eta gizarte partaidetzaren irizpideak barne. Izaeran eta azpiegitura berde-urdinean oinarritutako irtenbideak udalaren hirigintza planetan eta hiri berrikuntzako planetan integratzeko irizpideak garatzea 	4.700.000€

Ekimena	Helburua	Emaitza	Aurrekontua
13. ekimena: Biztanleria klima aldaketara egokitzeko eta bidezko energia trantsiziorako prest	Lurralde neutro eta erresiliente batean bidezko trantsizio energetikoa ziurtatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerri trantsizio energetikoa eta klima aldaketa integratzeko aukera emango dieten tresnak eta metodologiak garatzea • Klima ekintzako proiektuak garatzeko laguntzen deialdia • 2050eko Urban Klimaren esparruan transferitu daitezkeen proiektu pilotuen garapena 	8.900.000€
14. ekimena: Energia trantsizioaren eta klima aldaketaren binomioa, arau esparru eta planifikazio esparru berria	Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren lege bat garatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea onartzea • 2050erako neutraltasuna eta erresilientzia ibilbide orria egitea eta hedatzea • 2030erako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Trantsizio Estrategia egitea eta hedatzea 	1.700.000€
15. ekimena: Administrazio publikoa, energia trantsiziorako eta euskal gizartearen erresilientziarako eredu	Euskal gizartearentzat energia trantsiziorako eta erresilientziarako eredu izango den administrazio publikoa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> • Eraikin publikoetako jasangarritasuneko jarduerak • Ibilgailu elektriko lehenezte flota publiko berritzean • Administrazio publiko zero emisio 2050. urtean 	13.220.000€


Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena Saila.

Euskadin energia berriztagarriak ezartzeari dagokionez, nahiz eta azken hamarkadetan ahalegin handiak egin diren eta EAEko energiaren matrizeak eraldaketa esanguratsuak izan dituen, petrolioaren eta ikatzaren deribatuak gas naturalarekin ordezkatzuz eta energia berdean pixkanaka aurrera eginez, errealitatea oraindik urrun dago 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak (3E2030) ezarri zituen helburuetatik.

2020an, jatorri berriztagarriko energia lehen mailako energiaren eskariaren %9,8 zen gutxi gorabehera, eta Euskadiko energiaren azken kontsumoaren %16,9. Azken datu hori 3E2030ak (energiaren azken kontsumoaren %21eko kuota) ezartzen duen helburutik nahiko hurbil dago, baina pandemiak dakarren anomaliak baldintzatzen du. Bestalde, 2021ean instalatutako energia berriztagarri elektrikoaren potentzia 603 MW-ra mugatzen zen, 2030erako 3E2030ak helburutzat markatzen duen 1900 MW-en aldean. Beraz, funtsezkoa da aurrera egitea energia berriztagarri Euskadiko mix energetikoan duten pisuaren hazkundean eta, bereziki, energia elektrikoaren sorkuntzan, trantsizio energetikoa eta EAEko ekonomiaren eraldaketa ekonomia hipokarboniko batean gauzatzeko. Zehazki, hurrengo zortzi urteetan 630 MW energia eoliko, 214 MW eguzki

energia fotovoltaiko eta 111 MW eguzki energia termiko gehitu beharko lirateke. Era berean, Euskadin energia berriztagarriak gehiago ezartzeak aparteko egoerei aurre egiten lagun lezake, hala nola, gaur egun merkatu energetiko globaletan izaten ari garenari, neurri handi batean larriagotu egin baitira Ukrainaren inbasioaren ondoriozko krisi geopolitikoaren ondorioz.

Elektrizitatea sortzeko ahalmen berriztagarriaren helburuak 46. irudia




Iturria: EVE.

Horrekin guztiarekin, Euskadiren deskarbonizazioa guztiz lerrokatuta dago EBren eta Estatuaren planteamendurekin, baina ikusten dugu berotegi efektuko gasen guztizko isuriak murrizteko aurrerapenak txikiak izan direla 2015etik. Isuri absolutuak 18,6 milioi tonakoak izan ziren 2019an eta 16,4 milioi tonakoak, berriz, 2020an, eta %27 eta %35 murriztu ziren, hurrenez hurren, 2005ekoekin alderatuta. Aipatzekoa da pandemiak eragindako murrizketek asko baldintzatzen dituztela 2020ko isuriak.

Berotegi efektuko gasen isurien azken bi urteetako jaitziera orokorra izan da sektore guztietan, nekazaritza sektorean jaso zen gorakada txiki bat izan ezik. Eu ETSk araututako sektoreen isurketak %38 eta %49 murriztu dira 2019an eta 2020an, hurrenez hurren, 2005ekoekin alderatuta,

erregimen horren funtzionamenduko lehen urtea horixe izan baitzen. Isurtze barreiatuak, beste aldetik, %11 eta %16 murriztu dira 2005. urteaz geroztik, eta, horrela, %10eko ahaleginak banatzeko helburu europarrari aurrea hartu zaio (Estatu kideei helarazitako batez besteko helburu loteslea).


Berotegi efektuko gasen isurien bilakaera 47. irudia



Iturria: Eusko Jaurlaritza (Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumen Saila) eta Eurostat, European Environment Agency (EEA).

Beraz, galdetu behar da ea Euskadiko isurien bilakaera azken urteotan Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Adituen Taldeak (IPCC, ingelesezko siglak) beroketa globalari eusteko ezarritako helburuetara egokitzen den ala ez, eta erantzuna da aipatzen den anbizio klimatikoaren mailaren araberakoa dela. Izan ere, nahiz eta 2020ko ezohiko emaitza bat etor litekeen berotze globalari 1,5°C-tan eusteko proiektatutako murrizketa bidearekin, covid-19aren aurretik erakutsitako isurien portararak 2°C-ko euste-bideari jarraitzen dio, eta ahalegin handiagoak egin beharko lirateke 1,5°C-ko norabide handinahiena lortzeko.

Isurien bilakaera eta berotze globalari eusteko helburuak
48. irudia




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren. Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena Saila.

Deskarbonizazioaren arloan asmo handiagoko ekintza planei ekiteko funtsezko bi elementu honako hauek dira: batetik, klima aldaketa arintzeko politikari gizarte babes ematea, eta, bestetik, eraldaketa energetiko-klimatikorako behar diren inbertsioak egiteko behar den finantzaketa mobilizatzeko gaitasuna izatea.

Ingurumen politiketarako eta klima aldaketa arintzeko gizarte babesari dagokionez, nabarmendu behar da Eustaten 2020ari dagokion eta 2021eko ekainean argitaratutako ingurumen-adierazleak aurrerapen txiki bat erakusten duela ingurumen inpaktua duten sentibilizazio eta ohitura mailan, 2015eko emaitzekin alderatuta. Adierazle hori Familiei egindako Ingurumenari buruzko Inkestan egindako 75 galderaren sintesiaren bidez lortzen da, eta 2020an, 0 eta 10 puntu arteko eskalan, EAEko familiek 6,7 puntu lortu zituzten.


Ingurumenaren adierazlea osatzen duten zazpi adierazle partzialen artean, berriz ere hondakinen tratamenduaren portaera nabarmentzen da, ohitura hori EAEko familien artean zabaldua dagoela frogatuz. Bilakaera negatiboa duen alderdia mugikortasunarena da; izan ere, biztanleriak garraio pribatua oinarritzen jarraitzen du (%39,4), 2015ean baino ehuneko handiagoarekin (%35,4), nahiz eta 2020an covid-19ak eragin berezia izan zezakeen ohitura horretan.

Ingurumenaren adierazlea. Puntuak
49. irudia



Iturria: Eustat. Ingurugiroari buruzko inkesta familien artean.

Ingurumena babesteari emandako garrantzia. Ehunekoak
50. irudia



Iturria: Europako Batzordea, Special Eurobarometer 501, 2019ko abendua eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetea - Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2021eko azaroan egindako inkestako datuek berresten digute ingurumen anbizioa etengabe hazten ari dela euskal herritarren artean urteetan zehar. Zehazki, ingurumena babestea oso garrantzitsutzat jotzen zuten pertsonen ehunekoa 2013an %62 izatetik 2021ean %80 izatera igaro zen. Europarekin alderatuta, Euskadi ere kontzientziazio ekologiko handieneko herrialdeen buruan dago, nahiz eta egia den Europako herrialdeetarako datuak 2019koak direla.

EAEko ekonomia deskarbonizatzeko behar diren inbertsioak egiteko beharrezkoa den finantzaketa mobilizatzeari dagokionez, 2020ko abenduan Euskadi Next 2021-2026 Programa aurkezteak egiaztatzen du euskal administrazioek (gobernuak, aldundiek eta udalek) inbertsio publikoari eta inbertsio publiko-pribatuari bultzada irmoa emateko eta MRR funtsen erabileran izaera eraldatzailea hobetzeko asmoa dutela, hori baita *Next Generation EU* Berreskuratzeko Funtsaren muina.

Estatuak 2021-23 aldirako autonomia erkidegoei sektoreko konferentziaren edo zuzeneko emakidaren bidez banatutako ia 18.000 milioi euroetatik, Euskadiri 856 milioi euro esleitu zaizkio (guztizkoaren %4,79, alegia). Diru kopuru horretatik, %20 baino gehiago honako arlo hauetako inbertsioak batera finantzatzeko erabiltzen da: eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzea ekoizpenaren eta etxearen eremuan, ibilgailu parkearen deskarbonizazioa, eraikin parkearen birgaitze energetikoa eta lehen sektorearen sustapenarekin, ekonomia zirkularrarekin eta ingurune naturalaren zaintzarekin eta kontserbazioarekin lotutako ekimen multzo handi bat.

Bonu Jasangarriaren jaulkipenen kopurua Euskadin
32. taula

	Data	Kopurua	Muga eguna
1 jaulkipena	15/06/2018	500.000.000	30/04/2028
2 jaulkipena	25/04/2019	600.000.000	30/04/2029
3 jaulkipena	06/04/2020	500.000.000	30/04/2030
4 jaulkipena	19/11/2020	600.000.000	30/04/2031
5 jaulkipena	16/04/2021	1.000.000.000	30/04/2032
6 jaulkipena	20/04/2022	500.000.000	30/04/2033

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko ingurumen, ekonomia eta gizarte erronkei aurre egiteko finantzaketa arduratsua eta eraginkorra sustatzeko asmo sendoarekin, bonu jasagarriak jaulkitzen jarraitu du. Bonu horiek 2018an hasi ziren, 500 milioi euroko jaulkipenarekin, eta 2022ko apirillean seigarren jaulkipena egin zuten, 500 milioi euroekin. Bosgarren jaulkipena 2021eko apirilaren 16an egin zen, 1.000 milioi euroekin. Merkatuko eragiketarik handiena izan zen, eta Eusko Jaurlaritzaren finantza egoera sendoa indartzea eta baliabideak bermatzea ahalbidetu zuen, covid-19ak sortutako ezohiko egoerari aurre egiteko.

Bonu horiek Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin bat datozen proiektuak finantzatzeko erabiltzen dira. Agenda horrek Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartutako Garapen Iraunkorreko 17 Helburuekin duen konpromisoa islatzen du.

Funts horiek jasagarritasuneko onura nabarmenak dituzten proiektuetara bideratu behar dira, eta horietatik %17 proiektu berdeetara bideratzen dira (energia berriztagarria, garraio garbia, kutsaduraren prebentzioa, uraren eta hondakin uren kudeaketa jasagarria, lurreko eta uretako biodibertsitatearen kontserbazioa, energia eraginkortasuna eta klima aldatetara egokitzea), eta gainerakoa gizarte proiektuen artean banatzen da (aurrerapen sozioekonomikoa, enplegu sorrera, etxebizitza eskuragarria, osasuna eta hezkuntza).

3.2 Eraldaketa teknologiko-digitala


Aurrez aurrekoak ez diren bilerak eta telelana egiteko baliabide teknologiko digitalak azkar hartzeak eta 2020an piztutako eta hedatutako pandemiak ezarritako urruntzeari eta mugikortasuneko murrizketei erantzuteko online kontsumoa bizkor garatzeak, Europako Parlamentuak Europako "hamarkada digitala" izenez bataiatu duen prozesu horretan murgilduta gaudela egiaztatzea ahalbidetu dute. Von der Leyen presidentek 2020ko Batasuneko Egoerari buruzko diskurtsoan egindako deiaren ondorioa da termino hori. Izan ere, hasi berri den hamarkadan trantsizio digitalean inbertitzeko aukera leihoa ustiari nahi du, herritarrek, enpresek eta erakundeek aukera digital handiagoak izan ditzaten, lehiakortasuna eta erresilientzia sustatuz eta mendekotasunak maila guztietan arinduz.

Sortzen ari den iraultza digitalak eraldaketa garrantzitsuak ekarriko ditu ingurumen jasagarritasunaren arloan eta gizarte ongizatearen baldintzatzaileetan, hala nola

produktibitatean, enpleguan, kontsumoan eta aukera berdintasunean. Kasu askotan ondorio positiboak zein negatiboak sortuko dira, eta, beraz, ondo diseinatutako politika publikoak beharrezkoak izango dira lehenengoak sustatzeko eta bigarrenak minimizatzen.

Eraldaketa digitalaren ikuspegi europarra honako hauetan oinarritzen da: pertsonen zerbitzura dagoen teknologia, ekonomia digital lehiakor eta bidezkoa eta gizarte digital ireki, demokratiko eta iraunkorra.

DESI 2020 adierazlea. Dimentsioen eta herrialdeen arabera
51. irudia




Iturria: Euskadiko ekonomia eta gizarte digitalak. DESI 2020. Orkestra.

Euskadik digitalizazio maila handia du gaur egun. Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak DESI (Digital Economy and Society Index) adierazle sintetiko europarra konputatu du, ekonomiaren eta gizartearen digitalizazio maila bost dimentsiotan aztertzen duena (konektibitatea, giza kapitala, Interneteko zerbitzuen erabilera, teknologia digitalaren eta zerbitzu publiko digitalen integrazioa), eta begi bistakoa da Euskadi 2020an Ekonomia Digitalen Indizearen zazpigarren postuan legokeela, 28 kidez osatutako Europar Batasuneko herrialdeen artean. Beraz, batez besteko europarraren ia hamar puntu gorago eta Espainiakoa baino lau puntu gorago dago kokatuta.

Dimentsio bakoitza aztertuta, Orkestraren Ekonomia eta Gizarte Digitalen txosteneko kalkuluen arabera, Euskadi hirugarren postuan dago konektagarritasunean liderrak diren herrialdeen artean, banda zabal finkoaren ezarpenean eta estalduran lortutako emaitzengatik; zortzigarren postuan dago giza kapitalean, eta bereziki nabarmentzen da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloko prestakuntzan eta espezializazioan; Interneteko zerbitzuen erabilera maila baxuak erakusten ditu etxeetan, batez ere erosketa eta salmenta elektronikoetan; zazpigarren tokian dago enpresek teknologia digitala integratzeko atalean, nahiz eta enpresa txiki eta ertainetako merkataritza elektronikoa ez den Europako batez besteko mailara iristen; eta seigarren lekuan jarri da zerbitzu publiko digitalen alorrean, EB-28aren gainetik eta hobekuntza azpimarragarri batekin datu irekietan.

DESI 2020 adierazlea. Dimentsioen arabera. EAE eta EB-28
52. irudia



Iturria: Euskadiko Ekonomia eta gizarte digitalak. DESI 2020. Orkestra.

Hala eta guztiz ere, erronka honetan datza: jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa ematea, eta Euskadi agertzen ari diren teknologia digital berriak ahalik eta gehien aprobetxatzeko moduan jartzea, zerbitzu publikoak hobetzeko eta zabaltzeko, pertsona guztien ongizatea eta bizi kalitatea


irabazteko, eta gure enpresen lehiakortasuna eta gure ekintzaileen aukerak are gehiago bultzatzeko.

Erronka horri heltzeko, Eusko Jaurlaritzak transformazio digitaleko beste eredu bat zehaztu du 2025eko Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren bidez (ETDE2025). Estrategia hori 2021eko martxoan onartu zen, eta honako helburu hauek ditu: palanka teknologiko hasiberrien onartzea bizkortzea (5G konektibitatea; adimen artifiziala; zibersegurtasuna; konputazio kuantikoa; cloud zerbitzuak eta elkarreragingarritasun publiko-pribatuko zerbitzuak), garapena indartzea eta laguntza gaitzaileen potentzial frogatua aprobetxatzea (gaitasun digitalak; I+G, ekintzailtza; berrikuntzaren erosketa publikoa; zerbitzu teknologikoen hornitzaileen ekosistema; komunitate teknologiko kohesionatua; nazioarteko konexioa; banda zabal ultraazkarreko konektibitatea; fiskalitatea eta finantzaketa, eta arau garapena eta erregulazioa) aplikazio eremuetan. Horretarako, 18 ekintza lerro zehaztu dira, 4 bektoreren inguruan artikulatuak (ekimen bereziak; ekosistema integratua; gaitasun digitalak, eta azelerazio, esperimentazio eta erabilera).

Ekintza ildoen artean, azken urteotan jadanik lantzen ari ziren hainbat ekimen azpimarratu behar dira, hala nola Basque Cybersecurity Centre (BCSC), Banda Zabal Ultrarrazkoaren Behatokia edo Metaposta zerbitzua. Era berean, ekimen berriren bat abiaraztea ere jasotzen da, hala nola Basque Artificial Intelligence Center (BAIC), 2021eko uztailan eratua, enpresentzako elkarreragingarritasun plataforma bat abian jartzea, Data Centers sortzeko laguntzak edo enpresen eremuan 5G teknologiaren erabiltzea erraztea. Hori guztia desberdintasun digitalaren murrizketa bilatuz.

Eraldaketa digital eraginkor batek eraldaketa teknologikoak eta bestelako aldaketak prozesuetan eta kulturaren ere eskatzen ditu. Horiek horrela, 2021eko otsailan onartutako 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak 18.600 milioi euroko inbertsioak aurreikusten ditu datozen hamar urteetarako, eta Eusko Jaurlaritzak ikerketa eta garapen teknologikoa (I+G) laguntzeko urteko aurrekontuak %6 handitzeko konpromisoa hartzen du. Ondoren, 2021eko abenduan, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen I+G bideratutako aurrekontu zuzkidura guztiak urtean %12 handitzeko, hamarkada hau amaitu baino lehen BPGaren %3 lortzeko. Zehazki, 2020an, datuak ditugun azken ekitaldian, I+Gko gastua 1.490 milioi eurokoa izan zen Euskadin. Gastu maila horrek eta pandemiak BPGan eragindako beherakadak eragin zuten I+Gko gastua BPGaren ehuneko gisa %2,08ra iristea, Europarekiko diferentziala murriztea eta Estatuarekiko posizio erlatiboa are gehiago hobetzea.

I+Gko gastua. BPGaren ehunekoa
53. irudia




Iturria: Eustat, INE eta Eurostat.

Nabarmentzekoa da, halaber, Euskadik berrikuntzari dagokionez duen posizioa, Europako batez bestekoaren zertxobait gaineratik, eta berrikuntza handiko herrialdeen taldean, 2021eko Europako Berrikuntza Adierazleen Panelaren arabera. Panel hori lau bloketan egituratzen da: hamabi berrikuntza dimentsio eta hogeita hamabi adierazle guztira. Aipatutako lau blokeen artean, Euskadi hiru bloketan nabarmentzen da Europako batez bestekoaren aldean: marko baldintzak, inbertsioak eta inpaktua.


Berrikuntza horren ondorioz, Patenteen Europako Bulegoan egindako patenteen eskaeren kopuruak gora egin zuen, baina Europako batez bestekotik urrun dago oraindik. Hala eta guztiz ere, patenteen kopuru hori azken urteetako handiena izan zen, 2018. jasotako datuekin batera, pandemiaren ondorioak gorabehera, eta gero eta arrakala nabarmenagoa izan zuen Espainiarekin alderatuta.

Berrikuntzaren adierazleak (I)
54. irudia

Patente kopurua milioi biztanleko (EPO)




EIS 2021eko Europako Berrikuntza Panela. Puntuak




Iturria: Patenteen Europako Bulegoa eta Eurostat. EPO patenteen eskaerak, lehenengo eskatzailearen bizilekuaren (2022/04/01) eta Eustaten arabera. Berrikuntzako adierazleen panela (EIS 2021) eta Europako Batzordea.

Berrikuntzaren adierazleak (II)
55. irudia

2021. urtea. Puntuak



Enpresa berritzaileen %, enpresen guztizkoaren arabera, Autonomi Erkidegoak. 2020



Iturria: Eustat. Berrikuntzako adierazleen panela (EIS 2021), Europako Batzordea eta INE.

Halaber, INEk 2020an argitaratutako Enpresen Berrikuntzari buruzko Inkestaren emaitzek berretsi egiten dute Euskadik Estatuan berrikuntzan duen lidergoa. Inkesta horren arabera, Euskadi da enpresa berritzaileen ordezkari handiena duen autonomia erkidegoa (%22,6), eta ia sei puntuko aldea du Nafarroarekin alderatuta, hura baita sailkapen horretan ondoren datorren lehen erkidegoa.

3.3 Eraldaketa demografiko-soziala


Erronka demografikoa lehen mailako erronka da planetako gizarte aurreratu gehienentzat, eta, zentzu horretan, Euskadi ez da salbuespena. Dimentsio anitzeko arazoa da, eta biztanleriaren dinamikaren hainbat alderdi hartzen ditu: piramidearen egiturari, espazioaren banaketari edo bizi baldintzei dagozkienak.

Erronka demografikoaren adierazpen nabarmenetako bat belaunaldien dimentsioa da, biztanleriaren zahartzea ezaugarri duena. Zahartze hori, oro har, 65 urtetik gorako pertsonen biztanleria osoan duten pisu espezifikoen igoeraren arabera neurtzen da, eta bi elementuren konbinazioaren ondorio da: jaiotza tasaren jaitsiera eta jaiotzean dagoen bizi itxaropenaren igoera. Bi fenomeno horiek mendebaldeko gizartearen zahartzearen kausa dira.

Euskadin, jaiotza tasaren jaitsiera (1976an izan ziren 41.100 jaiotzetatik 14.739 jaiotzera iritsi da 2020. urtean), amatasuneko adinaren igoera (belaunaldi berrienetan, lehen haurra jaiotzen denean amaren batez besteko adina 32 urte ingurukoa da, eta belaunaldi zaharrenetan, berriz, 28 urte ingurukoa) eta bizitzaren luzetasun handiagoa (1976tik, gizonen eta emakumeen bizi itxaropenak etengabeko igoera izan du, eta 2019an adin handienara iritsi da: 80,8 eta 86,6 urte, hurrenez hurren). Horiek horrela izanda, 2020ko urtarrilaren 1eko zifrek adierazten dute Euskadin 65 urte eta gehiagoko 494.364 (%22,5) pertsona bizi direla; horietatik %57,5 emakumeak dira eta %42,5, berriz, gizonak. Ratio horren arabera, Euskadi 27-EBko Estatu kide guztiak baino zaharragoa da, salbuespen bakarra Italia delarik.

Halaber, belaunaldien arteko erreleboaren arazo larria ikusten da, zeren eta Euskadin 20 urtetik beherakoen eta 65 urtetik gorakoen arteko egungo proportzioa 0,8 baita, eta horrek biztanleriaren zahartzea progresiboa dela adierazten du. Desoreka hori gehiago areagotzen da emakumeen artean, eta emakumeek bizi itxaropen handiagoa izateak azaltzen du.

65urtetik gorako biztanleak. 2020. %
56. irudia




Iturria: Eustat eta Eurostat


Beraz, aldaketa handiak gertatuko dira biztanleriaren adinaren egituraren, 2021eko eta 2031ko piramideen arteko alderaketak egiaztatzen duen bezala, Eustaten datuetan eta proiektioetan oinarrituta egin baitira. Biztanleriaren piramidearen oinarrian, haurren populazioa uzkurtu egingo da datozen urteetarako aurreikusitako jaiotza tasa txikiagatik; aldiz, nerabeak eta heldu gazteak ugari egingo dira, duela gutxi historiako belaunaldi urrienak ordeztuko baitira, hau da, joan den mendeko azken hiru bosturtekoetan jaiotakoak, mende honetako lehen hamarkadan jaiotakoengatik, urte horietan jaiotza tasak gora egin baitzuen. Azkenik, piramidearen gailurrean biztanleria nabarmen handitzeko joera areagotuko da, adin horietara belaunaldi ugariagoak iristearren eta biztanleriaren bizitza luzeran aurreikusitako aurrerapenen arteko sinergiaren ondorioz. Gainera, lehen aipatu den bezala, adin handieneko biztanleen artean ere feminizazio handia izaten jarraituko du.

Euskadiko biztanleria, adin talde beteen arabera
57. irudia

2021. urtea



2031. urtea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

2021eko urtarrilean, Europako Batzordeak "zahartzeari buruzko liburu berdea: belaunaldien arteko elkartasuna eta erantzukizuna sustatzea" aurkeztu zuen, eztabaida politiko zabal bati ekiteko. Eztabaida horretan, Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuen, Europako gizartearen zahartzearen erronkei eta aukerei buruz. Erronken ikuspegitik, nabarmentzekoa da gizarte-babeseko sistema egokia, eskuragarria eta iraunkorra bermatzea, zahartzen ari den biztanleriaren beharrei behar bezala heltzeko eta pobrezia arriskua saihesteko. Aukerei dagokienez, potentzial handiko merkatu nitxo berrien presentzia nabarmentzen da, kontsumo ereduak ustiatuz eta adinekoen beharrei erantzunez (silver economy).

Ildo horretan, eta Euskadiko biztanleriaren zahartzearen erronkei eta aukerei erantzuna ematen saiatuz, administrazio publikoek erronka demografikoaren belaunaldien dimentsio horri lotutako hainbat proiektu prestatu dituzte, hala nola, Adinberri, biziarteko berrikuntzako mugaz gaindiko poloa edo Nagusi Intelligence Center.

Gizartea gaztetzeko beste bide bat gazteen bizi proiektuak bultzatzean datza. Zentzu horretan, esan behar da Eusko Jaurlaritzak erronka demografikoari buruzko eztabaida prozesu bat bultzatu zuela 2021aren hasieratik. Lehen etapa batean, ekainera arte luzatu zena, sailen artekoa izan zen, eta bigarreanean, 2021eko azarora artekoa, erakundeen arteko proiektzioa izan zuen foru aldundiekin batera. Erakundeek, gizarte eragileek eta herritarrek egindako ekarpenekin hainbat lan dokumentu egin ondoren, Gobernu Kontseiluak duela gutxi (2022ko ekainaren 21ean) onartu du Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia. Estrategia horretan, epe ertainerako jarduera plana zehazten da, lau ardatzetan egituratuta: (i) gazteak emantzipatzeko neurriak, etxebizitza, enplegua, ekintzailtza eta autonomia lortzea erraztuko dutenak; (ii) familien eraikuntza, kontziliazioa eta seme-alaben hazkuntza bultzatzeko neurriak; (iii) zahartze betea eta osasuntsua lortzen lagunduko duten neurriak; eta (iv) migratzaileak erakarri eta integratzera bideratutako neurriak. Horietaz gain, epe laburrean eragina izango duten lau neurritako pakete bat ere sortu da, pertsona gazteen emantzipaziorako, kontziliaziorako eta familiak eraikitze aldeko baldintzak sortzeko asmoa duena.

Eskualdeko Aurrerapen Sozialaren Indizea. 2020. urtea
33.taula


Lanpostua	Herrialdeak	%	Lanpostua	KAE	%
1	Finlandia	82,8	1	Euskadi	73,9
2	Suedia	82,4	2	Nafarroa	73,6
3	Danimarka	81,7	3	Errioxa	71,7
4	Holanda	79,0	4	Aragoi	70,8
5	Luxenburgo	74,6	5	Kantabria	70,5
6	Austria	74,0	6	Madril	69,7
7	Euskadi	73,9	7	Gaztela eta Leon	68,8
8	Frantzia	72,0	8	Galizia	68,7
9	Alemania	71,6	9	Asturias	68,5
10	Irlanda	71,1	10	Valentziako Erkidegoa	67,8
11	Belgika	69,0	11	Kanariak	67,4
12	Eslovenia	68,7	12	Katalunia	67,1
13	Txekia	68,3	13	Murtzia	65,2
14	Malta	67,2	14	Extremadura	64,3
15	Espainia	67,0	15	Gaztela-Mantxa	63,4
16	Lituania	64,7	16	Andaluzia	61,8

Iturria: Europako Batzordea.

Biztanleen bizi baldintzei eta ongizateari dagokienez, azpimarragarriena EBko Aurrerapen Sozialaren Indizeari (IPSE) dagokionez gertatu den hobekuntza da. IPSE eskualde mailako (NUT2) garapen sozialaren eta bizi kalitatearen neurri bat da, BPGaz haratago doana eta Europako eskualdeetako gizarte garapena neurtzen duena, guztira berrogeita hamabost gizarte eta ingurumen adierazle konparagarrik deskribatutako hamabi osagai erabiliz, alderdi ekonomikoak nahita baztertuz. Euskadik, zehazki, 100etik 73,9 puntu lortu ditu 2020an, eta 2016an baino ia 2,5 puntu gehiago lortu ondoren, nabarmen egin du gora European, 102. postutik 48. postura igaroz 240 eskualderen artean.

Beste aldetik, estatu mailako erkidegoak erreferentziatzat hartuz gero, EAEn baliokak are positiboagoak dira, guztien artean Euskadik baitu indizearik gorena, postu bat igo eta Nafarroa gaintitu ondoren, sailkapeneko lehen postuan kokatuz. Europako batez bestekoa (66,7 puntu) ere gaintitzen du, bai globalean bai indize hori osatzen duten hiru adierazleetan, hau da, oinarritzko giza premien, ongizatearen oinarrien eta aukeren adierazleetan.

Bizi kalitatearen dimentsio anitzeko adierazlea (IMCV). 2020. 2008. urtea = 100
58. irudia




Iturria: INE.

Arestian aipatu diren adierazleez gain, INEk Bizi Kalitatearen Adierazle Multidimentsionala (IMCV) argitaratzen du. Adierazle hori bederatzi dimentsiok osatzen dute eta, aldi berean, 55 adierazle biltzen ditu, bizi kalitatearen nondik norakoa neurtzeko. Euskadiren kasuan, egia bada ere zenbait autonomia erkidegok gainditzen dutela, adierazleak hobera egin du azken bi urteetan, eta 2020ko datua 103,01ekoa izan da, serie historiko osoko altuenetakoa.

Kontuan hartzen diren bederatzi dimentsioak honako hauek dira: bizi baldintza materialak, lana, hezkuntza, osasuna, aisia eta gizarte harremanak, segurtasuna, gobernantza eta oinarrizko eskubideak, ingurunea eta ingurumena, eta bizitzaren esperientzia orokorra. Oro har, IMCVaren kalkuluan 55 adierazlek parte hartzen dute, eta horietatik 34 urtero eguneratzen dira. Euskadi, zehatz-mehatz, bizi baldintza materialen, lanaren eta hezkuntzaren dimentsioetan nabarmentzen da.

Pobreziaren edo gizarte bazterketaren arrisku tasa (AROE adierazlea). 2021
59. irudia



Iturria: Eustat eta Eurostat.


Bizi Baldintzei buruzko Inkestari dagokionez, IMCVren adierazle askoren jatorria horixe baita, komenigarria da AROPE adierazlean ere arreta jartzea. Adierazle horrek pobrezia edo gizarte-

bazterketa pairatzeko arriskuan dagoen biztanleria kuantifikatzen du. Euskadik, Nafarroarekin batera, emaitzarik onenak eskuratu ditu, %16,0 eta %14,7, hurrenez hurren, nahiz eta erregistroek okerrera egin duten aurreko urtearen aldean, bi puntu eta lau hamarren jaitsi baitira. Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da inkestak pandemiaren ondorioak jasotzen dituela, hartzen den errenta aurreko urtekoa baita, kasu honetan 2020koa, aldi horretan koronabirusaren ondorio negatiboak nabariak baitziren.


Aurre egiten ari zaion gizartearen eremuko beste erronketako bat soldata arrakalarena da, hau da, sexu desberdineko pertsonen arteko aldea ordainsarian. Informazio berrienak, 2020ari buruzkoak, adierazten du, batez beste, emakume batek 27.126 euroko soldata jaso zuela, eta gizon bakoitzak, berriz, 33.040 eurokoa. Horrek urte horretako arrakala 5.914 eurotan utzi du, aurreko urtean baino 400 euro inguru gutxiago. Honekin batera doan grafikoak adierazten duenez, 2008ko Atzeraldi Handiaz geroztik, emakumeen eta gizonen batez besteko diru sarreren aldea nabarmen handitu zen, 2012an goia jo arte, hain zuzen ere bigarren atzeraldiaren hasieran, hots, euroaren krisia piztu zenean. Hurrengo urteetan, arrakala gutxitzeko urrats lotsatiak eman ziren, baina azken bi urteetan izan da zuzenketarik nabarmenena. Izan ere, bi urtetan arrakalaren murrizketa %20 ingurukoa izan da, eta 2020an ia %10 txikiagoa zen 2008an erregistratutakoa, urte horretan hasi baitzen serie hau eskaintzen, baino.

Soldataren bilakaera EAEn. Soldata arrakala. 2008. urtea = 100
60. irudia

Soldata arrakala langile bakoitzeko



Soldata arrakala lan egindako ordu bakoitzeko




Iturria: INE. Soldaten egitura.


Soldata arrakalaren murrizketa adin tarte guztietan lortzen ari da, baina batez ere gazteenetan. Hala eta guztiz ere, 45 eta 54 urte arteko adin tartean oraindik ez da lortu arrakala 2008an zuen balioaren azpitik berriro kokatzea, nahiz eta hobekuntzak esanguratsuak diren adin tarte horretan ere, adin tarte hori baita ondoen ordaintzen denetako bat, bai sexu batean, bai bestean. Bestalde, 55 urte eta gehiagoko taldeak, soldata handienetakoa jasotzen duen beste kolektibo batek, 2008ko egoerara itzultzea besterik ez du lortu; 45 urtetik beherako taldeek, berriz, arrakala nabarmen murriztea lortu dute.

Batez besteko eta erdiko soldaten bilakaera EAEn. 2008. urtea = 100
61. irudia

Batez besteko soldata langileko



Erdiko soldata langileko




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Batez beste, 2020an emakume batek gizon batek baino %17,9 diru gutxiago irabazi zuen bere lanaren truke, eta alde hori oso handia da oraindik, baina jaitziera nabarmena erakusten du 2012an erregistratu zen %25,8ko distantziarekiko. Ehuneko horiek aurreko paragrafoetan aipatu den langile bakoitzeko soldatarekin kalkulatu dira, baina kalkulu bera egin daiteke lan egindako ordu bakoitzeko jasotako soldatarekin. Kasu horretan, 2020an emakume batek 18,99 euro kobratu zituen batez beste, eta gizon batek, berriz, 20,72 euro. Beraz, aldea orduko bi euro baino gutxiagokoa da, 2012an ia lau eurora iristen zen bitartean. Beste modu batean adierazita, ehuneko %20,1etik %8,3ra jaitzi da denbora horretan. Gogoratu behar da langile bakoitzeko arrakalaren (%17,9) eta lan egindako ordu bakoitzeko arrakalaren (%8,3) arteko aldea emakumeek lanaldi

partzialeko proportzio handiagoan lan egiten dutelako dela. Hain zuzen ere, 2020an, emakumeen %26,5ek lanaldi partzialean lan egin zuen, baina gizonen %6,5ek soilik, neurri handi batean, adingabeen eta mendeko pertsonen zaintzan erantzunkidetasunik ez dagoelako.

Batez besteko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea = 100
62. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Azken urteetan egiaztatutako soldata arrakalaren murrizketa soldata nominalek -ertainek zein erdikoek- gora egin duten testuinguru batean lortu da, nahiz eta igoera horiek nahiko apalak izan. Horrela, 2020an, batez besteko soldata %2,5 igo zen aurreko urtearen aldean, eta %18,3 2008koaren aldean. Bestalde, erdiko soldatak urte batetik bestera %2,6ko eta % 15,8ko igoera izan zuen oinarri urtearen aldean.

Sexuaren araberako banakapenak adierazten du emakumeen soldata dela intentsitate handienarekin hazten ari dena. Hain zuzen ere, emakumeen batez besteko soldataren igoera %24,6 handiagoa izan zen 2020an 2008koa baino, eta gizonen artean, berriz, %16,9koa. Izan ere, 2016. urtera arte igoerak handiagoak izan ziren gizonen nominetan, baina urte horretatik aurrera prozesua alderantzikatu egin da eta soldata arrakala murriztea lortu da. Arrakalaren murrizketa horren funtsezko arrazoietako bat lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) bilakaera da; izan

ere, igoera garrantzitsuak izan ditu azken urteetan, eta bereziki emakumeei egin die mesede, horiek baitira kontratu prekarioenak dituzten kolektiboak. Hain zuzen ere, 2019an LGSa 736 eurotik 900 eurora igaro zen, eta hurrengo urtean, soldaten azterketarako azken erreferentzia, 950 eurora iritsi zen. Ondoren, 2022an 1.000 eurora iritsi da.

Erdiko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea=100
63. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.


Aurreko grafikoan egiaztatu daiteke LGSk 10 pertzentilean, hau da, diru sarrera gutxien jasotzen duten langileen %10ean, izan duen eragina. Bada, 2018. urtera arte diru sarrera txikienak zituen kolektibo horren batez besteko soldata beste taldeen soldata igoeretatik kanpo geratu bazen ere, azken bi urteetan haren posizio erlatiboak hamazazpi puntu baino gehiago egin du hobera, 2008ko diru sarreraren gainetik %15,8an kokatu arte. Hala ere, oraindik ez da iritsi biztanleria osoaren %18,3ra edo 90 pertzentilak, hau da, soldata altuenak dituen biztanleriaren %10ak, eskuratu duen %19,2ko igoera metatura.

Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100
64. irudia

10 pertzentila




90 pertzentila




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Soldaten bilakaera EAEn. 10 pertzentila. 2008. urtea=100
65. irudia

10 pertzentila. Emakumeak




10 pertzentila. Gizonak



Iturria: INE. Soldaten egitura.

10 pertzentilaren bilakaera sexuaren arabera aztertzen denean, deigarriak dira emakumeen eta gizonen zenbakien arteko aldeak. Hala, 2018ra arte, emakume pobreenen diru sarrera 2008an jasotzen zutena baino nabarmen txikiagoa zen (% 8 inguru txikiagoa). Hala ere, gizonak hamar urte lehenago kobratzen zutena baino %8,4 gehiago jasotzen zuten, baina garai hartako batez besteko igoeraren azpitik zeuden haiek ere. Dena dela, azken bi urteetan emakume pobreenen batez besteko soldata urteko 7.669 eurotik 9.481 eurora igo da, 1.813 euroko irabazia. Gizonen kasuan, ordea, igoera 421 eurokoa izan da soilik denbora horretan, baina jasotako zenbatekoa (14.866 euro) pertzentil bereko emakumeek jasotzen dutena baino askoz handiagoa da oraindik. Espero izatekoa da LGSren azken igoerek datozen urteetan konbergentziarako bide horretan sakontzea, LGS kobratzen duten pertsonen profila zerbitzuen sektoreko emakume batena baita, lanaldi partzialeko kontratua duena.

Soldaten bilakaera EAEn. 90 pertzentila. 2008. urtea=100
66. irudia



Iturria: INE. Soldaten egitura.

90 pertzentilean, soldaten bilakaera biztanleria osoarena baino hobea izan da. Horrek iradokitzen du azken urteetan handitu egin dela desberdintasuna. Izan ere, biztanleria osoarentzat, 2008az geroztik batez besteko hazkundera %18,3koa izan da, adierazi den bezala, eta 10 pertzentilarentzat %15,8koa baino ez, baina 90 pertzentilarentzat %19,2koa izan da. Baina hemen ere datuen nolabaiteko zuzentasuna ikusten da. Zehazki, 90 pertzentilaren batez besteko soldata 10 pertzentilarena halako bost (4,94) zen 2018an, baina azken bi urteetan erlazio hori 4,36ra leundu

da. Azpimarratu behar da gizonen kasuan bi pertzentilen arteko erlazioa egonkor mantentzen dela eta 2018ko 3,55etik 2020ko 3,58ra soilik aldatu dela, baina emakumeen kasuan ratioa nabarmen handiagoa da, 5,93tik 5,09ra jaitsi bada ere.

INEn estatistika horrek erakusten du emakumeen kolektiboaren barruko desberdintasunak handitu egin direla 2008tik. Izan ere, 10 pertzentilean dauden emakumeen soldata %13,4 hobetu den arren, 90 pertzentilean daudenenak %30,2ko hazkundera lortu du hamabi urte horietan. Portzentajea ere pertzentil horretako gizonena baino askoz handiagoa da (%18,2); beraz, talde horretako arrakala murriztu egin da 2008ko 7.978 eurotik 2020ko 4.977 eurora.

Soldata arrakalaren laburpen hau amaitzeko, esan behar da gizonen eta emakumeen soldaten arteko alderik handienak kualifikazio txikiko okupazioetan gertatzen direla, non emakumeak gehiegi ordezkaturik dauden. Talde horretan, soldaten arteko aldea urtean 10.000 eurotik gora izatera iristen da, batez besteko arrakalaren (5.914 euro) oso gainetik. Aitzitik, soldata aldea txikiagoa da kualifikazio altuetan, eta, beraz, funtsezkoa da emakumeak zuzendaritza postuetara eta hobeto ordaindutako okupazio sektoreetara iristea.